



EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LURZORU POLUITUEN PLANA 2007-2012

Gobernu Batzordeak 2007ko abenduaren 26an onartu zuen dokumentua

EDUKIEN AURKIBIDEA

1	Dokumentuaren sarrera	8
1.1	AURREKARIAK	8
1.2	PLANAREN JUSTIFIKAZIOA ETA IRISMENA	9
	Lurzoru poluituen politikarako eta planerako arrazoiak	9
	Planaren irismena	10
1.3	EGITURA ETA EDUKIAK	12
1.4	PLANAREN DEFINIZIO-PROZESUA: ELEMENTU NAGUSIAK	13
2	Lurzorua babesteko politika Europar	15
2.1	SARRERA	15
2.2	LURZORU POLUITUEN LEGE-ESPARRUA EUROPAR	15
2.3	TRESNA TEKNIKOAK	16
2.4	LURZORU POLUITUEN FINANTZIAZIOA	18
2.5	LABURPENA ETA ONDORIOAK	21
3	LURZORUA POLUZIOTIK BABESTEKO EUSKAL POLITIKAREN AURRERAPAUsoAK	22
3.1	JATORRIA: LURZORUA BABESTEKO PLAN ZUZENTZAILEAREN PROPOSAMENA	22
3.2	LURZORU POLUITUEN POLITIKAREN AURRERAPAUsoAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN	22
4	LURZORU POLUITUEN PLANAREN LEGE-ESPARRUA	28
4.1	ESTATUKO LEGEDIA	28
4.2	EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LEGEDIA	29
4.3	EUROPAKO LEGEDI BATERATURAKO PROPOSAMENA	32
5	Lurzoruaren poluzioaren egoera eta erronkak	35
5.1	IPEIE EREDUA. LURZORUAREN POLUZIOA ETA BERE ERAGINAK ULERTZEKO ERA BERRITZAILEA	35
	INDAR ERAGILEAK. Lurzoru poluituak sortzen dituzten eragileak	37
	Lurzorua polui dezaketen jardura ekonomikoak eta leku poluituetan eraikitzea	38
	Hirigintza eta lurzoruaren okupazioa	40
	PRESIOAK. Lurzoruaren poluzioaren eragile nagusiak	40
	EGOERA. Lurzoruaren kalitatea hondatzea	43
	INPAKTUAK. Lurzoru poluituari lotutako arriskuak	47
	Osasunean eta ekosistemetan duen inpaktua	47
	Eragin ekonomikoa	49

ERANTZUNAK. Lurzoru poluituen planaren erronkak.....	49
Euskal Autonomia Erkidegoan, lurzoru poluituak berreskuratzea bultzatzen duten faktoreak: legedia, hirigintza eta ingurumen-kontzientzia handitzea	50
Lege-esparrua eta lurzoria poluziotik babesteko esku-hartzea bizkortzea	50
Hirigintza, poluituta egon daitezkeen lurzoruak berreskuratzeko katalizatzaile gisa	50
Ingurumen-kontzientzia	53
5.2 LURZORUA BABESTEKO POLITIKAREN ERRONKAK	54
6 Lurzoria poluziotik babesteko politikaren oinarriak eta helburuak	56
6.1 PRINTZIOAK eta ildo estrategikoak	57
Ildo estrategikoak	58
Printzipio orokorrak	60
6.2 IKUSPEGIA: INPAKTU TXIKIENA ZIURTATUKO DUEN LURZORUAREN KUDEAKETA	62
6.3 HELBURU ESTRATEGIKOAK: IKUSPEGIRA GERTURATZEN DUTEN FAKTOREAK	63
1. helburua. Lurzoriaren kalitatea hondatzea prebenitzea	63
2. helburua. Lurzoru poluituen arrazoizko berreskuratzea sustatzea	64
3. helburua. Erabiltzen ez diren eta kalitatea hondatua duten lurzoruak erabilera berrietarako berriz erabiltzea	66
4 helburua. Lurzoruak balorizatzea poluitzen ez duten eta balio erantsi altua duten erabilerekin	67
7 Ekintza-plana	68
7.1 EZAGUTU PROGRAMA	70
1. EL. Lurzoriaren kalitateari buruzko informazioa biltzea, antolatzea eta kudeatzea	70
2. EL. Jakintza sortzea	72
3. EL. Sentsibilizazioa, informazioa eta prestakuntza	72
7.2 ERAGIN PROGRAMA.....	73
4. EL. Ingurumen-organoaren ekintza optimizatzea eta lurzoru poluituei buruzko legeria aplikatzea	73
5. EL. Administrazioako mailen artean lankidetzeta-baldintza egokiak sortzea lurzoru poluituetan esku-hartzea aurreratzeko	74
7.3 EKIN PROGRAMA.....	75
6. EL. Lurzoru poluitu gehiago sortzea prebenitzea	75
7. EL. Poluitutako kokalekuak berreskuratzeko irtenbideak bilatzea	76
8. EL. Erabiltzen ez diren eta kalitatea aldatu gabe duten kokalekuak berriro erabiltzea	78

9. EL. Aurreikusitako hirigintza-jarduerarik ez duten eta poluituta egon daitezkeen lurzoruen kudeaketa. Balorizatzea	79
8 BALIABIDEEN MOBILIZAZIOA ETA PLANAREN FINANTZIAZIOA	80
8.1 KUANTIFIKAZIO EKONOMIKORAKO IRIZPIDEAK	80
8.2 BANAKATZE EKONOMIKOA	80
9 PLANAREN KUDEAKETA.....	85
9.1 KUDEAKETA-ORGANOAK	85
Planaren zuzendaritza.....	85
Kudeaketarako unitate teknikoa	86
Sustapen-taldeak.....	86
9.2 AGINTE-TAULA	87
Segimendu-adierazleak.....	87
Tarteko ebaluazioak	88
I. ERANSKINA ADITUEKIN EGINDAKO BILERAKO OHARRAK	90
II. ERANSKINA. EKINTZEN DESKRIBAPEN XEHATUA	91

TAULEN AURKIBIDEA

1. taula: Indar eragileen eta sor ditzaketen presioen arteko lotura	40
2. taula: Identifikatutako substantzia poluitzaileak: ikerketetan, ingurune bakoitzean, substantziak VIE-B baino kontzentrazio handiagoetan agertu diren kasuen kopurua	46
3. taula: Hirigintza-erabilerarako definitutako poluituta egon daitezkeen lekuen inbentarioaren azalera (ha)	48
4. taula: Poluituta egon daitezkeen lurzoruetan, 2003an eta 2004an egindako ikerketen arrazoi nagusiak, ikertutako azaleraren ehunenekotan adierazita	51
5. taula: Hirigintzako planeamenduak eragiten dion poluituta egon daitekeen lurzoruaren eskaera. Joerazko agertokia eta plan-agertokia	52
6. taula: EAEko enpresen ingurumenarekiko sentsibilizazio-maila	54
7. taula: Planean aurreikusitako programak, ekintza-lerroak eta ekintzak	70
8. taula: 2007-2012ko Lurzoru poluituen plana gauzatzeko inbertitu beharreko aurrekontu publikoaren kalkulua (milioi euro)	81
9. taula: 2007-2012ko Lurzoru poluituen plana ezartzeko beharrezkoak diren guztizko baliabide ekonomikoak (milioi euro)	83
10. taula: 2007-2012ko Lurzoru poluituen plana ezartzeko giza baliabideetara bideratu beharreko aurrekontua (milioi euro)	83
11. taula: Behar diren giza baliabideak	83
12. taula: Planeko adierazleak	87

IRUDIEN AURKIBIDEA

1. irudia: Plana egiteko prozesuaren faseak	13
2. irudia: Europako herrialdeetan erabiltzen diren finantziazio-tresna motak.	19
3. irudia: Funts publiko-pribatuen Europako esperientzia.	20
4. irudia: Hitzarmen eta aliantza publiko-pribatuen Europako esperientzia	20
5. irudia: Lurzorua babesteko esparru-direktibaren proposamenaren edukiaren laburpena	34
6. irudia: Kostu ekonomikoaren banaketa zereginen arabera	49

1 DOKUMENTUAREN SARRERA

1.1 AURREKARIAK

Laurogeita hamarreko hamarkadaren hasieran Euskal Autonomia Erkidegoan atzemandako **lurzoru poluituen lehen kasuek** erakutsi zuten, lurzorua, ordura arte oso arreta gutxi jarri zitzaion ingurunea, **industria-historia luzearen** eraginak jasaten egon zitekeela. Industriaren helburu bakarra ekoiztea zen, ez besterik. Azken urteetan, ingurumena babesteko neurriak, uraren eta airearen kalitatea kontserbatzera zuzendu izan dira, batez ere, eta albo batera utzi izan da, besteak beste, gainerako ingurune-konpartimentuen arteko erregulatzaille-funtzioa betetzen duen ingurunea: lurzorua.

Begi bistakoa zen kasu horiek ezin zirela bakantzat hartu eta Eusko Jaurlaritzak lurzorua poluziotik babesteko ekimen-estrategia diseinatzea erabaki zuen. Ekimen horien emaitza ***Euskal Autonomia Erkidegoko lurzorua babesteko plan zuzentzailearen proposamena (1994)*** izan zen. Plan zuzentzailearen proposamen horrek, onartzeko proposatua izan ez zen arren, azken urteetan, **Euskal Autonomia Erkidegoan gaiaren inguruan hartu diren neurriak zuzendu ditu** eta estatu-mailan politika aurreratua garatzea sustatu du. Beti egon da adi merkatuaren mugimenduei, lurzoru poluituetan esku hartzeko eragile nagusia den hirigintza-birmoldaketari eta irtenbideak aurkitzen konprometituenak izan diren herrialdeetan ezarritako estrategiei.

Lurzoruaren kalitatearen erasan berriei aurre egiteko **neurri berriak hartu beharra**, kasu presazkoenak konpontzea eta ekintza hain berehalakoa izatea espero ez den lekuetako esku-hartzea planifikatzea ziren plan zuzentzaile haren oinarriak eta, baita *Euskal Autonomia Erkidegoko lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legearen* azpian dauden lerro filosofikoak ere.

Lege horrek burutu du esku-hartze eremu guztietarako mekanismoak eta baliabideak diseinatzeko eta martxan jartzeko prozesu luzea, horrela, **lurzorua poluziotik babesteko jarduera integrala osatzeko**. Legeak, gainera, lurzorua hondatzea saihesteko, kasurik presazkoenei konponbideak aurkitzeko eta lurzoru poluitu gisa oinordetzan hartutako pasiboaren konponbidea planifikatzeko, administrazio publikoek dituzten **lurzoruaren politikaren tresnak** batzen ditu. **Lurzoru Poluituen Plana** da tresna horietako bat.

1/2005 Legearen 34. artikulua

Eusko Jaurlaritzak, ingurumen-organoaren proposamenez, Lurzoruen Plana onartuko du Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumeneko Batzorde Aholku-emaileak txostena egin eta gero, lurzoru poluituen inguruan ekintza-lerroak zehazteko asmoz.

Plan Zuzentzaileko kontzeptuak, edukiak eta baliabideak gaur egungo errealitatera eta azken urteetan erdietsitako esperientziara **eguneratzea** eskatzen du lurzorua poluziotik babesteko planifikazio-prozesuak. Helburu horrekin, eta 1/2005 Legearen mandatuak betetzeko eta ***Garapen Iraunkorraren Euskal Estrategiaren*** eta ***Ingurumen Esparru-Programaren*** xedeekiko eta helburuekiko ardura dela-eta diseinatu da *Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoru Poluituen 2007-2012ko Plana*.

1.2 PLANAREN JUSTIFIKAZIOA ETA IRISMENA

Lurzoru poluituen politikarako eta planerako arrazoiak

Lurzorua berri ezin daitekeen ingurunea da eta, azken mendeetan, gero eta presio handiagoa jasan du. Presio horrek lurzoruak planetaren oreka orokorrerako garatzen dituen bizi-funtzioak murrizten ditu. Hazten joan den presio horrek lurzoruaren degradazioa ekarri du eta ingurune horrek poluitzaileak finkatzeko, iragazteko eta xurgatzeko duen gaitasun handia dela eta, degradazioa oso aurreratua izan arte ez da nabaritzen —urarekin eta airearekin ez bezala—.

Bestalde, lurzoruaren degradazioak, lurzoria ingurumen-konpartimenduen arteko erregulatzailerak den neurrian, *a priori* kuantifikatzen zaila den eragina du lur azpiko eta azaleko urean, gizakiaren osasunean, klima-aldaketan, biodibertsitatean eta elikagaien segurtasunean. Horrek guztiak oro har eragiten du ingurumenean, eta arriskuan jartzen ditu lurzoruaren erabilera iraunkorra eta etorkizuneko belaunaldientzat izan dezakeen funtzionaltasuna.

Ikuspegi "praktikoago" batetik, Herbehereetan egindako ikerketa berriek erakutsi dute lurzoruaren poluzioaren eta gaixotasunen artean harreman zuzena dagoela. Urteko, ingurune horren poluzioaren eraginpean egoteagatik, 200-250 disfuntzio sortzen direla kalkulatu da. Ikerketa berak poluzioaren eragin ekonomikoa 5 eta 8 bilioi euro bitartekoa dela kalkulatu du. Kontzeptu horren baitan biltzen ditu ez soilik leku poluituak ikertzeko eta berreskuratzeko sortzen diren kostuak, baina baita osasun-kostuak, jarduera ekonomikoen galerak eta lurzoruaren balioa gutxitzea ere, besteak beste.

Beste herrialde batzuetan, arrazoi horiengatik diseinatu dira lurzoria poluziotik babesteko politikak. Jarraian aipatuko diren gaiekin batera, arrazoi horiengatik ere bada lehentasuna Euskal Autonomia Erkidegoan lurzoruaren plana gauzatzea. Plan horrek lurzoruaren poluzioa prebenitzeko eta poluzioak neurri handi batean jada kaltetu dituen lurzoruak garbitzen jarraitzeko bitartekoak jarriko ditu:

- Euskal Autonomia Erkidegoko hiriguneen garapena eta hazkundera oso lotuta egon da **hogeigarren mendeko industria-garapenarekin**. Pertsonentzako oso hirigintza bortitza itxuratu da, eta biztanle-dentsitate oso altuko egituretan bizilekuak eta industria-eremuak nahasi dira.
- **Substantzia poluitzaileek kaltetutako industria-lurzoria** erabilera sentikorragoetarako **berriz erabili** behar izatea ekarri dute hirurogeita hamarrekoko hamarkadako krisialdiak eta laurogeita hamarrekoko hamarkadan hasi zen ondorengo **industria-berregituratzeak**, elkarbizitzarako eremuak bilatzen dituen hirigintza-sistema berria sustatzeko nahiarekin batera. Prozesu horren adibide garbia da Nerbioi Ibaiaren ardatzean garatu den hirigintza; lehen poluitzeko arrisku handia zuen industria astuna zegoen lekuetan, erdigune eta kalitate handiko hirigintza-eremuak sortu dira.
- Gaur egun lurzoria polui dezaketan 5.000 jarduera baino gehiago jasotzen ditu *lurzoria polui dezaketan jarduerak egiten diren lekuen Euskal Autonomia Erkidegoko inbentarioak*. Lurzoruan poluitzaileak sar ez daitezten prebentziorako jarduera horiek kontrolatzea beharrezkoa izango da. Jarduera horiei buruz urteetan egin den datu-bilketaren emaitza da inbentarioa, eta, diagnostikorako dagoen tresna garrantzitsuena izanik, horretan oinarritzen da Plan hau. Bestalde, baliabide horrek baditu aurretiazko datu batzuk ez dutela zertan bat egin Eusko Jaurlaritzak lurzoruaren poluzioa prebenitzeko eta kontrolatzeko

onartu behar duen 1/2005 Legearen VI. kapituluaren datoren "lurzorua polui dezaketan jarduera eta instalazioen inbentarioa"rekin.

- Euskal Autonomia Erkidegoko azalera erabilgarriaren **% 16,5en gainean gutxi gorabehera —7.898 Ha ditu— lurzorua polui ditzaketan jarduerak egin dira**, azken bi mendeetako tradizio industrial luzea dela eta. Azken urteotan egindako ikerketen bidez lortutako emaitzetan oinarrituz eta inbentarioan sartu den azalera guztiaren —poluitutzat hartu den azalera— estrapolazio bat eginez, 1.279 Ha eta 3.120 Ha bitarteko azalera aldatu edo poluitu dela kalkulatu da; hots, EAEko azalera erabilgarriaren % 2,7 eta % 6,5 artean.
- Datozen 15 urteetan, poluituta egon daitezkeela **inbentariatutako lekuen % 50ean hirigintzako esku-hartzeak** izango direla aurreikusten da. Esku-hartze horretarako, lurzoruaren kalitatea erabilera berrietara egokitu beharko da, eta lurzoru gehiago kaltetzea saihesteko, obrarako derrigor hondeatuko den materialen kudeaketak ere egokia izan beharko du.
- Euskal Autonomia Erkidegoan poluituta egon daitezkeen 541 partzela daude erabili gabe, hirigintzarako baliu daitezkeen eremuetan kokatuak nagusiki eta epe laburrean eta ertainean erabiliko dira.
- Poluituta egon daitezkeen eta hirigintzako zirkuitutik at dauden lursailak eremu natural eta landa-eremuetan kokatuta daude, eta ekosistemengan eta beste inguruneengan duten eragina garrantzitsua izan daiteke.

Urteak pasa ahala, gero eta argiago ikusten dira lurzoruaren poluzioak dituen eraginak eta zifra horien handitasunak erakusten du Euskal Autonomia Erkidegoko egoerak zentzu horretan ekinbide zehatza eta ahalegin garrantzitsua eskatzen dituela.

Planaren irismena

2002-2020ko **Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategiaren** eta **Ingurumen Esparru-Programaren** xedeen eta helburuen ardura dela-eta garatu da *Lurzoru poluituen 2007-2012ko plana*. *Euskal Autonomia Erkidegoko lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legearen* mandatua ere bada.

Eusko Jaurlaritzaren ahalegina kontuan izanda, lurzorua babesteko Plan Zuzentzailearen proposamenarekin (1994) ekintza ugari abiatu baitzuen...

Besteak beste, lurzoruaren poluzioaren egoeran sakontzeko ahalegina —lurzorua polui dezaketan jarduerak dituzten lekuen inbentarioa izan zen emaitza—, metodologia-gidak sortzea edo lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko 1/2005 Legea onartzea.

... eta lurzoru poluituetan eragiteko urteetako esperientzia aintzat hartuta...

Biztanleentzat arriskutsuak izan zitezkeen lurzoruekin edo hiri-eremu handiak leheneratzearekin zerikusia zuten mementoko beharrei emandako erantzunak.

..., oraingo Plana aurrera egiteko bokazioarekin sortu da. Aurrera egin nahi da aurreko plan zuzentzailearen ideietan eta hausnarketetan, eta urteetan gaiaren inguruan egindako lanaren ondorioz eta lege-esparru berria konfiguratu duten arau berriak onartu ondoren detektatu diren **behar berriak gehitu**. Behar horiei

erantzuteko **tresna eta ideia berritzaileak** jarriko dira abian eta behar beste **baliabide** mobilizatuko da.

Planaren irismenari dagokionez, aplikazio-eremua mugatzen duten perspektibak askotarikoak dira:

- **Indarraldia eta eremu geografikoa:** Euskal Autonomia Erkidegoan 2007-2012 bitartean egingo diren jarduerak barne hartzen ditu planak. Iraunaldi horrek posible egiten du, hasiera batean, aurreikus daitekeen egoeran helburuak eta ekintza-lerroak finkatzea.
- **Lurzoruaren babes-eremua:** Lurzorua babesteko gaiari buruzko Europako Estrategiak onartzen duen bezala, lurzorua jatorri askotariko mehatxuen menpe dago. Mehatxu horiek lurzoruari berezko funtzioak garatzeko gaitasuna murrizten diote (erosioa, gazitzea, materia organikoa galtzea, etab.). Planaren helburua lurzorua poluziotik babestera mugatzen da, hau da, jatorri antropikoa duten substantzia kimikoak sartzearen aurka. Lurzoruaren zigilatzea edo artifizializazioa gutxitzea lortzeko tresnak ere garatuko ditu. Euskal Autonomia Erkidegoan, aukera egingarrietako bat da substantzia poluitzaileak dituzten lurzoruak segurtasun-baldintzetan berriz erabiltzea.
- **Babesaren irismena.** Lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legearekin bat, eta bere izenak adierazten duen bezala, lurzoruaren babesaren prebentzio- eta berreskuratze-perspektibetatik aztertzen da. Azken helburu horretan, poluzio historikoa jasan duten lekuak eta legeak kalitatean kaltetua daudela kontsideratzen dituenak sartzen dira.
- **Poluzio-mota.** Poluzioak jatorri ugari izan baditzake ere, plana industria-jarduerak kaltetutako lurzoruera zentratzen da eta bere jardun-eremutik kanpo uzten ditu beste kausa batzuk, esaterako, nekazaritza intentsibotik eratorritakoak. Proposatzen diren ekintza gehienak poluzio zehatza deritzonera zuzenduak egon arren, hau da, jarduera poluitzailea dagoen lekuko lurzorua poluitzen dutenera, planaren asmoa ere bada lehen poluzio lausoaren inguruan herabeki egiten hasi ziren ekintzak indartzea.
- **Babesaren kontzeptu nagusia.** Lurzoruaren babesaren "arriskuan oinarritutako lurzoruaren kudeaketa" (RBLM - *Risk Based Land Management*) kontzeptuaren inguruan artikulatuko da, gaiaren inguruko ekintzak errealistak eta denboran progresiboak izan daitezen, eta lurzoruaren erabilera iraunkorraren printzipioarekin bat egin dezaten.

Euskal Autonomia Erkidegoko lurzoru poluituen 2007-2012ko planaren aplikazio-eremua	
➡ Eremu geografikoa	Euskal Autonomia Erkidegoa
➡ Iraunaldia	2007-2012
➡ Babes-eremua	<i>Helburu nagusia:</i> lurzorua jatorri antropikoko poluzio kimikoaren aurka babestea.
	<i>Bigarren helburua:</i> zigilatzea eta artifizializazioa mugatzea.
➡ Babesaren irismena	Prebentzioa eta berreskuratzea

	Poluzio historikoa eta poluzio berria jasaten duten lekuak
➡ Poluzio-mota	Jatorri industrialeko poluzioa Poluzio puntual eta lausoa.
➡ Babesaren nagusia	kontzeptu Arriskuan oinarritutako lurzoruaren kudeaketa (RBLM – <i>Risk Based Land Management</i>)

1.3 EGITURA ETA EDUKIAK

Dokumentu honek, 2007-2012 denboraldirako, Euskal Autonomia Erkidegoan lurzoruaren poluzioaren prebentziorako eta zuzenketarako **Jaurlaritzaren eskuhartze eskema eta programazio politikoa** jasotzen ditu. Garapena bederatzi kapitulutuan eta eranskin batean egituratzen da, eta jarraian laburbiltzen dira horien edukiak.

Lehen kapituluak, plana kokatzeaz gain, dokumentua sortzeko egindako analisi-, garapen- eta adostasun-**prozesuen** deskribapen zehatza jasotzen du. **2. kapituluak**, Euskal Autonomia Erkidegoko baliabideak eta konponbideak proposatzeko erreferentzia izan daitezkeen **Europako herrialdeetako lurzoru poluituen politikaren** ikuspegi orokorra ematen du. **Nazioarteko adituekin** politika horiek kontrastatzeko eta euskal testuinguruan aplikagarriak diren aztertzeko egin zen **lansaio** bateko konklusio nagusiekin osatzen da (**I. eranskina**).

3. kapitulan, azken urteetan, lurzoru poluziotik babesteko politikan egin diren **aurrerapauso** nagusiak ebaluatzen dira, aurrerapenek planean jarritako helburuekin eta gaur egungo politika aurrerakoien norabidearekin bat egiten duten baloratzeko.

Lege Esparruaren paperaren garrantzia ikusirik eta Euskal Autonomia Erkidegoa lurzoruaren poluzioa prebenitzeko eta zuzentzeko legea onartzen aitzindari izan dela kontuan izanda, **4. kapituluak** eskusiboki alderdi hori garatzen du. **5. kapituluak egoeraren diagnostikoaren** zati handiena da.

Plana kokatu, bere ikuspegi programatikoa definitu eta diagnostikoa aztertutakoan, **6. kapituluak** planaren intereseko arlo bakoitzean Autonomia Erkidegoaren **posizionamendu estrategikoaren** azterketa egiten du: lurzoru poluitu gehiago ez sortzeko prebentzioa, poluitutako lurzoruak berreskuratzea/berriz erabiltzea/balioa ematea.

7. kapitulan, helburuak lortzeko eta ikuspegirantz jotzeko diseinatutako **ekintza-plana** zehazten da. Irismen handiko **hiru programa** azaltzen dira ekintzetara zuzendutako ildo zehatzetan (**II. eranskina**).


Planaren eduki ekonomikoa **8. kapitulan** garatu da aurreikusitako ekintzetarako baliabideen mobilizazio-eskema baten bidez. **9. kapituluak** Planaren kudeaketa-eskema, bere printzipioak eta kudeaketa-organoak zehazten ditu.

1.4 PLANAREN DEFINIZIO-PROZESUA: ELEMENTU NAGUSIAK

Lurzoru polituen 2007-2012ko plana lurzoria poluziotik modu eraginkorrean babesteko gai izango den politika diseinatzeko **irizpideak eman ditzaketen elementu guztien ebaluazio zehatzetatik** abiatzen da:

- **Lurzoruaren erasanaren** larritasuna
- Euskal Autonomia Erkidegoaren **egoera sozioekonomikoa** eta azken urteetako birmoldaketa ekonomikoa eta urbanistikoa.
- Lurzoria babesteko eta kudeatzeko interesak dituzten **eragile**-talde oso desberdinen **beharrak**.
- Azken **aurrerapauso** teknikoak, metodologikoak eta zientifikoak.
- **Garapen legalaren aurreikuspenak**, batez ere, Europako Batasunekoak.

Bestalde, plana **egiteko prozesuak** jarraian deskribatzen diren (**1-1 irudia**) faseak dituen metodologiaren garapena zehazten du. Faseok dokumentu estrategiko honekin burutzen dira.



1. irudia: Plana egiteko prozesuaren faseak

I. fasea. Euskal Autonomia Erkidegoko egoeraren diagnostikoa

Fase horren helburua da Euskal Autonomia Erkidegoan lurzorua poluziotik babesteko gaur egungo egoera baloratzea. Nagusiki **hiru arloren** balorazio zehatza hartu da aintzat.

- *Lurzorua babesteko plan zuzentzailearen proposamena (1994)* idatzi zenetik lurzorua berreskuratzeko eta poluziotik babesteko eman diren aurrerapausoak.
- Esku hartzeko aukerak eta erak zehazten dituen autonomia, estatu eta Europa mailako lege-esparrua.
- Egoera sozioekonomikoa eta lurzoruaren erasangarritasunaren problematikaren larritasuna bi ikuspegitatik aztertuta: alde batetik, lurzoru horietan esku hartzea sustatzen duten faktoreen ikerketa eta, bestetik, IPEIE ereduaren aplikazioa (**indar-eragileak, presioak, egoera, inpaktuak eta erantzunak**) erantzuteko mekanismoak garatzea eta diseinatzea eskatzen duten puntu nagusiak identifikatzeko.

II. fasea. Azterketa konparatua

Euskal Autonomia Erkidegorako erreferentzia diren Europako beste herrialde eta eskualde batzuetako (Alemania, Herbehereak, Flandes, Frantzia edo Erresuma Batua) **esperientzia** zehatzen emaitzak alderatuta ateratako konklusioak gehitu zaizkio diagnostikorako ahaleginari. Lurzoruaren babesa ikuspegi desberdinetatik landu duten herrialdeetako adituen eztabaida-saio batekin eta **gaiaren Europako estrategiaren** berrikuspenarekin osatu zen azterketa konparatua. Horrek Euskal Autonomia Erkidegoa erreferentziako testuinguruan kokatzea ahalbidetu du eta bere egoera partikularrera egokitzen diren "jardunbide egokiak" identifikatzea.

III. fasea. Definizio estrategikoaren prozesua

Fase horretan aurreko bi faseetako emaitzak bateratu dira **barne-hausnarketarako prozesu** gogor batekin. Horrek, lurzorua poluziotik babesteko politikaren **ikuspegia edo azken helmuga diseinatzea**, ikuspegia gauzatzeko **helburu estrategikoak zehaztea** eta horiek erdiesteko epe laburrerako zein ertainerako **programak eta ekintzak definitzea** ahalbidetu du.

IV. fasea. Parte hartzeko eta ingurune-eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozesua

Parte-hartzea sustatzea *Lurzoru poluituen 2007-2012ko planaren* oinarritzko printzipioetako bat da, eta dokumentu horretan eragile sozioekonomiko guztiek ekarpenak egitea du helburu. Planaren baitan, prozesu hori bi ekintzen bidez bideratu da: talde eta eragile desberdinek ekarpenak egitea dinamizatu duen **prozesu parte-hartzailea** garatuta eta, gaiaren inguruan indarrean dagoen legeria¹ betetzeko, plana ingurumen-inpaktuaren ikuspegitik baloratu ahal izateko **ebaluazio estrategikorako prozesua** landuta.

¹ *Ingurumen-inpaktua ebaluatzeko prozedura arautzen duen uztailaren 22ko 183/2003 Dekretua eta plan eta programa jakin batzuen efektuen ebaluazioari buruzko apirilaren 28ko 9/2006 Legea.*

2 LURZORUA BABESTEKO POLITIKA EUROPAN

2.1 SARRERA

Europako herrialde industrializatuetakoko lurzoruek jasan duten industria-jarduera handiagatik eta lehen ingurumenarekiko zegoen sentsibilizazioa txikia izateagatik, Euskal Autonomia Erkidegoan bezala, **lurzorua ia Europako lurralde osoan poluitu da, baina ez toki guztietan larritasun-maila berarekin.**

1999an, Europako Ingurumen Agentziak (EIA) **Europan poluituta² egon daitezkeen lekuak 1,5 milioi** direla kalkulatu zuen. Sei urte geroago soilik, organismoak **2 milioi³** inguru lursail zenbatu zituen.

Azken bi hamarkadetan, Europako Batasuneko herrialde gehienek lurzoru poluituek mahai gainean jartzen dituzten erronkei aurre egiteko **politikak eta estrategiak** garatu dituzte. Hala ere, guztiek ez dute **aurreratze-maila berdina** izan, gaia lantzeko Europako herrialdeek ardura desberdina izan baitute eta herrialdeen abiatze-egoera heterogeneoa baitzen.

Azaletik, lurzorua babesteko eta iraganetik oinordetzan jasotako poluzioa konpontzeko erabili den formula **legeri zehatza garatzean** oinarritua da. Gainera, lehenasunezko zatik jo da gaur egungo kasuak ezagutu eta konpontzeko **tresna teknikoak** diseinatzea eta gaiaren inguruan eragile publikoen zein pribatuen ekintzak azkartzeko baliabide ekonomikoak mobilizatzeko **tresna ekonomikoak** martxan jartzea.

2.2 LURZORU POLUITUEN LEGE-ESPARRUA EUROPAN

Lurzoru poluituak Europa osoan dauden arren, gaur egun **oraindik ez dago** espresuki ingurune horren babesari heltzen dion **Europako legedi bateraturik**. 4. kapituluan, Europako Batzordeak ildo horretan, orain artean, egin dituen ekintzak azaltzen dira.

Lurzoruko poluitzaileekin zerikusia zuten ezbehar⁴ larrien ondorioz, herrialde asko ingurune horren poluzioak eragin ditzakeen arriskuez jabetu zen eta, ezbehar berriak saihesteko helburuarekin, gaiaren inguruko legedia sortu zuten.

Danimarka eta Holanda izan ziren **legedi espezifikoak garatzen aitzindariak** bi egoera komun eta erabakigarriren ondorioz: alde batetik, iragan industrialala eta, bestetik, biztanleria urez hornitzeko lur azpiko urek duten garrantzia. Danimarkak **1983an** sortu zuen *Leku poluituei buruzko legea* eta, Holandak **1987an** *Lurzorua babesteko legea*. Ondoren, bi herrialdeek arau zehatzagoak eta urteetako esperientzietara egokitutakoak onartu dituzte.

Bestalde, **Flandesek** (Belgika) **1995ean** Lurzoruak Berreskuratzeko Dekretua onartu zuen. Dekretuak, legezko tratamendu desberdinaren bidez, bereizi egiten zituen poluzio historikoa eta berria, eta leku poluituen erregistroa sortu zuen.

² State of Environment at the end of the century, EEA,

³ The European Environment, State and Outlook 2005

⁴ Mellery-n (Belgika), bi zabortegiren ondorioz, lur azpiko urak eta ur edangarrirako bi putzu hondatu ziren. Erresuma Batuan (Swansea Valley) metalurgia sektoreko enpresek, metal astunen presentziaren ondorioz, giza osasunerako arriskua sortu zuten. Norvegian (Bergen) arrain-haztegi bat PCBz poluitu zen.

Alemaniak 1998an onartu zuen *Lurzorua babesteko Lege Federala*. Legeak lurzorua babesteko eta garbitzeko irizpideak biltzen ditu eta ondorengo ordenantza batek osatu zuen. Aurrez, estatu federatu askok gaia erregulatzeko berezko arauak zituzten. Nahiz Alemaniak lege federala onartzea nahiko berandu lortu, aitzindaritzat jotzen da Europako gainerako herrialdeetako lurzorua poluziotik babesteko politikak markatu dituzten kontzeptuak diseinatzen.

Austria 1989an hasi zen gaiaren inguruko legedia sortzen, urte horretan onartu baitzuen lurzoru poluituak garbitzeko legea (*Lurzoru poluituak deskontaminatzeko lege federala*, ALSAG). Lege horrek lurzoru poluituak erregistratzeko eta erremediatze-ekintzak finantzatzeko oinarri legala eman zuen.

Beste herrialde batzuetan, ingurumena babesteko lege orokorretatik edo hondakinen kudeaketa arautzen zuten legedietatik abiatu zen legedia.

Horrela, **2000.** urtean, **Erresuma Batuak** ardurari eta lurzoruaren poluzioari buruzko erregimen arautzailea sortu zuen, 1990eko *Ingurumena babesteko legearen* 2. sailaren baitan. Aurrez, **1999an, Italiak** *Hondakinak kudeatzeko legearen* 17. artikulutik abiatuta 471/1999 Dekretua onartu zuen. Dekretu horrek lurzoru poluituak berreskuratzeko metodoak eta irizpideak zehazten ditu.

Berrikiago, **2004.** urtean, **Bruselak**, Belgikan, lurzoru poluituak garbitzeko dekretuarekin arautu zuen arlo hori. Urte berean, Waloniak oraindik indarrean sartu ez den lurzoru poluituen kudeaketari buruzko ordenantza garatu zuen.

2005. urtean, **Spainiak** *9/2005 Errege Dekretua* onartu zuen. *Errege Dekretuak lurzorua polui dezaketen jardueren zerranda eta lurzoru poluituak izendatzeko arauak eta irizpideak zehaztu zituen.*

Errege Dekretu hori izan zen, hondakinen 10/1998 Legearen baitan txertatuta dauden lurzoru poluituei buruzko artikuluetan, gai horren inguruan egindako lehen garapena.

Azkenik, badaude **lurzorua babesteko legedi berezirik garatu ez duten herrialdeak**, tartean, **Suedia, Finlandia** eta **Txekiar Errepublika**. Herrialde horiek lurzoruaren poluzioa ingurumena babesteko lege orokorrekin edo hondakinei buruzko arau zehatzekin arautzen dute. Frantziaren kasuan, lurzoru poluituei buruzko politika 1976ko ingurumena babesteko jarduera sailkatuen legean (ICPE⁵) oinarritzen da, batez ere.

EBko herrialdeetan lege-esparruaren bilakaera desberdina izan den arren, **arautze espezifikoa dagoen kasurik gehienetan antzeko esku-hartze eskema landu da**, nahiz herrialde edo eskualde bakoitzak hurbiltze desberdinak izan. Azken urteetan, hala ere, bateratzeko berezko joera nabari da. Eskema horren pausuak hauek dira: (1.) lurzoruaren kalitatearen hondatzearen karakterizazioa, (2.) gizakiaren osasunean eta/edo ingurumenean duen arriskuaren ebaluazioa, (3.) berreskuratze-proiektua diseinatzea edo lekuan bertan poluzioa kontrolatzea, (4.) hartutako neurriak exekutatzeko eta (5.) administrazioak lurzoruaren kalitatea egiaztatzea.

2.3 TRESNA TEKNIKOAK

Arlo teknikoan, **Europako herrialdeek**, nahiz formulario zehatzetan desberdinak izan, oinarritzko kontzeptuetan oso antzekoak diren tresnak erabiltzen dituzte. Esaterako, oso ohikoa da erabiltzea poluituta egon daitezkeen edo dauden lekuen

⁵ Installation classifiée pour la protection de l'Environnement

inbentarioak⁶, erabakiak errazago hartzeko kalitate-estandarrak⁷ edo arriskuak kuantifikatzeko prozedurak.

Gainera, azken hamarkadetako garapen teknikoak eta zientifikoak, hainbat egoeratan lurzorua **deskontaminatzeko teknika bateratuak** martxan jartzea ahalbidetu du.

Lurzoru poluituak identifikatu eta egoerak ezagutzeko, ia herrialde guztiek jarri dute abian **industriagune eta zabortegiak barne hartzen dituen prozesu sistemakoa**. Ahalegin horren emaitza da Austria, Flandes, Walonia, Danimarka, Finlandia, Frantzia edo Holandak poluituta egon daitezkeen edo dauden lurzoruen erregistroa edukitzea.

Oro har, **lurzoru poluituak identifikatzeko aurrez ikerketa-prozesu bat egin behar da**, eta, horretarako, herrialde gehienek eskualde edo estatu mailako gidak sortu dituzte. Ikerketa-prozesu horretan, gida-balioak edo balio estandarrak erabiltzen dira. Estandarrak lurzoruan dauden substantzien kontzentrazio-mailak dira. Kontzentrazio-maila horietatik gora, kasuan-kasuan, beharrezkoa da ikerketan sakontzea edo dagoen poluzioaren arriskuen azterketa zehatza egitea⁸.

Lurzoruaren ikerketari dagokionez, herrialde batzuk, egindako lanaren emaitzen kalitatea bermatzen duten laborategien eta horretan aritzen diren enpresen egiaztatze-sistemak sortzen hasi dira.

Lurzorua poluziotik babesteko politikak ezarri direlako, eta lurzorua garbitzeko edo poluitutako lekuetan gauzatzen ari diren proiektuen eraikuntza-beharretarako lurzoru-kantitate handia hondeatu delako, **hondeatutako lurzoruen kudeaketa eta berriz erabiltzeko aukera arautzen dituen berariazko legedia** ezarri dute herrialde batzuek. Alemaniak, Holandak, Italiak eta Flandesek, besteak beste, gutxi hondatu diren hondeatutako lurzoruak erabilera jakin batzuetarako eta egoera jakin batzuetan berriz erabiltzea onargarria den poluitzaileen kontzentrazio-mugak zehazten dituzten arauak eman dituzte.

Aipatutako tresna teknikoez gain —inbentarioak, erabakiak hartzeko balio-gidak, laborategien eta poluitutako lurzoruen ikerketak egiten dituzten enpresen egiaztatzeak, lurzorua berriz erabiltzeko irizpideak, etab.—, **herrialde batzuek Administrazio Publikoek ekintzak planifikatzeko ditzaten eta lurzoru susmagarriak hobeto ezagutzeko erabilgarri diren baliabideak esleitzeko metodoak garatu dituzte**. Horrela, esku-hartzea beharrezkoa denean, *a priori* arrisku handiena izan beharko luketen lursailetara ahalegin handiena bideratuz sustatzen dituzte ekintzak. Esaterako, Frantziako ekintzak lehenesteko sistema edo Erresuma Batuko ekintza-plana daude.

Bestalde, iragan industrialak duten herrialde askok (besteak beste, Alemania edo Erresuma Batua), **erabiltzen ez diren eta degradazio-maila handia duten (*brownfields* deritzenak) eremuak berreskuratzeko programa** konplexuak

⁶ Poluituta egon daitezkeen edo dauden lekuen inbentarioek, lehen kasuetan, poluzio arrastoak dituzten lekuak, eta bigarren kasuan, giza osasunak edo ingurumenak onartu ezineko arriskuak dituzten lekuak erregistratzen dituzte. Administrazio Publikoak politikak eta ekintzak hobeto definitzeko informazio baliotsua jasotzeaz gain, inbentario horien helburu nagusia lurzoruen transmisioan segurtasuna bermatzea da.

⁷ Kalitate-estandarrak lurzoruan edo lur azpiko uretan dauden substantzia poluitzaileen kontzentrazioak dira. Kontzentrazio horiek erabakiak hartzeko erreferentziatzat hartzen dira. Oro har, kontzentrazio horiek gainditzean, lurzoruaren kalitatearen azterketa areagotzea eskatzen da.

⁸ Holandak, Belgikak, Alemaniak, Italiak, Suediak, Erresuma Batuak eta Espainiak, besteak beste, ebaluazio-estandar propioak dituzte. Normalean, balore horiek lekuko lurzoru-motaren arabera dira, eta erabilera sentikorrenentzat maila handiagoa exijitzen da.

garatu dituzte. Leku horiek lurzoru poluituak dituzte eta hiriguneen kanpoaldean kokatu ohi dira.

2.4 LURZORU POLUITUEN FINANTZIAZIOA

Lurzoru poluituak berreskuratzeak, oro har, **kostu altua**⁹ izan dezake. Kostua hainbat faktoreren arabera da, esaterako, berreskuratze-politikaren helburuen edo poluzioa eragin duen subjektua identifikatzeko egiten den ahaleginaren arabera. Normalean, poluzioa eragin duenak ordaintzen ditu berreskuratze-kostuak, horrela, "poluitzen duenak ordaintzen du" printzipioa gauzatzeko.


Batzuetan ezinezkoa izaten da poluzioaren arduraduna identifikatzea edo, identifikatu arren, ezarritako legedian oinarritua, baliteke arduradun deklaraziorik ez izatea edo kaudimengabea izatea. Kasu horietan, Administrazioak hartu behar ditu gastuok bere gain, eta finantziazio publikoa behar bestekoa ez izatea berreskuratzeke traba bihurtu daiteke.

Arduradun bat ez egoteak deskontaminazioan sor ditzakeen eragin negatiboak mugatzeko, herrialdeetako administrazioek finantziaziorako modu desberdinak aukeratu dituzte. Batzuek **finantziazio publikoaren** alde egin dute, besteek **esku-hartze pribatua** bilatu dute edo **irtenbide mistoak** aukeratu dituzte. Kasu horietan esku-hartze publikoko eta pribatuko finantziazio-tresnak batzen dira. Lurzoru poluituak garbitzeko baliabideak ordaintzeko **administrazioaren eta sektore pribatuak ez du berdin parte hartzen** herrialde¹⁰ guztietan.

Adibide gisa, 2. irudiak European lurzoru poluituak berreskuratzeke gastuak finantzatzeko erabiltzen diren **tresna** batzuk jasotzen ditu.

⁹ Europako Ingurumen Agentziak lurzoru poluituak berreskuratzeke 59 eta 109 bilioi euro bitarte beharko direla kalkulatu du. 2004an, Frantziak 799 milioi euro gastatu zituen, Holandak 259 milioi eta Espainiak 23,83 milioi. Erresuma Batuak 1.289,5 milioi euro inbertitu ziruen kontzeptu horretan, 2003an. (Iturria: EIONET data flow).

¹⁰ 2004an, Austriako Administrazio Publikoak lurzoruak berreskuratzeke kostu totalaren % 58 finantzatu zuen eta Holandakoak % 44. Urte berean, Frantziako kutxa publikoak % 7 finantzatu zuen eta Finlandiakoak % 5. (Iturria: EIONET data flow).



2. irudia: Europako herrialdeetan erabiltzen diren finantziario-tresna motak.

Martxan jarritako ekimen guztien artean badaude arrakasta izan dutenak. Ekimen horiek esku-hartze publikoak eta pribatuak bateratu ohi dituzte, esaterako, fundazioak sortzea edo konbenioak hitzartzea. 3. eta 4. irudietan, Holandan, Alemanian, Danimarkan eta Flandesen gauzatu diren **esperientzia** batzuk deskribatzen dira.

Funts publiko-pribatuen Europako esperientzia

Holanda

Holandako Rabobank bankuak, Ingurumen Ministerioaren laguntzaz, ekimen aitzindari bat jarri zuen abian: Holandako lurzoru poluituak berreskuratzeaz arduratuko zen fundazioa sortu zuen.

Rabobank-en bezero asko enpresak zirenez, lurzoru poluituak berreskuratzea erabakitzeo enpresak mobilizatuz esku hartuko zuen fundazioa sortzea erabaki zuen. Ingurumen Ministerioak 2 milioi euroekin kolaboratu zuen, eta, gaur egun, kolaboratzen jarraitzen du. Fundazioak zerbitzu hauek eskaintzen ditu:

- Finantziario berdeetarako eskemak
- Cost-gap aseguruak
- Gobernuarekin hitzarmena. Hitzarmen hori tarteko, garbiketa amaitu ostean, enpresa etorkizuneko edozein arduratik salbuetsita geratzen da.
- Hirigintza-garapenerako eskaintza
- Diru-laguntzak kudeatzeko laguntza
- US (Uniform Sanitation) eskemako lekuko gobernuarekin negoziatzea. Berreskuratze estandarretarako prozesuak diseinatzen dituzte, berreskuratze-proiektuen burokrazia dezente errazteko.

Fundazioaren partaidetza % 50 publikoa eta % 50 pribatua zen, eta, gaur egun, % 70 da publikoa.

Alemania

Bavariako Länder-en Gesellschaft zur Altlastensanierung en Bayern mbH (GAB edo Poluitutako Lekuak Berreskuratze Konpainia) ari da funtzionatzen.

GAB % 50 da Bavariako Länder-ena eta % 50 industria-sektorearena da. Urteko aurrekontua 3 milioi eurokoa da.

GABek egiten dituen erremediatze-ekintzen % 75 finantzatzen du fundazioak berak eta % 25 udalek.

Proiektuak ez dira enpresa pribatuen mesedetan gauzatu behar. Garbitu beharreko lekua publikoa edo salbuetsita dagoen jabearena izan behar da.

Interes publikoko proiektuak izan behar dira, esaterako, etxeak edo bulegoak eraikitzea edo antzeko beste proiektu bat.

Fundazio horretan 100-150 enpresak hartzen dute parte, besteak beste, Audi, BMW eta Bavariako enpresa handi eta enpresa kimiko batzuek.

3. irudia: Funts publiko-pribatuen Europako esperientzia.

Europako esperientzia: Hitzarmenak eta aliantza publiko-pribatuak

Holanda

SUBAT konbenioa behin betirako itxiko ziren gasolindegiekin egindako hitzarmena zen. 1991 eta 2002 artean egon zen indarrean.

Administrazioaren zeregina ekintzen lehentasunak eta erremediatzeko estandarrak definitzea zen. Sortutako funts pribatuaren baliabideen % 50 enpresa partaideek ordaindu zituzten eta beste % 50 gasolinaren prezioa pixka bat igota lortu zen.

1991n, gobernuak eta industriak hitzarmena sinatu zuten (BSB konbenioa). Hitzarmen horretan garbiketa-lana 25 urteko epean burutzera konprometitu zen industria.

Hitzarmenak, gutxi gorabehera, ikertu, lehenetsi, eta, kasuan kasu, garbitu behar ziren 120.000 industriaguneri eragiten zien. Hitzarmena sinatuz, konpainiak parte hartzera konprometitzen ziren eta gobernuak hitzarmena ez sinatzea erabaki zuten organizazioei buruzko informazioa jasotzen zuen. Azken horiek, noiznahi, gunea ikertzera derrigortuak izateko arriskua hartzen zuten.

Belgika

BOFAS, gobernu zentralaren eta eskualdeetako gobernuen arteko hitzarmenetik abiatzen den finantziario-eskema da. Helburua da gasolindegia berreskuratzeo enpresei laguntzea.

BOFASeren bidez, berreskuratze-ekintzetan aholkuak, zaintza, jarraipena eta laguntza finantzario eta operatiboa eskaintzen dira.

Danimarka

1993an, petroliotik eratorritako erregaiak saltzen dituzten zazpi enpresek bat egin eta gasolindegia zaharretako poluzioa eta deskontaminazioa tratatzeko organismo bat sortu zuten (Petrolio Industriaren Ingurune Fondoa). Ekimen hori Danimarkako Ingurumena Babesteko Agentziak bultzatu zuen eta petrolio-enpresekin borondatezko hitzarmena sinatu zuen. Gaur egun, urtean 1.000 leku ingurutan eragiten dute, ikerketa- zein konpontze-ekintzen bidez.

Frantzia

Gaz de France enpresak gasa banatzen du eta Frantziako Ingurumen Ministerioarekin protokoloa sinatu zuen. Protokoloak 450 gas-fabrika zaharren ebaluazioa egiteko epeak agintzen du.

4. irudia: Hitzarmenak eta aliantza publiko-pribatuen Europako esperientzia

2.5 LABURPENA ETA ONDORIOAK

Lurzoru poluituen prebentzioan eta berreskuratzean ematen diren aurrerapausoak desberdinak dira Europako lurraldearen arabera. Herrialde bakoitzak, berezko egoerari edo administrazio- edo konpetentzia-egiturari erantzuteko gisan, gaia modu batean edo bestean tratatu du.

Aurreko ataletan aipatutakoaren arabera, ez da harritzekoa Europako herrialde gehienek lurzorua poluziotik babesteko zenbait aspektutan enfasi berezia jarri izana, esaterako:

- Lurzoruaren poluzioari lotutako **arriskua gutxitzeko** modua. Hori oso lotua dago ezagutzaren, lan-metodologiaren eta teknologiaren garapenarekin.
- Lurzoru poluituekin degradatutako eremuak lurraldearen antolaketan eta hirigintzako planteamenduetan integrazteko modua
- Hiriguneetan edo kanpoaldeetan abandonaturik utzitako lurzoru poluituen **ondorio sozial eta ekonomikoak**
- Lurzoru poluituen berreskuratze-ekintzen **finantziarioak**.

Lurzorua poluziotik babesteko politiken arrakastaren gakoetako bat **eragile guztien parte-hartzea eta koordinazioa** lortzea da, batez ere, hirigintza birmoldatzeko ekintzetan. Zentzu horretan, Administrazio Publikoekin kolaboratuz, eragile pribatuak motibatze eta mobilizatzeko baldintza egokiak sortu behar dira, lurzorua gutxiago polui dadin eta abandonatuta utzitako leku poluituak berriz erabili daitezkeen. Eragileok administrazio lokalak edo ingurumen-ardurak dituztenak, jabeak, eraikitzaileak, promotoreak eta ikerketetan edo lurzoruak garbitzen espezializatutako enpresak dira.

Azkenik, poluzioaren konponketan aurrera egiteko, onuragarria izan daiteke **esperientziak, datuak eta emaitzak partekatzeko** herrialdeek garatu dezaketen gaitasuna. Ildo horretan, lurzorua babesteko Europako hurrengo estrategiak zenbait herrialdeetako egoerak alderatzeko esparru bateratua ezar dezake. Horrela, irizpideak bateratzeko, konponbideak trukatu eta, azken finean, aurrera era koordinatuan egiteko aukera bilakatuko da.

3 LURZORUA POLUZIOTIK BABESTEKO EUSKAL POLITIKAREN AURRERAPAUOAK

3.1 JATORRIA: LURZORUA BABESTEKO PLAN ZUZENTZAILEAREN PROPOSAMENA

Euskal Autonomia Erkidegoan atzemandako lurzoru poluituen lehen kasuek erakutsi zuten, ingurumena babesteko esparru horretan, **beharrezkoa zela berariatzko neurriak hartzea**. Lehen hurbiltze estrategiko gisa, 1994ko *Euskal Autonomia Erkidegoko lurzoria babesteko plan zuzentzailearen proposamena* egin zen. Orduetik, plan hori lurzoria poluziotik babesteko politika ezartzeko funtsezko ildo gisa erabili izan da.

Lehen Plan horrek lurzoriaren kalitatea bermatu nahi zuen, helburu bikoitzarekin: (1) **giza osasuna eta ekosistemak zaintzea** eta (2) **poluzioa beste ingurune batzuetara hedatzea saihestea**.

Horretarako, Planak lehenetsi beharreko **hiru ekintza-lerro** diseinatu zituen. *Lurzoriaren aldaketa berriak saihesteko prebentzioa*, *kasurik presazkoenak berreskuratzea* eta *iragan denboretatik lurzoru poluitu gisa oinordetzan hartutako pasiboa epe ertain-luzera planifikatzea*. Hiru ildo horiek **hiru ekintzetan** gauzatu ziren:

- **Politika sistemakoa** aplikatzea gaiaren egoera ezagutzeko etengabeko hurbiltzean, horrela, konponbideak eman eta berreskuratze-prozesuek eskaintzen dituzten aukerak baliatzeko.
- Oinarrizko **ikerketa- eta azpiegitura**-plana garatzea, problematikotzat eta lehentasunezkoztat jo diren lekuentzat.
- Plana kudeatzeko **bitarteko eta tresna** juridikoak, ekonomikoak eta administratiboak **proposatzea**.

3.2 LURZORU POLUITUEN POLITIKAREN AURRERAPAUOAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN

Nahiz *lurzoria babesteko plan zuzentzailearen proposamenean* aurreikusitako ekintza guztiak ez gauzatu (gehienetan zehaztasunez aztertu ondoren ez zirelako bideragarriak), Plan zuzentzaileak, azken urteetan, Euskal Autonomia Erkidegoko lurzoru poluituen politika zuzentzeko balio izan du, eta baita gai horretan **oso aurrerapauso adierazgarriak** emateko ere.

Atal honetan, **lorpen nabarmenenak** aurkezten dira, planak proposatzen dituen programak, ekintza-lerroak eta ekintza zehatzak hobeto ulertzeko eskema logiko bati jarraituz. Zentzu horretan, aurkezten duen strategiaren kohesio- eta ulertze-maila handiagoa lortze aldera, gaur egungo planak ez dio aurreko plan zuzentzailearen eskemari jarraitu.

A) Lurzoriaren kalitateari buruzko informazioaren kudeaketa

Lurzoria babesteko plan zuzentzailearen proposamenean, poluituta egon daitezkeela kontsideratutako **lurzoru guztiei buruzko datuak eskura edukitzeari** eman zitzaion **lehentasuna**, ez soilik arazoaren garrantziaz

jabetzeko, baita prebentzioaren eta berreskuratzearen egunerokotasuna kudeatzeko, lurzorua babesteko politikak eduki behar zituen tresnen irismena neurtzeko ere. Azken urteetako esperientziak erakutsi du egokia izan zela zeregin horri lehentasuna ematea. Horregatik, arlo horretan eman diren **aurrerapausoak oso garrantzitsuak** izan dira; besteak beste, hauek dira nabarmentzekoak:

- Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrri guztietan **lurzorua polui dezaketen jarduerak dauden lekuen inbentarioa** amaitzea **eta datuak eguneratzea**. Lehen ez bezala, orain kontuan hartzen da zabortegien eta industria-jardueretara zuzendutako lekuen arteko desberdintasuna. Lehen esan den bezala, Inbentario hori plan hau egiteko informazio-iturri izan da.
- **Lurzoruaren kalitatearen informazio-sistema (GEOIKER)** garatzea, leku bakoitzari buruzko informazio grafikoa eta alfanumerikoa gordetzeko eta kudeatzeko. *Lurzoruaren kalitatearen erregistro administratiboaren* aurrekaria da.
- *Lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legeari eta lurzorua polui dezaketen jardueren eta lurzoru poluituak deklaratzeko irizpideen eta estandarren arteko erlazioa arautzen duen urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretuari dagozkien* **ekintzak eta dokumentuak kudeatzeko sistema garatzea**.
- Gaur egun eskura dauden datuak eta aurrerantzean sortuko diren **datuak** eta euskarriak **aztertzea**. Sortuko diren datu berriak beharrezkoak izango dira gaiaren inguruko gaur eguneko beharrei erantzun osoa emango dien sistema berria garatzeko.
- Atmosferatik jalkitako **poluzio lausoa** duten gune zabalen hondoko mailak zehazteko proiektuak garatzea.
- *Lurzorua polui dezaketen jarduerak dituzten lekuen inbentarioa* arautu eta bere erabilera erregulatuko duen **dekretu-zirriborroa** tramitatzen hastea.
- **Sektore** jakin batzuen presentziak (egurraren tratamendu kimikoak, altzairu-fabriken zabortegiak, industria-hondakinen zabortegiak, etab.) duen eragina ezagutzeko, lurzoruaren kalitatearen karakterizazio-ikerketak egitea.

B) Ezagutza sortzea

Lurzorua babesteko politika garatzeak arlo askotako (tekniko-zientifikoa, hirigintzakoa, legala, etab.) **ezagutzak edukitzea** eskatzen du. Zentzu horretan, eta, batez ere, ikuspegi tekniko-zientifikoa zentratuta, hauek izan dira **garapen nabarmenenak**:

- Lurzoru poluituak berreskuratzeke eta ikertzeko **gida metodologikoak eta teknikoak** sortzea.

Gida metodologikoak	
➔	<i>Ikerketa historikoa eta laginketaren diseinua</i>
➔	<i>Laginak hartzea</i>

<ul style="list-style-type: none"> ➤ <i>Azterketa kimikoa</i> ➤ <i>Ebaluaziorako balio-adierazleak</i> ➤ <i>Giza osasunean eta ekosistemetan dituen arriskuen analisia (ARRISKUGEST, bere aplikaziorako programa informatikoak lagunduta)</i> ➤ <i>Poluitzaileen lurreko eta lur azpiko uretako arriskuak, migrazioak eta jarraipena aztertzea</i> ➤ <i>Lurzoru poluituak ikertzeko eskuliburu praktikoa</i>
Gida teknikoak
<ul style="list-style-type: none"> ➤ <i>Industria-hondakinak berreskuratzeko ingurune-irizpideak</i> ➤ <i>Abandonatuta utzitako zabortegietarako ekintza-planak.</i> ➤ <i>Lurzoru poluituak ikertu eta berreskuratzeko segurtasuna.</i> ➤ <i>Lur azpiko biltegiatze-deposituek eragindako poluzioaren ebaluazioa eta kudeaketa</i> ➤ <i>Lur azpiko uretako poluzioaren garraiorako eta fluxurako eredu informatikoak aplikatzea</i> ➤ <i>Harrobiak hondeatutako material naturalekin betetzea.</i>

- **Proiektu berritzaileen** lerroa garatzea, zenbait arlotan tresna berriak aplikatzeko aukerak ebaluatzeko (arintze naturala lurzoru poluituen saneamenduari aplikatzeko aukera, lurzoruan dauden poluitzaileen bioerabilgarritasuna baloratzeko saiakeren aplikazio-egoera, ingurune-kontabilitatea jarduneko industriako lurzoruan ekiteko finantziario-tresna gisa erabiltzea, arriskuaren komunikazioa, etab.)
- *Zientzia- eta teknologia-planean*, lurzoru poluziotik babestera zuzendutako lehenetako ikerketa-lerroak txertatzea. Plan horretan landutako proiektuak askotarikoak dira; esaterako, saneamendurako teknologia desberdinen (hesiak, desortzio termikoa edo fitoerremediazioa) esperientzia pilotuak edo ikerketarako metodologia aurreratuak garatzea. Proiektuok, entitate indibidualek edo kide gutxiko taldeek egindako proposamenetatik abiatuta, BERRILUR deritzon proiektuan zenbait gai eta esperientziatiko adituz osatutako taldea sortzea ekarri dute.

C) Lurzoruaren babesean inplikaturik dauden eragileen (publikoak eta pribatuak) prestakuntza eta informazioa

Ezaugarri kimikoetan aldaketaren bat jasan ahal izan duten lurzoruen kudeaketan, era batera edo bestera, inplikaturik dauden eragile guztiek, euren funtzioa ahalik eta era arduratsuenan betetzeko, **behar beste informazio eta formazio** eduki behar dute. Administrazioari, lurzoruen jabeen, polui dezaketen jardueren titularrei eta herritar orori lagundu egin behar zaie azken beltzean jokatuko duen paper garrantzitsuan. Arlo horretan, azken urteetan, **jarduera bat baino gehiago eraman da aurrera:**

- **Administrazio lokalentzako lan-tailerrak** antolatu dira. Tailerrok, udalak arduradun diren prozeduretan, lurzoru poluziotik babesteko eginbeharrak nola txertatu erakusten dute. Gai horretan, udalak nola jokatu behar luketen azaltzen duen eskuliburu praktikoa egin zen.

- **Industriara zuzendutako tailerrak** antolatu dira. Tailerrotan, nagusiki, 1/2005 Legeak lurzorua polui dezaketen jardueren jabeei jartzen dizkien betebeharrak zerrendatzen dira.
- **Aholkulariak trebatzeko** antolatutako **seminarioak**. Euskal Autonomia Erkidegoan berariaz garatutako tresna teknikoei buruzkoak.
- Lurzoruaren poluzioarekin, oro har, eta, arriskuarekin, bereziki, zerikusia duten aspektuak **komunikatzeko**, lehen kontzeptua lantzeko **proiektu berritzailea** garatzea.

D) Lege-esparrua lantzea, garatzea eta ezartzea.

Azken urteetan, ahalegin handia egin da, lehenik eta behin, Autonomia Erkidegoko ingurumen-organoari poluituta egon daitezkeen lurzoruetan eragiteko ahalmena ematen eta, bigarrenik, bere jarduera errazteko **beharrezko tresnak diseinatzen**. Asko dira zentzu horretan eman diren aurrerapausoak:

- Lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legea onartzea
- Urriaren 10eko **199/2006 Dekretua** onartzea. Dekretuak *Lurzoruaren kalitatea ikertzeko eta berreskuratzeko entitateak akreditatzeko sistema ezartzen du, eta entitate horiek egin beharreko lurzoruaren kalitatearen ikerketen edukiak eta garrantzia zehazten ditu*. Akreditazio-sistema horren bidez, Administrazioak akreditatutako entitate horiei atribuzioak partzialki ematen dizkie prozedurak sinplifikatzeko eta bizkortzeko.
- Lurzoruaren kalitatearen deklarazio-prozeduraren aplikazioaren kudeaketa eta Ingurumen Sailburuordetzako teknikarien eta organo horri atxikitako zerbitzu teknikoaren arteko koordinazioa errazteko **berariazko aplikazio informatikoa** garatzea.
- **Jabetza Erregistratzaileen Elkargoarekin lankidetzaren hitzarmena** izenpetzea, 1/2006 Legeak erregistro-publizitateari buruz ezartzen dituen obligazioak betetzea sustatzeko.
- **Notarioekin koordinazio-protokoloa** lantzeko proiektu pilotua abian jartzea, poluituta egon daitezkeen lurzoruaren eskubide-transferentziaren informazio-gardentasuna bermatzeko.

E) Beste politika batzuetan eta beste administrazioekiko koordinazioan "lurzoruaren kalitatea" irizpidea sartzea

Europarako politika bateraturako proposamenarentzat, **lurzoruaren babesa beste politiketan sartzea** arrakastarako giltzarrietako bat da. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoan, duela urte batzuetatik jotzen da hori dela problematikaren konponbide osoan aurrera egiteko era bakarra. Zeregin horretako lorpen nabarmenak hauek izan dira:

- Lurzorua poluziotik babesteko irizpideak, **lurzoruaren eta hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legean sartzea** eta, baita planak egiteko tresnetan ere.
- Lurzoruaren kalitateari buruzko informazioa **ingurumen-inpaktuaren ebaluazio-prozeduretan sartzea** (bakarkakoa eta orokorra).

- **Administrazioei eta lurzorua kudeatzen duten entitate publikoei** poluitutako lekuak ikertzeko eta berreskuratzeko laguntza teknikoa eta ekonomikoa emateko **lankidetzaren hitzarmenak** izenpetzea.
- **Tokiko agintarien** pertzepzioa baloratu eta eskakizunak identifikatzeko **prospektiba-proiektua** garatzea.
- 1/2005 Legeak polui dezaketen jardueren titularrei ezartzen dizkien **betebeharrak ingurune-baimen bateratuarekin koordinatzea.**
- 1/2005 Legea indarrean sartu aurretik eraikitako **industrialdeetan** lurzoruaren kalitatea hondatua dagoen ikertzeko laguntza-ildoak abian jartzea
- **Eraikuntza iraunkorraren arauetan eta** hondakinak lurzoruarekin kontaktu zuzenean jartzen dituzten aplikazioetan **hondakinak berriz erabiltzean** (eraikitze eta eraiste eta altzairu-fabriketako zabor beltza, etab.) lurzorua babesteko irizpideak sartzea.

Ondoko taulak, esku-hartze eskemaren eta Eusko Jaurlaritzaren programazio-politikaren bidez, lurzoruaren poluzioaren inguruan sailek duten sentsibilizazioa erakusten du, eta, gutxi-asko, lurzoruaren kudeaketari atxikitako Jaurlaritzaren planak eta estrategiak identifikatzen ditu.

Lurzoruaren kudeaketarekin zerikusia duten Jaurlaritzako sailak	Lurzoruaren planarekin lotura duten Jaurlaritzako planak/estategiak
Ingurumen eta Lurralde Antolamendu saila	Ingurumenarentzat iraunkorra den kontsumorako plana
	Garapen iraunkorrerako euskal ingurumen-estrategia
	Ingurumeneko esparru-programa
	Lurralde-plan partzialak
	Jarduera ekonomikoetarako eta industria-ekipamenduetarako lurzorua publikoki sortzeko Lurralde Plan Sektoriala
	Ingurune-formaziorako plana
Industria, Merkataritza eta Turismo Saila	Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako plana
	Euskadiko 3E-2010 Energia-estrategia
Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Saila	Etxebizitzarako plan zuzentzailea
Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Saila	Landa-garapen iraunkorrerako plana

F) Lurzoruaren poluzioaren prebentzioa

1/2005 Legea onartu zenetik, lurzoruaren poluzioa prebenitzeko hurbiltze-sistematikorako tresnak daude. Ordura arte, prebentzioa beste prozedura administratibo batzuek antolatzen zuten:

- Lurzoruaren poluzioaren aurkako **prebentzio- eta babes-neurrien gida metodologikoa** eratzea.
- **Jarduera-lizentzia, ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa edo ingurune-baimen bateratua** bezalako prozeduren bitartez, lurzoruaren poluzioaren **prebentzio-neurriak** sartzea.

- **Egoeraren aurretxostenak eratzeko prozedura operatiboa** egitea. 1/2005 *Legeak* eta 9/2005 *Errege Dekretuak* antolatu duten prebentzio-tresna nagusia.

G) Azpiegiturak eraikitzea

Lurzoru poluituak berreskuratzeko **tresna egokiak diseinatzeak** soilik eragotz dezake lurzoria babesteko politika gelditzea. Zentzu horretan, azpiegiturak eraikitzeari berebiziko garrantzia eman zaio eta zenbait ekintza jarri dira martxan:

- **Segurtasunerako bi gela eraikitzea**, lindano pestizidaren produkzio-hondakinez poluitutako lurzoruak biltzeko. Lurzoru poluituak ekimen horretan berreskuratu ziren 40 bat lekutatik jasotakoak dira.
- Lurzoru poluituak kudeatzeko zentroaren **bideragarritasun-ikerketak eta aurre-diseinua**.

H) Tresna ekonomikoak diseinatzea eta abian jartzea

- 2000-2002 eta 2003-2006 denboraldietan, *lurzoru poluituak berreskuratzeko Euskal Autonomia Erkidegoko udalentsako diru-laguntza programa* abian jartzea.
- Kalitatean hondatutako lekuetako ekintzak egiteko erabil daitezkeen **finantziario-formulak identifikatzeko** ikerketa egitea.
- Diru-laguntzak emateko indarrean dagoen legediarekin eta Europako arauekin bat, horrelako ekintzak **diruz laguntzeko aukerak identifikatzeko** ikerketa egitea (esaterako, industrialdeetan erabil daitezkeen prozedura sinplifikatuak garatzea eta kasu horietarako diru-laguntza lerro bat bideratzea).

I) Kalitatea hondatua duten lurzoruak berriz erabiltzea eta baloratzea.

Erabilgarria den lurzoru librea urria delako eta lursail horiek hirigintzarako aukerak eskaintzen dituzten guneetan daudelako, **azken urteetan, ohiko bihurtu da** kalitatea hondatua duten lekuak erabilera berrietarako berriz erabiltzea. Hala ere, prozesu hori inolako sistematikarik aplikatu gabe garatu da.

Bestalde, hirigintzako erabilerarik aurreikusten ez den lurzoruetan esku hartzeko sustapena, oro har, administrazioaren ekimena izan da eta izaten jarraituko du. Esparru horretan orain arte **garatutako ekintzak**, nagusiki, bazter utzitako industria-hondakinen zabortegetan egin izan dira.

- Horrelako lekuetarako ikerketa-metodologia eta ekintzen lehentasuna diseinatzeko, proiektu politua garatzea.
- **Hondakinei buruzko informazio erabilgarria eguneratzea** *lurzoria polui dezaketek jarraiek dituzten lekuen inbentarioan*, eta garrantzitsuen jotzen diren jarraipen analitikoak sartzea.

4 LURZORU POLUITUEN PLANAREN LEGE-ESPARRUA

Euskal Autonomia Erkidegoan lurzoru poluituetan egin ziren premiazko lehen eskuhartzeek, ondoren *Lurzorua babesteko plan zuzentzailearen proposamena* (1994) eratzea ekarri zutenek, jada, mahai gainean jarri zuten gaiari buruzko **berariazko legedia onartzeko beharra**.

Behar hori **esparru juridikoaren bilakaeran** gauzatu da. Azken urteetan aurrerapauso handiak ezagutu dira, bai **Euskal Autonomia Erkidegoan** eta baita **Estatuan** ere, hainbat araudi onartu baitira. Hurrengo taulan, gaur egun, lurzoria poluziotik babesteko ekintzak arautzen dituztenak agertzen dira.

<p>➡ Estatuko legedia</p> <ul style="list-style-type: none">• <i>Hondakinen apirilaren 21eko 10/1998 Legea</i>• <i>Urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretua. Errege Dekretuak lurzoria polui dezaketen jardueren zerrenda eta lurzoru poluituak izendatzeko arauak eta irizpideak zehazten ditu.</i> <p>➡ Euskal Autonomia Erkidegoko legedia</p> <ul style="list-style-type: none">• <i>Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege orokorra.</i>• <i>Lurzoria ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legea.</i>• <i>Lurzoriaren kalitatea ikertzeko eta berreskuratzeko entitateak akreditatzeko sistema ezartzen duen eta entitate horiek egin beharreko lurzoriaren kalitatearen ikerketen edukiak eta garrantzia zehazten dituen, urriaren 10eko, 199/2006 Dekretua.</i>
--

Europa mailan oraindik ez dago berariaz lurzoria babestera zuzendutako **legedirik**. Lurzoriari, partzialki, beste ingurumen-eremu batzuk arautzeko onartutako arauak eragiten diote. Gaia ikuspegi orokorretik lantzeko beharra ikusirik, Europako Batzordeak **lurzoria babesteko direktiba-proposamena** argitaratu berri du. Proposamena **Gaikako estrategia** batez eta **Inpaktu-ebaluazio** batez osatua dago.

Gaur egun indarrean dagoen legediaren eta Europako politika bateraturako proposamenaren oinarritzko irizpideek zuzentzen dituzte lurzoru poluituen 2007-2012ko planak proposatzen dituen programak eta ekintzak, eta, aldi berean, arau bakoitzetik sortzen diren garapen-beharrei erantzunak ematen dizkiete.

4.1 ESTATUKO LEGEDIA

- Estatuko legediak lurzoria poluziotik babesteko berariazko araudia bi arautan kondentsatzen du: hondakinen apirilaren 21eko **10/1998 Legea** eta **9/ 2005 Errege Dekretua**. *Errege Dekretuak lurzoria polui dezaketen jardueren zerrenda eta lurzoru poluituak izendatzeko arauak eta irizpideak zehazten ditu.*

Lehen legeak, **10/1998 Legeak**, "Lurzoru poluituak" V. tituluan, lurzoru poluituak kudeatzeko tresna orokorrak jasotzen ditu. Hauek dira legearen eduki azpimarragarrienak: autonomia-erkidegoek **lurzoru poluituak inbentariatze**ko obligazioa dute, **ondoren, ekintzen lehenitasun-zerrenda** egiteko; erregistro-publizitatea bermatu behar da **Jabetza Erregistroko orri-bazterreko oharren** bidez; polui dezaketen ekintzak aurrera eramanez diren lekuetako jabeek, eskualdatze-mementoan, gertaera hori **eskritura publikoan deklaratzeko** obligazioa dute edo lurzoru polui dezaketen jardueren titularrek, autonomia-erkidegoan, **lurzoruaren egoerari buruzko aldizkako txostenak** aurkeztu behar dituzte.

10/1998 Legeak, gainera, garbiketa-ekintzak egiteko eta lurzoru poluituak berreskuratzeko obligazioei dagokienez, **ardura-esleipenaren ordena** ere zehazten du. Lehen erantzuleak poluzioa eragin dutenak dira, eta, asko direnean, obligazio horiei era solidarioan erantzungo diete. Era subsidiarioan eta ordena honetan, lurzoru poluituen edukitzaileek eta jabe ez-edukitzaileek ere erantzun beharko dute.

Hala ere, apirilaren 21eko **10/1998 Legea indarrean jarri ahal izateko, lurzoru polui dezaketen jardueren zerrenda eta lurzoru poluituak izendatzeko arauak eta irizpideak zehazten dituen, urtarrilaren 14ko, 9/2005 Errege Dekretua** onartu behar izan zen. Dekretu horrek lurzoru poluituen inguruko hainbat tresna erregulatu zituen; lehenik, lurzoru polui dezaketen jardueren zerrenda, bigarrenik, lurzoru poluituak izendatzeko irizpideak eta estandarrak (batez ere, erreferentziarako maila generikoak eta arriskuak aztertze eta etapa orokorrak), eta, azkenik, egoeraren aurretikostenaren forma eta gutxienezko edukiak.

Azkenik, Errege Dekretu horrek, hondakinen, apirilaren 21eko 10/1998 Legeak baino eduki gehiago ematen die **erregistro-publizitateari** lotutako alderdiei.

4.2 EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LEGEDIA

Euskal Autonomia Erkidegoan, lurzoru poluziotik babesten duen araudia, batez ere, *lurzoru ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko* otsailaren 4ko **1/2005 Legea** da; hala ere, gaiari buruzko oinarriko kontzeptuak *Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen orokorra babesteko* otsailaren 7ko **3/1998 Legea** jadanik sartuak zeuden.

Lege horrek, estatu espainolean lehen aldiz, aireak edo urak zuten babes-esparruaren antzekoa eman zion lurzoruari. Azkenik, 1/2005 Legea garatzeak eskatzen duen lehen araua da urriaren 10eko **199/2006 Dekretua**, *lurzoruaren kalitatea ikertzeko eta berreskuratzeko entitateak akreditatzeko sistema ezartzen duen eta entitate horiek egin beharreko lurzoruaren kalitatearen ikerketen edukiak eta garrantzia zehazten dituen dekretua*.

Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege orokorra.

Lege horrek **lurzoruaren kalitatea hondatzeari bi kapitulu** eskaintzen dizkio: horietako bat lurzoru baliabide gisa babesteari eta, bestea, lurzoru poluituen erregulazioari. Lehenean ezartzen dira Euskal Autonomia Erkidegoan **lurzoru poluituen legearen** oinarriak, *Lurzoru poluituen 2007-2012 plan* honetan ere erabakigarriak izango diren **printzipioak**.

Lurzorua poluziotik babesteko legediaren printzipioak

- ➡ lurzoruaren funtzio naturalak kontserbatzea,
- ➡ ahalik eta funtzio gehien mantentzea,
- ➡ lurzorua emango zaion erabileraren arabera berreskuratzea,
- ➡ lurzoruaren berreskuratze-ekintza egokiaren kostuak beren gain hartuko dituzten erabilerak izendatzea,
- ➡ lurzoru poluitu baten erabilera esleitzean, hirigintza-kudeaketaren arloak barne hartzen duen lurzoru guztiarentzat ingurumen-konponbidea exijitzea,
- ➡ ezaugarri kimikoak, biologikoak eta fisikoak kontuan hartuta egituratuko den lurzoruaren babes juridikoa. Ezaugarriok ondasunaren elementu definitzaileak eta jabetza-eskubidearen ohiko edukien parte dira,
- ➡ Euskal Autonomia Erkidegoko lurzoruen kalitatearen hondatze-mailaren ezagutza eta kontrola lehenestea.

Azpitarratzekoa da, halaber, **agintaritza lokalei esleitzen dien papera**; udalei dagokie aurretik aipatu ditugun printzipioak hirigintza-jardueraren hiru dimentsioetan barneratzea: **plangintzan, kudeaketan** eta **hirigintza-diziplinan**. Ondorioz, herritarrengandik hurbilen dauden administrazioak direlako, udalei esleitzen zaie **lurzoruaren kalitatea deklaratzeko prozedurak abiatzeko mekanismoak martxan jartzeko gaitasuna**. Mekanismo horiek zehatzago garatzen dira *Euskal Autonomia Erkidegoko lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legean*.

Lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legea

Gaur egun, lurzorua poluziotik babesteko arloan Euskal Autonomia Erkidegoko erreferentea lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legea da. Legeak **bi helburu** ditu:

Alde batetik, gizakiaren ekintzetatik eratorritako lurzoruaren poluzioa **prebenitzea**, eta, bestetik, **ingurumena eta giza osasuna zaintzeko lurzoru poluituei aplikatzeko moduko erregimena ezartzea**.

Lurzoruaren kalitatea babesteko egiteko oinarritzkoena (prebentzioa), batez ere, lurzorua polui dezaketen jardueren jabeei zuzendutako betebeharren bidez gauzatzen da. Beraien betebeharrak nagusia, aldizka, Autonomia Erkidegoko ingurumen-organoari lurzoru horien **egoerari buruzko txostenak** aurkeztea da. Horrela, batez ere, substantzia poluitzaileak lurzorian sartzea saihesten duten edo beren eragina gutxitzen duten prebentzio-neurriak hartzen direla bermatzen da. Egoerari buruzko txostenek poluzio-aztarna adierazgarriak ematen dituztenean, legeak ingurumen-organoari lurzoruaren kalitateari buruzko ikerketak egin daitezen edo kontrol-neurriak hartzeko exijitzeko eta jarraipena egiteko ahalmena ematen dio.

Bere aldetik, substantzia poluitzaileen presentziaren eraginez kalitatea **hondatua duten lurzoruak berreskuratze**ko, *1/2005 Legearen* ekarpen nagusia **lurzoruaren kalitatearen deklarazio-prozedura** artikulatzea izan da. Lurzoruaren kalitatearen deklarazio-prozedura hasiko duten kasuak mugatzea aukeratu da. Horrela, Euskal Autonomia Erkidegoko lurzoru-erakundearen esku-hartzea denboran era mailakatuan egingo da eta lurzoruaren garapenean interesa duen alderdi batek kostuak bere gain hartzeko zirkunstantziarik egokienak ematen diren uneetan egingo da. Noski, ez dira ahaztu behar poluzio-aztarna adierazgarriak

dituzten lurzoruak. Kasu horietan, prozedura aurrez aipatutako zirkunstantziak eman ez arren abiatuko da.

Euskal Autonomia Erkidegoko lurzoria ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legearekin bat, lurzoriaren kalitatearen deklarazio-prozedura abiatzeko zirkunstantziak:

✦ Polui dezakeen jarduera edo instalazioa jasaten duen edo jasan izan duen lurzorian **jarduera abiatzea edo zabaltzea.**

✦ Lurzoria polui dezakeen jarduera edo instalazioa jasan ahal izan duen eta, gaur egun, erabiltzen ez den lekuan, **lurzoria mugitzeko exekuzio-proiektuak.**

✦ Lurzoria polui dezakeen **jarduera** edo instalazioa **behin betiko amaitzea**

✦ Lurzoria polui dezakeen jarduera edo instalazioa jasaten duen edo jasan izan duen lurzoriaren **kalifikazioa aldatzea**

✦ Lurzoria polui dezakeen jarduera garatzeko, **lurzoriaren jabe edo edukizaille diren pertsona fisikoen edo juridikoen ekimenez**

✦ Kasu guztietan, eta aldez aurretik ingurumen-organoaren erabakiz, lurzoriaren substantzia poluitzaileen **azterna adierazgarriak agertzen direnean,**

"Poluitzen duenak ordaintzen du" printzipioa aplikatuta, **berreskuratze-neurriak hartzeko obligazioa**, lehenik eta behin, poluzioaren arduradunarena da. Hala ere, jabeak ez diren pertsona edukizailleek eta lurzoriaren jabeek ere era subsidiarioan beren gain hartu beharko dituzte obligazio horiek.

Lurzori poluituen 2007-2012 plan horrek legeak Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-organoari inposatzen dion betebeharrak bati erantzuten dio: gaiaren inguruko ekintzen oinarri diren printzipioak gauzatzen lagunduko duten **lurzorien politikarako tresnak** eratzea:

- Lurzoria polui dezaketen jarduerak edo instalazioak dituzten lurzorien **inbentarioa.**
- Lurzori poluituen **plana**
- Lurzoriaren kalitatearen **administrazio-erregistroa.** Erregistroak informazioa heltzeko eskubidea erabiltzea ahalbidetuko du.
- Arauan aurreikusten diren betebeharrak betetzea sustatzeko, **finantziario-publikorako mekanismoak.**

Aurrez aipatutako tresna guztiak diseinatzeko eta Euskal Autonomia Erkidegoko errealitatera egokituta abian jartzeko beharrezko ekintzak barne biltzen ditu planak.

Lurzoriaren kalitatea ikertzeko eta berreskuratze entitateak akreditatzeko sistema ezartzen duen eta entitate horiek egin beharreko lurzoriaren kalitatearen ikerketen edukiak eta irismena zehazten dituen, urriaren 10eko, 199/2006 Dekretua

Euskal Autonomia Erkidegoko lurzoria ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legearekin bat, nahitaezkoa da Euskal Autonomia Erkideko ingurumen-organoak entitate espezializatuak akreditatzea, haien ikerketa-, diseinu- eta neurrien exekuzio-lanak lurzoriaren kalitatearen deklarazio-prozeduran onar

ditzan. Era berean, legeak Autonomia Erkidegoko ingurumen-organismoari ematen dio lurzoruaren kalitatea ikertzeko mailakako sistema arautua ezartzeko eskuduntza.

Urriaren 10eko 199/2006 Dekretuarekin, **bi helburu** lortu nahi dira: lehenik, arlo horretan egiten diren lanen kalitate orokorra estandarizatzea eta hobetzea, eta, bigarrenik, poluituta egon daitezkeen lurzoruen edukitzailen eta jabeen eskura jartzea arlo horretan nahikoa baliabide tekniko eta giza baliabide eta egiaztatutako esperientzia dutela frogatu duten entitate akreditatuen erregistroa. Dekretu horretan ikerketa-prozeduraren gutxieneko edukiak eta irismena sartuta, azken urteetan hainbeste erabili diren "*Lurzoruaren Kalitatearen Ikerketarako Gida Teknikoetan eta Metodologikoetan*" garatutako metodologia berresten da.

Agintaritzak publikoek entitate publikoei esleipenak mailaka emateko aukera ematen du akreditazio-sistema horrek. Prozedurak bizkorrago egitea da helburua.

4.3 EUROPAKO LEGEDI BATERATURAKO PROPOSAMENA

Oraintsu arte, lurzoria babestea ez da Europako Batasuneko lehentasuna izan. Hasieran, ardura hori batez ere ingurumen- eta landa-arloetako hainbat sektoreren politiketan islatu zen. Horren guztiaren emaitza baliabide hori babesteko sortutako hornidura-arauak sakabanatzea izan da. Egoera horrek, dudarik gabe lurzoria degradazioa gelditzen lagundu duen arren, ez du ordezkatu helburu horrekin diseinatutako berariazko politika orokorraren garapena.

Lurzoria jasaten dituen presioen intentsitateek gora egin dute eta presio horien eragina ez du soilik lurzoria jasaten, baizik baita gainazaleko eta lur azpiko urek, giza osasunak, aldaketa klimatikoak, biodibertsitateak eta elikagai-segurtasunak ere. Presio horien eragina dela eta, Europako Batzordeak **politika bateratua diseinatzeko** hautua egin du. Hautu horren **emaitza berriki argitaratu den Lurzoria babesteko gaikako estrategia**¹¹ eta estrategia hori aplikatzeak suposatuko lukeen inpaktu-ebaluazioa izan dira. Bi dokumentu horietako printzipioetan eta datuetan oinarrituta, **Lurzoria babesteko esparru Direktibarako proposamena** eratu da.

Lurzoria babesteko gaikako estrategia

Helburu orokor bezala, arlo horretako Europako politika bateratuak **lurzoria babestea eta erabilera iraunkorra** lortu nahi du. Horretarako, eta *Lurzoria poluituen 2007-2012 planaren* lerro estrategikoekin bat eginez, **printzipio** hauetan oinarritzen da:

- **Lurzoruaren degradazioa prebenitzea eta bere funtzioak gordetzea:**
 - Lurzoruaren funtzioen erabilerrari eta esplotazioari dagokionez, baliabidea egoki kudeatzeko ekimenak eskatuko dira
 - Lurzoria gizakiaren ekintzen ondorioen hartzaile gisa jokatzen duenean, ahalegina degradazio-iturrietara zuzenduko da.
- **Degradatutako lurzoria gaur egungo erabilerek edo aurreikusitakoek onartzen duten mailara arte berreskuratzea**, betiere berreskuratzeari loturiko kostuak kontuan hartuta.

¹¹ COM(2006)231 azkena

Lurzorua babesteko eta erabilera iraunkorrerako Europako politika bateratuaren zutabeak

- Batez ere, lurzorua babestu eta erabilera iraunkorra lortzeko esparru-**legedia**. Esparru-legediak lurzoruak jasaten dituen mehatxuak hartzen ditu kontuan (poluzioa, zigilatzea, erosioa, materia organikoaren edukiak gutxitzea, gazitzea, trinkotzea eta lurrak higatzea)
- **Lurzoruaren babesa gainerako politika nazionalen eta erkidegokoen diseinu eta aplikazioetan sartzea.**
- *Europako Batasunak eta parte diren estatuak finantzatutako ikerketa-programen bidez, ezagutza espezializatua garatzea.*
- *Lurzorua babesteko **sentsibilitate publikoa indartzea.***

Printzipio eta erronka horiek, ekintza konkretuen bidez, aplikatzeak eragingo lituzkeen **inpaktuak baloratzea** bi ikerketa independenteren gaia izan da. Ikerketok, inolako neurririk hartu gabeko egoera batekin alderatuta, estrategia horren ondorio ekonomikoak zenbatekoak lirartekeen ebaluatu dute. Ikerketa horien arabera, ingurune horri eragiten dien mehatxu guztiak kontuan hartuta, lurzoruaren degradazioak, urtean, 63 bilioi euro inguruko kostua izan lezake.

Lurzorua babesteko esparru-direktibarako proposamena


Europar, aho batez onartzen da, **lurzoruarentzat gainerako inguruneentzat besteko babesa bermatzeko** beharra dagoela. Izan ere, bere funtzioak kontserbatzea erabakigarria da ekosistemek bizirauteko, eta, ondorioz, gizakiarentzako. Hala ere, oso onartua dago Europako lurzoruak askotarikoak direnez gero, **berezitasun lokalak banaka kontuan hartzea ahalbidetuko duen sistema malgua** behar dela ere.

Arrazoi horregatik, *lurzorua babesteko esparru-direktibak*, memento hauetan arlo horretako Europako politika bateraturako elementu nagusi denak, **herrialde kide guztietan ekintzak sustatzea** du helburu, baina, betiere, **horien esku utziz**, estrategia orokorreko helburuak erdiesteko **neurri zehatzak diseinatzea eta onartzea**.

Filosofia horrekin, *Lurzorua babesteko esparru-direktibarako proposamena* idatzi da, eta **atal** hauek ditu:

- Lurzoruaren funtzioak babestea, ingurune horren degradazioa prebenitzea, horren ondorioak gutxitzea, poluitutako lurzoruak berreskuratzea eta beste sektore batzuetako politiketan txertatzea oinarri duen **filosofia bateratua**
- Lurzoruaren degradazio-prozesuetan zenbait sektoretako politikek duten **inpaktua identifikatzeko, deskribatzeko eta ebaluatzeko beharrak**.
- Lurzoruaren **erabiltzaileek prebentzio-neurriak** hartzeko obligazioa, bere erabilerak funtzioak nabarmen hondatzea suposa dezakeenean.
- **Lurzoruaren artifizializazioaren aurkako estrategia**, ingurune horren erabilera neurtua bermatzeko eta, horrela, ahalik eta funtzio gehien edukitzen segitzeko.
- Irizpide bateratuak erabiliz, higatzeko, material organikoaren edukiak gutxitzeko, gazitzeko, trinkotzeko eta lurra erausteko arriskua duten eremuak **identifikatzeko** eta mehatxu horien aurka **programa nazionalak ezartzeko obligazioa**.

- Lurzoruan **substantzia poluitzaileak sartzea mugatzeko** neurriak.



5. irudia: Lurzorua babesteko esparru-direktibaren proposamenaren edukiaren laburpena

Zehazki, estatu kide horiek dituzten betebeharrei dagokienean, direktiba-proposamenak ekintza hauek barne biltzen ditu (5. irudia):

- Herrialde kideek **leku poluituen inbentarioa** egin behar dute. Horretarako, herrialde kide guztientzako bera izango den lurzoru poluituen definizio bateratua eta lurzorua polui dezaketen jardueren zerrenda behar da
- **Lurzoruaren egoerari buruzko txostena** egin behar da, lurzorua poluitu ahal izan duten jarduerak egin diren lekuak eskualdatzean. Horrela, lurzoru poluituen inbentarioa osatzen joango da.
- **“Kokaleku umezurtzak” finantzatzeko mekanismoak** diseinatzea, hau da, indarrean dagoen legearen arabera erantzule den poluzio-eragilea ezin denean identifikatu edo ezin duenean garbitze-kostua bere gain hartu.
- Aurreko elementu guztiak kontuan hartuta, estatu kideek poluitutako **lurzoruak berreskuratzeko estrategia nazionala** diseinatu eta ezarri beharko dute. Estrategia berrikusi egin beharko da, aldizka.
- Gainerako Europako direktiba guztiak bezala, lurzorua poluziotik babesteko ezartzen diren politiketan ematen diren aurrerapausoen **berri emateko obligazioa** barne biltzen du honek ere.

5 LURZORUAREN POLUZIOAREN EGOERA ETA ERRONKAK


Poluzioak eragindako lurzoruaren egoeraren ezagutza zehatzak baino ez du ahalbidetuko lurzoria poluziotik babesteko politika diseinatzea eta ezartzea. Politikak Euskal Autonomia Erkidegoko beharrei egokitutako helburuak zehaztuko ditu, eta egokienak diren ekintza-lerro eta ekintza zehatzen bidez gauzatu da. Hortaz, Lurzoru poluituen 2007-2012 plana, substantzia kimikoek lurzorian eragiten dituzten aldaketei buruzko **gaur egungo egoera aztertzen eta baloratzen duen eta etorkizuneko perspektibak ikertzen dituen** diagnostiko zehatzetik abiatzen da. Diagnostiko hori sistematizatzeko, **IPEIE eredia** (indar-eragileak, presioak, egoerak, inpaktuak, erantzunak) erabiltzeko hautua egin da. Eredua hori Europako Ingurumen Agentziak garatu zuen, eta, era dinamikoan, poluzioak lurzorian sortzen duen arazoa azaltzen laguntzen du. Horretarako, eragin hori azaltzen eta baldintzatzen duten elementuak gertaera-kate logiko baten bidez sailkatzen ditu.

Kalitate kimikoa hondatua duten lekuetako esku-hartzeekin lotutako faktoreak aztertzen ditu diagnostikoak; hala ere, kapitulu honen zati bat lurzoruaren artifizializazioari buruzkoa da. Izan ere, lurzoru garbien erabilera murrizteko, planak jadanik hondatuta dauden lurzoruak erabiltzea sustatzeko ekintza zehatzak ere biltzen ditu.

Datozen urteetan indar eragileen, presioen eta eraginen kudeaketa egokia lortzeko izango diren erronkak identifikatuz eta aztertuz burutuko da atal hau. Erronkei aurre egiteko erantzun-multzo eraginkorra diseinatuko da.

5.1 IPEIE EREDUA. LURZORUAREN POLUZIOA ETA BERE ERAGINAK ULERTZEKO ERA BERRITZAILEA

Aurrez azaldu den bezala, poluitzaileen presentziarengatik lurzoruaren degradazioarekin lotutako faktoreak era logikoan ulertzeko balioko du IPEIE eredia. Horrelako sistematizazioak, prozesuaren faseetan giltzarri diren aspektuak identifikatzea ahalbidetzen du eta, horrela, ekintza-neurriak arrazionaliza daitezke. Eredua bera eta erabiltzen dituen kontzeptuak errazago ulertzeko, jarraian, kontzeptu bakoitza laburki definituko da: indar eragileak, presioak, egoerak, eraginak eta erantzunak.



6. irudia: IPEIE ereduaren Euskal Autonomia Erkidegoaren egoerara egokituta.

- **Indar eragileak.** Sistema sozioekonomiko orokorraren esparruan, poluzioak lurzoruan duen eraginaren larritasunaren bilakaera zehazten duten faktore-multzoa dira. Lurzoru poluituen 2007-2012 planaren aplikazio-eremuan, lurzorua polui dezaketen jardueren garapena da funtsezko aldagaia. Ez da ahaztu behar, hala ere, plan horren helburuetako bat dela substantzia poluitzaileek hondatutako lurzoruak berriz erabiltzea, horrela, ingurune horren artifizializazioa murrizteko. Hala, hirigintzaren garapena indar eragilea da, lurzoruaren kontsumoan zeresan handia baitu.
- **Presioak.** Indar eragileek lurzoruarengan presio egiten dute, esaterako: ingurune naturala den neurrian kontsumitzea eta, puntualki edo era lausotuan, substantzia kimikoak zuzenean lurzorura edo beste inguruneraren batera —airea edo ura— jaurtitzea, isurketen ondorioz, hondakinen kudeaketa ezegokiaren ondorioz, estalperik gabe gordetako substantzien lixibiazioaren ondorioz, etab.
- **Egoera.** Presioengatik, egoera definitzen duten lurzoruaren ezaugarriak hondatu egiten dira. Lurzoruaren poluzioari dagokionez, egoera poluitzaile-moten, -kontzentrazioen edo poluitzaileen banaketa espazialaren araberakoa izango da. Artifizializazioari dagokionez, zigilatutako azalera izango da jarraitu beharreko adierazle nagusia.
- **Eraginak.** Lurzoruaren egoera hondatzeak ingurumenaren eta ekosistemaren, eta giza osasunaren eta ekonomian dituen ondorioak kontsideratzen dira eragintzat.
- **Erantzunak.** Zikloa amaitzeko, indar eragileen, presioen, egoeraren eta eraginaren ikerketa zehatza egin ondoren, helburu hauek lortzeko behar diren

tresnak diseinatzen dira.

- **Indar eragileak ulertzea**, ondoren, lurzoruan substantzia poluitzaileak sartzea edo lurzoruaren artifizializazioa eragin dezaketenak egoki arautzeko.
- Inguruneari eragiten dioten **presioak gutxitzea**, eta eskura dauden teknologiarik egokienak eta jardunbide egokiak ezartzea, baita ingurumen-kudeaketa arduratsua ere.
- Pertsonengan eta ingurumenean edo ekonomian zuzeneko zein zeharkako **eraginak gutxitzea**. Helburu hori lurzoruaren kalitatea hondatzen duen arriskua kudeatzeko neurriak ezarrita lortzen da.

IPEIE eredia, nagusiki, elementu hauetan oinarrituta egokitu da Euskal Autonomia Erkidegoko egoeretara: *Lurzorua polui dezaketen jarduerak dituzten lekuen inbentariotik* eta 1996-2005ean egindako lurzoruaren kalitate-ikerketetatik ateratako informazioaren azterketa zehatza, datu horiek **hirigintza-planifikazioarekin** (lurralde-plan partzialetatik, sektorekako lurralde-planetatik eta Udalplanetik¹² jasotakoak) gainjartzea eta, azken hamabost urteetan, lurzoru poluituen kudeaketa-arloan, Euskal Autonomia Erkidegoan metatutako esperientzia.

INDAR ERAGILEAK. Lurzoru poluituak sortzen dituzten eragileak

- Giza jarduerak eta, bereziki, **biztanleria hazteak** eta horrek dakarren **garapen ekonomikoak** aldaketak eragiten dituzte produkzio- eta kontsumo-mailetan. Fenomeno horien ondorioz sortzen diren indar eragileek lurzoruan presioak eragin ditzakete, adibidez, lurzorua polui dezaketen jarduera ekonomikoak, poluitzaileek hondatutako lekuetan eraikitzea edo hirigintza.
- Indar eragileen artean nabarmenenak lurzorua polui dezaketen industria-jarduerak dira, horiek baitira lurzoruan presiorik handienak eta, ondorioz, eraginik larrienak sor ditzaketenak. Hala ere, horiei loturiko hainbat elementuk, hala nola industriaren ingurumen-sentsibilizazioa, testuinguru sozioekonomikoa edo teknologiaren beraren bilakaera eta hondakinen kudeaketa ere erabakigarriak dira, eta kontuan hartu behar dira.
- Hasieran, **eraikuntza** garrantzi gutxiko indar eragilea dela pentsa badaiteke ere, Euskal Autonomia Erkidegoko ezaugarri bereziengatik, jarduera hori lurzoruaren poluzioaren eragileetako bat da. Lurzoru erabilgarri gutxi izateak bi ondorio ditu arlo horretan; alde batetik, kalitatea hondatua duten lurzoruak beste erabilera batzuetarako erabili beharra, nagusiki bizitegietarako, eta, bestetik, lur azpiko sotoak eta garajeak ohikoak izatea. Kasu horietan, hondatutako material-bolumen handiak sortzen dira. Material horiek, kontrolik gabe, berriz erabili edo bota izan dira edo berriz erabili edo botatzeko arriskua dago. Eta, ondorioz, lehen lurzorua polui dezaketen jarduerarik egin ez den lekuetan, lurzoru hondatu edo poluitu berri gehiago sor daiteke.

¹² **UDALPLAN.** Udaletako Hirigintza Planeamendua eta Bizitegietarako Lurzoruen Lurralde Datu Bankua eta EAEko Jarduera Ekonomikoak, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila www.euskadi.net/udalplan

- **Hirigintza-garapena** aurreko ataletan substantzia poluitzaileen presentziak hondatutako lurzoruetako esku-hartzeetan funtsezko elementu gisa identifikatu da; artifizializazioari dagokionez, lurzoruaren okupazioaren indar eragileetako bat da, neurri handi batean, eta, ondorioz, lurzoruaren funtzio naturalak hondatu egiten ditu.

➤ **Lurzorua polui dezaketen jarduera ekonomikoaren joera** da lurzoruaren poluzioa eragiten duen indar eragile nagusia.

➤ **Kalitatea hondatua duten lekuetan eraikitzea** indar eragile garrantzitsutzat jo behar da.

➤ **Hirigintza-garapena** da lurzoruaren okupazioaren indar eragile nagusia.


Lurzorua polui dezaketen jarduera ekonomikoak eta leku poluituetan eraikitzea

Lurzorua polui dezaketen jarduera industrialak dira (1/2005 Legearen II. Eranskinean eta 9/2005 Errege Dekretuan definituak) lurzoruaren kalitateari eragin diezaioketen presioak sor ditzaketen indar eragile nagusiak, substantzia poluituek hondatutako lurzoruetan **eraikitzearekin** batera.

Euskal Autonomia Erkidegoko lurzoruaren poluzioa industria-historiaren ondorio da.

Industria astunean eta metalen lehen transformazioan espezializatu izana da industria horren ezaugarri bereziena (1980an, bi sektore horiek euskal Industriako Balio Erantsi Gordinaren —BEG— % 35 sortu zuten).

5-2 irudian ikus daitekeen bezala, **produktu metalikoen ekoizpenak** eta **horri lotutako industriak** —Euskal Autonomia Erkidegoko lurzorua polui dezaketen jarduerak dituzten lekuen inbentarioko datuen arabera— kokaleku horien % 33 eragin dituzte eta poluituta egon daitekeen azaleraren % 21 okupatzen dute. Leku-kopuruari dagokionez, ibilgailuak konpontzeko tailerrek (% 12), makinaria eta garraioak ekoizteko industriak (% 10) eta erregaien salmentak (% 7) ere leku garrantzitsua dute.




7. irudia: Leku osoa (ezkerrean) eta azalera osoa (eskuinean) osatzen duten leku-talde bakoitzaren esku-hartzea.

Hala ere, hainbat zirkunstantziak erakusten dute lurzorua polui dezaketen jarduera industrialak gutxitu egin direla eta, ondorioz, ingurune horrengan eragiten duten eta etorkizunean eragingo duten presioa nabarmen gutxitzen ari dela.

Alde batetik, 8. irudian ikus daitekeenez, azken urteetan, industriako BEGk Euskal Autonomia Erkidegoko BEG osoan duen lekua pixkanaka txikitzen ari da, nahiz

industria-jarduerak euskal ekonomian pisu handia izaten jarraitzen duten (2006ko 2. lauhilabetekoan BPG osoaren % 29).



Iturria: EUSTATEk eta guk egina

8. irudia: Sektorekako BEGaren bilakaera

Bestalde, legedian eman diren aurrerapausoek (batez ere, 1/2005 Legea dela-eta prebentzioari loturiko obligazioak ezartzea), arautzeek eta ikuskatzeek, enpresen ingurumen-kudeaketa nabarmen hobetzeak eta jendarte guztia ingurumenarekiko sentsibilizatzeak eta ardurak guztiek hartzeak zaildu egingo dituzte, kasu bakanetan izan ezik, iraganean, ezinbestean industria lurzoruaren poluzioarekin lotzen zuten jardunbideak.

Azkenik, bi elementu izan behar dira kontuan indar eragile horrekiko ikuspegi eta joera sinesgarrietatik. Lehenik eta behin, ez da Barne Produktu Gordinaren hazkunde-tasetan aldaketa handirik espero. Azken urteetan, termino errealetan, % 2,5-3,5 igo da. Bigarrenik, begi-bistakoa dirudi gure ekonomiaren hazkunde handiena hirugarren sektorearen garapenetik etorriko dela. Sektore horretako jarduerak presio apala egiten dute lurzoruarengan. Lurzoruaren poluzioan eragin handiagoa duten industria-jarduerak, berriz, egonkortu edo, baita gutxitu ere, egingo direla dirudi.

Bestalde, **Lurzoru poluituen 2007-2012 planaren** baitan eta lurzorua polui dezaketen industria-jarduerak ez bezala, azken urteetan hazkunde nabaria izan du **eraikuntzak** eta kalitatea hondatua duten lurzoru berriak sortu ditu.

Eraikuntza-jarduerengatik lurzoru hondatuetan hondeatutako materialak ez badira egoki kudeatzen, jarduera hori presioa egiten duen faktore bihur daiteke, eta, ondorioz, poluzio-eragile. 2003-2004an ikertutako eremuaren balioak (5-4 taula) eta denboraldi berean jarduera-aldaketa izan duten eremuak (5-3 taula) alderatuz gero, hau ondorioztatzen da: jarduera-aldaketa izan duten 240 hektareatik, 150 hektareatan soilik egin dira ikerketak, eta, ondorioz baita ingurunearekiko arduratsu diren ekintzak ere (denboraldi horretan, oraindik ez zegoen lurzoru poluituentzat berariazko legedirik).

Ikertu gabeko zenbait lekuren kalitatea hondatuta bazegoen eta hondeatutako lurzorua lurzoru natural gisa kudeatu bada, baliteke hondeatutako material horrekin betetako leku poluitu berriak sortu izana. Horrek azaltzen du, neurri batean, nola eragiten duen eraikuntzak zabortegei berrien sorreran. 2005ean 1.277 zabortegei zegoen.

Hirigintza eta lurzoruaren okupazioa

Bestalde, etxebizitza berriei, azpiegiturei eta era guztietako ekipamenduei lotutako hirigintza-presioak batzuetan lurzoru naturalak kolonizatzen eta artifizializatzen ditu, eta lursaila zigilatzen du, horrek eranstean dituen ingurumen-arazo guztiekin. Kalifikatutako bizitegi-azalera % 1,1 hazi zen 2004 eta 2005 bitarte, eta jarduera ekonomikoek okupatzen duten azalera % 3 igo zen denboraldi horretan. Urtean 463 ha artifizialdu zen.

- Substantzia poluitzaileen presentziaren eraginez Euskal Autonomia Erkidegoan lurzoruaren kalitatean izan diren aldaketak industria-historiaren emaitza dira. Lurzorua polui dezaketen jarduerak pisu handia izan zuten industria horretan eta ingurumen-inpaktuak kontuan izan gabe garatu ziren.
- 2.766 leku daude produktu metalikoak ekoizteko jarduerak eta horri lotutako industriak poluituta egon daitezkeenak (inbentariatuta dauden EAEko lursailen % 32). Iraganean, jarduera horiek eragin zuten gehien lurzoru hondatuen sorreran.
- Legediaren aurrerapausoei, arautze- eta ikuskatze-prozedurei, enpresek ingurumen-kudeaketan egindako aurrerapausoei eta jendartearen ardurei esker, iraganeko jardunbideak ez dira errepikatuko.
- EAEko ekonomian hirugarren sektorea lekua hartzen ari da eta teknologian trinkoagoak eta ez hain poluitzaileak diren gero eta enpresa gehiago daude; hala, datozen urteetan indar eragile horrek presio gutxiago eragingo du.
- Kalitatea hondatua duten lekuetan eraikitzea, eraikitze beharreatatik hondeatutako materialetan ingurumen-kudeaketa egokirik eduki gabe, indar eragile garrantzitsu bihur daiteke.
- Artifizializazioarekin eta lurzoruaren zigilatzearekin zerikusia duten presioen indar eragile nagusitzat jo daiteke hirigintza-garapena.

PRESIOAK. Lurzoruaren poluzioaren eragile nagusiak


Lehenago identifikatutako indar eragile bakoitzak zenbait presio eragingo ditu. Presio horiek bereizi egin beharko dira erantzun egokienak diseinatzeko. 1. taulan presio nabarmenenak indar eragileekin lotzen dira.

SUBSTANTZIA POLUITZAILEEN PRESENTZIAREN KALTEAK (substantzia poluitzaileak isurtzea jardunbide ezegokiengatik edo nahí gabeko ezbeharreatatik)	
INDAR ERAGILEA: Lurzorua polui dezaketen industria-jarduerak	
	POLUZIO PUNTUALA
	Lehengaien, bitarteko produktuen eta produktu amaituen edo egoera txarreko hondakinen manipulazioa eta biltegiatzea.
	Isurtzeak, ihesak eta jarioak (bereziki adierazgarriak dira lur azpiko biltegiatze-tankeekin lotuak)
	Istripuak eta ezbeharrak
	Industriako mantentze-lanak eta eraispinak
	Ezkutuko zabortegietatik askatzen diren substantziak
	POLUZIO LAUSOA
	Atmosferako poluitzaileak pausatzea (substantzia poluitzaileak dituzten industriak isuritako partikulak)
INDAR ERAGILEA: Hondatutako lekuetan eraikitzea	
	Hondatutako lurzoruak eta materialak behar ez den lekuetan pausatzea (betegarriak, ezkutuko zabortegiak, materialaren ezaugarrientzat baimenik ez duten zabortegiak)
LURZORUAREN ARTIFIZIALIZAZIOA	
INDAR ERAGILEA : Hirigintza-garapena	
	Lurzoruaren okupazioa

1. taula: Indar eragileen eta sor ditzaketen presioen arteko lotura.


Kasurik gehienetan, zaila da indar eragileek sortzen dituzten presioen larritasunari eta joerari buruzko zuzeneko estimazioa ematen duen informazio kuantitatiboa eskuratzea. Hala ere, posible da datu batzuk baloratzea eta, zeharka bada ere, zeregin horretan laguntzea.

Horrela, 9. irudian, azken urteetan **hondakin arriskutsuen kudeaketak** nola eboluzionatu duen ikusten da. 1994an, hondakinaren ehuneko handi batentzat ez zegoen inolako kudeaketarik, eta horrek hondakina zuzenean ingurunera jaurtitzea ekartzen zuen. Ondorengo urteetan, ekoizitako kantitate totala egoki kudeatu da, balorizatu edo eliminatu baita.




Iturria: Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila
 2004ko datuak behin-behinekoak dira eta ez daude bereziak
 9. irudia: Hondakin arriskutsuen kudeaketaren bilakaera.

Lurzoruaren kalitatean eragiten duten **istripuak eta ezbeharrak** poluzioa eragiten duten beste presioetako bat dira. 10. irudian, 1996-2004an Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailburuordetzak erregistratutako era horretako gertaeren bilakaera ikusten da.



Iturria: Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila
 10. irudia: Lurzoruaren kalitatean eragina duten ezbehar-kopuruaren bilakaera


Hondakinak ekoizten diren industria-instalazioetan bertan edo horietatik kanpo lurzoruak jasaten duen presio nagusietakoa da **hondakinen kudeaketa**. Hondakinen inbentarioaren azken eguneraketak, lehendik ere nabari zen joera egiaztatzen egin du: gero eta zabortege gehiago dago. Bilakaera horrek zenbait arrazoi izan ditzake, eta horietako bat inbentariatzeko gero eta ahalegin handiagoa egitea izan daiteke. Hala ere, igoseraren zati bat horri dagokiola kontuan hartuta eta industria-hondakinak ia ez direla legez kanpo jaurtitzen onartu arren, ekarpen handiena hondeatutako materiala uzteko eraturako eremuak ugaritzeak egin du. Hondeatutako materiala kalitatea hondatua eduki dezaketen lurzoruz ez ezik, industria-instalazioak eraikitzeke lursailak berdintzeko erabilitako hainbat eratako industria-hondakinez ere (gehienbat zaborrak) osatzen da.



Iturria: Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila

11. irudia: Lurralde historikoetan banatuta, Euskal Autonomia Erkidegoan inbentariatutako zabortegeien eta isuri-lekuen kopuruaren bilakaera.

Poluitutako lekuetatik hondeatutako material-bolumenaren hazi egin da eta hondakin arriskutsu gisa kudeatu da; beraz, horrek baieztatzen du Euskal Autonomia Erkidegoan azken urteetan gero eta gehiago eraikitzen dela lursail poluituetan. Gainera, kontuan izan behar da datu horiek icebergaren punta soilik irudikatzen dutela, hondakin ez-arriskutsu gisa kudeatutako poluitutako lurzorkantitate nahikoa handiagoa baita.



Iturria: Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila

Nerbioko ezkerrean berreskuratze-lan handia egiteagatik lortu ziren 2004ko datuak.

12. irudia: Hondakin arriskutsu gisa kudeatu den hondeatutako material-kantitatearen bilakaera.

✚ Iraganean ohikoak izan dira lurzorua poluitzen duten substantziak isurtzen dituzten jardunbide ezegokiak, lurzorua polui dezaketen industria-jarduerei zein ezaugarri kimikoak hondatuak dituzten lekuetan eraikitzeari lotuak.

✚ Lurzoruaren okupazioa, azken urteetan, ardua gehien sortzen duen presioetako bat da, artifizializatzeagatik lurzorua funtzioak galtzen ari baita eta horrek eragina baitu ingurumenean.


✚ Arautze-erregimeneko aldaketei, substantzia poluitzaileak isuri ditzaketen jardunbideen erantzule diren eragileen ingurumen-kontzientzia handitzeari eta neurri tekniko, material eta teknologiko berriei esker, datozen urteetan, gutxitu egingo dira lurzorian substantzia poluitzaileak isurtzen dituzten ekintzak.

EGOERA. Lurzoruaren kalitatea hondatzea

Euskal Autonomia Erkidegoaren industria-historiak **poluituta egon daitezkeen lurzoruz osatutako pasiboa** utzi du. Kalkulatzen da 7.898 hektarea egon daitezkeela poluituta, hau da, **Euskal Autonomia Erkidegoko azalera erabilgarriaren¹³ % 16,5**. Aurreikusi daitezkeenez eta Euskal Autonomia Erkidegoko lurzorua polui dezaketen jarduerak dituzten lekuen inbentariotik

¹³ Plangintza-tresnetan kalifikazio hau du azalera horrek: **etxebizitzetarako hirikoa eta urbanizagarria + jarduera ekonomikoetarako hiriko lurzorua eta urbanizagarria + sistema orokorretarako lurzorua** (ekipamenduak + espazio libreak + oinarritzko azpiegiturak + garraio- eta komunikazio-azpiegiturak).

jasotako datuen arabera, poluituta egon daitezkeen lekuen dentsitate handiena industrializazio handiena dagoen eremuetan dago (ikus 13.irudia)



Iturria: Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumenaren egoera, 2004.


13. irudia: Poluituta egon daitezkeen Euskal Autonomia Erkidegoko lurzoruen banaketa espaziala.

EREMU FUNTZIONALA		INBENTARIATUTAKO LEKUAK (%)	INBENTARIATUTAKO AZALERA (%)
ARABA	Araba erdialdea	19,3	12,8
	Laguardia	1,2	0,8
BIZKAIA	Balmaseda-Zalla	1	0,6
	Bilbo Metropolitarrak	21,6	32,5
	Durango	5,9	3,3
	Gernika-Markina	4,1	1,6
	Igorre	0,6	0,6
	Laudio	2,7	3,9
	Mungia	1,7	1,5
GIPUZKOA	Beasain-Zumarraga	7,8	4,4
	Donostia	13,8	29,3
	Eibar	6,2	1,4
	Arrasate-Bergara	6,8	4
	Tolosa	3,3	1,2
	Zarautz-Azpeitia	3,9	2,1

Lurzorua polui dezaketen jarduerak egin diren lekuen **banaketa espazialari** dagokionez, **Bilbo Metropolitarrak** (% 32,5), **Donostiako** (% 30) eta **Araba Erdialdeko** (% 13) **eremu erabilgarriek** Euskal Autonomia Erkidegoan inbentariatuta dagoen poluituta egon daitezkeen azaleraren % 75 osatzen dute. Hala ere, kontuan eduki behar da lehen bi eremu horietan aurkitzen direla meategi nagusiak eta meatze-hondakinak edo bestelako hondakinak egon zitezkeenaren zalantzaren aurrean, meatzaritzako gune horien azalera osoa inbentariatu da. Gainerako eremu erabilgarrietan, poluituta egon daitezkeen lekuen banaketa nahikoa homogeneoa da.

Jarraian, **inbentariatutako leku-motei** buruzko ondorio nabarmenenak laburbiltzen dira (ikus 14. irudia):

- **Industria-leku aktiboak.** Euskal geografian presentzia handiena duen tipologia da. Leku horiek nagusi dira Donostian —lekuen % 75 kategoria horretakoa da—, Bilbo Metropolitanarrean —proportzioa % 65 da— eta Araba Erdialdean —guztiaren % 82 dira—.
- **Zabortegiak.** Zabortegiak lekuen % 9 dira, baina azalerari dagokionez erdia baino gehiago. Leku horien % 23 Bilbo Metropolitanarreko eremu erabilgarrian daude.
- **Jarduera gabeko industria-lekuak** (industria-hondakinak¹⁴ aktibitate gabeko lekuak¹⁵ eta orubeak¹⁶). Leku-multzo horiek inbentariatutako partzelen % 6 eta azaleraren % 27 osatzen dute. Industria-hondakinen % 29 eta orubeen % 40 Bilbo Metropolitanarrean daude. Horrelakoak Beasain-Zumarragan (industria-hondakinen % 13 eta orubeen % 16) eta Donostian (industria-hondakinen % 13 eta orubeen % 9) daude.
- **Leku hondatuak**¹⁷ Era horretako lursailak lekuen % 16 osatzen dute, baina poluituta egon daitezkeen azaleraren % 4 baino ez dute okupatzen. Tipologia hori, batez ere, Araba Erdialdean (leku horien % 29 han dago) eta Bilbo Metropolitanarrean, (% 21) dago.



14. irudia: Lekuen banaketa (ezkerrean) eta okupatutako azaleraren banaketa (eskuinean), poluituta egon daitezkeen lurzoruen tipologiaren arabera (%)

Azken urteetan, **poluituta egon daitezkeen lekuetan egindako ikerketek eskertzen**, posible da substantzia poluitzaileek kalitatea benetan hondatu dien lurzoruen inguruko kalkuluak egitea. Horrela, 1996 eta 2005 bitarte egindako lurzoruen ikerketek erakusten dute, 1/2005 Legearen irizpideei jarraituta, ikertutako azalera osoaren % 16 benetan poluituta zegoela. Horri, gutxi-asko hondatuta zeuden eta arrisku-azterketarik¹⁸ egin gabe lurzorua hondeatzea erabaki zen lekuak gehituz gero, ehunekoa ikertutako azaleraren % 40ra igotzen da. Ehuneko horiek lurzorua polui dezaketen jarduerak izan dituzten lekuen inbentarioan dauden partzela guztietara estrapolatuta, Euskal Autonomia Erkidegoan **hondatuta eta/edo poluituta dagoen azalera 1.279 eta 3.120 hektarea** bitartekoa dela kalkulatu da, **hau da, Euskal Autonomia Erkidegoko azalera erabilgarriaren % 2,7-6,5.**

¹⁴ **Industria-hondakinak:** leku horietan industria-jarduera amaitu da, baina kontserbazio-egoera txarrean dauden eraikinak daude.

¹⁵ **Aktibitate gabeko lekuak:** leku horietan industria-jarduera amaitu da, baina kontserbazio-egoera onean dauden eta berriz erabili litezkeen eraikinak daude.

¹⁶ **Orubeak:** leku horietan industria-jarduera amaitu da, eta eraikinak eraitsi egin dira.

¹⁷ **Leku hondatuak:** partzela horietan, iraganean lurzorua polui zezaketen jarduerak egin izan ziren, baina gaur egun industriakoa ez den beste erabilera batzuetarako edo lurzorua poluitzen ez dutela jotzen diren jardueretarako erabiltzen dira.

¹⁸ Kasu gehienetan, eraikuntza-proiektuaren arabera, lurzoruen azaleko geruza hondeatu behar zen, eta, harekin, poluzio-geruza.

Euskal Autonomia Erkidegoko lurzoruetan eta lur azpiko uretan aurkitzen diren **poluitzaile ohikoenak** metalak dira, nahiz olio mineralak, hidrokarburo aromatiko poliziklikoak eta konposatu organiko aromatiko lurrunkorak ere ohikoak diren.

Poluitzailea	Eragiten dion ingurunea			
	Lurzorua	Lur azpiko urak	Gainazaleko urak	Aire interstiziala
Metalak	70	22	6	
Zianuroak	8	1		
Olio minerala	59	32	6	2
Konposatu organiko lurrunkor aromatikoak	13	12		1
Hidrokarburo aromatiko poliziklikoak	20	17	1	
Disolbatzaile kloratuak	7	6		1
Klorobentzenoak	1	1	1	
Bifenilo polikloratuak (PCBak)	11	4		
Pestizida organokloratuak	10			
Fenolak	6	2	1	

Oharra: Lur azpiko uretan, kasurik gehienetan, Holandako araudia hartu da erreferentziatzat.

2. taula: Identifikatutako substantzia poluitzaileak: ikerketetan, ingurune bakoitzean, substantziak VIE-B baino kontzentrazio handiagoetan agertu diren kasuen kopurua

Poluzio lausoaren iturriek egindako presioei buruz ezer gutxi esan daiteke ez baitago datu kuantitatiboak eta objektiboak ateratzeko ikerketarik.

- Lurzorua polui dezaketen jarduerak egiten diren edo egin izan diren lekuek Euskal Autonomia Erkidegoko azalera erabilgarriaren % 16,5 okupatzen dute.
- Poluituta egon daitezkeen lurzoruak oso kontzentratuak daude iraganen industria-jarduera garatu zen hiriguneetan eta alboko eremuetan.
- Poluzio lausoak lurzoruan egin duen presioa ez da ezagutzen, ezta horrelako poluitzaileek lurzoruairene egoeran nola eragin duten ere.
- Lur industrialek (% 49), jarduerarik gabek (% 24; horietatik % 19 meategi zaharrak) eta zabortegiek (% 20) okupatzen dute Euskal Autonomia Erkidegoan poluituta egon daitezkeen lurzoruen azaleraren zatirik handiena.
- Orubek (% 1), industria-hondakinek (% 2) eta jarduerarik gabeko lurzoruek (% 5 meategi zaharrak kontuan izan gabe), hau da, gaur egun okupatu gabe dauden eta beren ezaugarrietara egokitzen diren erabileretarako berriz erabil litezkeen lurzoruek, gure Autonomia Erkidegoan poluituta egon daitezkeen azaleraren % 8 okupatzen dute.
- Leku-kopuruari dagokionez, poluituta egon daitezkeen lekuen % 69 industriakoak dira.
- Lurzorua polui dezaketen jarduerak jasan dituzten lekuen % 16 eta % 40 bitarte (1.279 ha – 3.120 ha) benetan daude poluituak edo hondatuak. Ondorioz, deskontaminaziorako behar errealak nahikoa handiak dira.
- Benetan poluituta dauden lurzoruetako poluitzaile ohikoenak metalak dira, nahiz beste substantzia toxiko batzuen presentzia ere ohikoa izan.

INPAKTUAK. Lurzoru poluituari lotutako arriskuak

Substantzia kimikoen presentziak eta lurzoruaren artifizializazioak ingurune horren kalitatean izandako eraginaren garrantzia lurzoruaren egoerak jasandako inpaktuen ondorio da. Eragin garrantzitsuenen artean azpimarratzekoak dira hauek:

- Giza osasunean eta ekosistemen funtzionamenduan dituen eraginak
- Eragin ekonomikoak

Osasunean eta ekosistemetan duen inpaktua

Lurzorua gure ingurumeneko zati bat gehiago da eta oso lotua dago airearekin eta gainazaleko zein lur azpiko urekin, baita animalia- eta landare-bizitzarekin eta ekosistema guztiekin ere. Substantzia poluitzaileek ingurune hartzaileetan duten eragina karga-poluitzaileen kontzentrazioaren, inguruneak diluitzeko duen gaitasunaren eta substantzia poluitzaileek eragin baino lehen lurzoruak zituen ezaugarri fisiko-kimikoen araberakoa da.

Lurzoruen ikerketetan ez da beti beharrezkoa izan poluzioari lotutako arriskua ebaluatzea. Kasu batzuetan, lurzoruaren substantzia poluitzaileen kontzentrazioak baxuak zirelako eta giza osasunean eta ingurumenean ez zutelako arriskurik sortzen. Besteetan, aurreikusitako hirigintza-proiektuetan oinarrituta egin diren hondeaketek lekuko azaleko lur-geruzak kendu dituztelako. Lur-geruza horietan kontzentratu ohi da poluzioa eta, ondorioz, hondoko lurra poluziorik gabea da.

Agian horregatik, 1996-2005ean ikertutako poluituta egon daitezkeen 150 lekutatik 40tan (115 hektarea) egin zen giza osasunean eta ekosisteman izan dezakeen arriskuaren azterketa kuantitatiboa. Kontuan izan behar da, bestalde, egindako analisiak giza osasunarentzako arriskueta zuzenduak zeudela batez ere, zeren kasurik gehienetan, gune oso antropizatueta kokatuak zeuden, hiriguneetatik hurbil eta ingurueta ekosistema naturalik gabe (gure geografian poluituta egon daitezkeen lurzoruen azalerarik handiena daukaten guneak dira). Aztertutako lekuek euren eragin-eremuan gainazaleko urak zituzten kasuetan ere, urak oso kaltetuak egon ohi ziren industria-hondakin likidoengatik eta hiritako ur zikinengatik eta, ondorioz, alferrikakoa zen lurzoruaren poluzioaren eraginak aztertzea. Azterketa horietatik ondorio hauek atera ziren, besteak beste:

- Arriskuak aztertzeko ikertutako 40 lekuetatik 18 lekutan —ikertutako leku guztien % 12n, hain zuzen—, giza osasunerako arrisku onartezina detektatu zen. Azalerari dagokionez, % 13 da.
- Gizakiarentzat onartu ezineko arriskua detektatu zen lekurik gehienetan, **arriskuaren jatorria** lurzoruaren poluzioan bertan zegoen (kopuruaren % 89 eta azaleraren ia % 100). Kasuen % 44an (azaleraren % 47) jatorria lur azpiko uraren poluzioarekin ere lotua zegoen, eta % 39an (azaleraren % 29), berriz, aztertutako luraren aire interstizialean zegoen. Giza osasunean eragin gutxiagoko inguruneak dira gainazaleko urak, sedimentuak, etab.

Eraitza horiek inbentario osora estrapolatuz gero, giza osasunean eta ekosistemetan duen eragin osoa zedarritzeko balio duten ondorioak atera daitezke:

- Lehenik eta behin, lurzorua polui dezaketen jarduerak dituzten lekuen **inbentarioko azaleraren % 46,2an ez dago hirigintzarako erabilerarik definitua** UDALPLANen, eta, ondorioz, landa-inguruetan eta gune naturaletan kokatuak daude. Eredu horietan ikerketek aurrera egin ahala, giza osasunean baino gehiago, ekosistemetan duen eragina ikertu beharko da. Egoera horren adibide dira zaborteziak. Zaborteziak isuriek, maiz, substantzia poluitzaileak ekartzen dituzte ibaietako gune nahiko garbietara. Ibaietako gune horiek herrietatik hurbil dauden ibilguak baino garbiagoak izan ohi dira, iturburutik gertuago baitaude. Gainerako % 53,8an, giza osasunean duen eragina garrantzitsuagoa izango da.
- Iraganean, inbentariatuak azaleraren **% 41 industriarako erabili** zen. Leku horietako batzuetan erabilera berriak garatuko dira, gehienetan bizitegi bultzatzeko, eta lurzoruaren kalitatearen deklarazio-prozedura abian jarriko da poluitzaileen lurreko kontzentrazioek giza osasunean onartu ezinezko eraginak izango ez dituztela bermatzeko. Erabilera-aldaketarik izan ez arren, 1/2005 Legeak derrigortzen dituen kasuetan ere abiatuko da lurzoruaren kalitatearen deklarazio-prozedura. Azkenik, gainerakoetan, martxan dauden jarduerak dituztenetan, 9/2005 Dekretuak ezartzen duenez, administrazio publikoari aurretiazko txostena bidali beharko zaio jakinarazteko, eta horrek erabakiko du lurzoruaren kalitatearen deklarazio-prozedura hasita egokitzen den ala ez.

2004 amaieran, hirigintza-planeamenduan lurzoruari emandako erabilera	Poluituta egon daitezkeen inbentarioko azalera, hirigintzarako erabilera zehaztua duena (ha)			
	Zaborteziarik ez	Zabortezia	Guztira	%
Bizitegiak	392	102	494	% 6,3
Industria-erabilera	2.954	288	3.242	% 41,0
Espazio libreak (gune berdeak)	108	111	219	% 2,8
Azpiegiturak	91	70	161	% 2,0
Garraioak eta komunikazioak	121	11	132	% 1,7
Erabilera zehaztua duten lurzoru guztiak	3.665	582	4.247	% 53,8
Hirigintzako erabilera zehatzik gabeko inbentariatuak azalera	2.657	994	3.651	% 46,2
Inbentariatuak azalera osoa	6.322	1.576	7.898	% 100

3. taula: Hirigintza-erabilerarako definitutako poluituta egon daitezkeen lekuen inbentarioaren azalera (ha)

- ➡ Baliteke gune ez urbanoetan kokatuta dauden zaborteziak izatea ekosistemarentzako arriskuen analisia egitea beharrezkoa den lekuak.
- ➡ Giza osasunarentzako arriskuen analisia egin zen lekuen % 45ean onartu ezinezko arriskua zegoen, eta bere jatorria lurzuruan bertan zegoen. Ikertu diren leku guztiak kontuan hartuz gero, ehunekoa % 12 da.
- ➡ Datozen urteetan, lurzorua polui dezaketen jarduerak dauden 3.651 hektareatan izango da beharrezko ekosistemetan izan dezakeen eragina neurtzeko ikerketak egitea. Giza osasunean izan dezakeen eragina 4.247 hektareatan izan daiteke garrantzitsua.


Eragin ekonomikoa

Osasunean eta ekosistemetan sor ditzakeen kalteez gain, ingurune-pasiboek **jendartearentzat kostu ekonomiko** handiak eragiten dituzte.

1/2005 Legearen memoria ekonomikoan ateratako ondorioen arabera, lurzoru poluituen eragin ekonomikoa prebentzioan, zaintzan, egoeraren ezagutzan eta, behar izanez gero, berreskuratzean eta konpontzean oinarrituta kalkulatu zuten. Lurzorua Polui dezaketen Jarduerak dituzten Lekuen Inbentarioak lekuak 12 tipologiaren arabera banatzen ditu, eta kalkuluak sailkapen horretatik abiatzen dira. Ondoren, tipologia horietan sailkatutako leku bakoitzari jarduera jakin batzuk egokitu zitzaizkien (poluituta egon daitezkeen lurzoruen prozesuan legeak ezartzen dituenak) eta baita aurrera eramateko zegozkien kostuak ere.

Horrela lortutako emaitza 1.809 milioi eurokoa izan zen, hau da, batez beste, 2040 bitarte, gutxi gorabehera, urtean 49 milioi eurokoa. Kontuan izan behar da, hala ere, emaitza horrek kostuak argi eta garbi gutxien dituela, ez baititu kontuan hartzen giza osasunean eta ekosisteman duen eragina, ezta poluzioa gertatzen denetik zuzentzen den arte jendarteak galtzen dituen aukeren kostua ere.

Ondorengo irudiak erakusten du kostuak nola banatzen diren kalkulurako kontuan hartu diren eta kudeaketa egokirako beharrezkoak diren zereginen artean (ikus 15. irudia).



Iturria: Lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko 1/2005 Legearen memoria ekonomikoa.

15. irudia: Kostu ekonomikoaren banaketa zereginen arabera

ERANTZUNAK. Lurzoru poluituen planaren erronkak

Egoeraren diagnostikoaren emaitza gisa, eremu geografikoko errealiterako erantzun egokiak diseinatzea lortu nahi da. Erantzunak indar eragileen, presioen, egoeraren eta eraginaren analisisian identifikatutako hutsuneak betetzera zuzenduko dira, eta, jadanik diseinatutako eta abian jarritakoekin batera, Lurzoru poluituen 2007-2012ko plana osatuko dute. Gainera, une honetan Euskal Autonomia Erkidegoko lurzoru poluituak berreskuratzeko faktore garrantzitsuak kontuan hartuko dituzte.

Erantzunen atalean analisi bikoitza egin da; alde batetik, arlo horretako ekintzak dinamizatzen dituzten faktoreen balorazioa, horrela, beren ekarpena hobetzen

lagunduko duten erantzunak diseinatzeko. Eta, bestetik, plan honen baitan diseinatzen diren erantzun berriek aurre egin beharko dien erronkak sistematizatzea.

Euskal Autonomia Erkidegoan, lurzoru poluituak berreskuratzea bultzatzen duten faktoreak: legedia, hirigintza eta ingurumen-kontzientzia handitzea

Euskal Autonomia Erkidegoan, duela hamabost urte lurzoru poluituetan egin ziren lehen ekimenetatik, nabarmen ugartu dira arlo horretan egin diren esku-hartzeak, batez ere, hiru zirkunstantziek bat egin izanagatik: lehenik, zein kasutan esku hartu behar den argi eta garbi mugatzen duen lege-esparrua egotea; bigarrenik, Euskal Autonomia Erkidegoa sartua dagoen hiri-lurraren berreskuratze-prozesu bizia; azkenik, ingurumen-kontzientzia handitu izana, hala industria-sektorean, nola jendartean oro har. Hiru faktore horietatik lehena, berariazko arau-esparrua definitzea izan da, dudarik gabe, lurzoru poluituetan eragiteko bultzada nagusia. Bultzada hori hiri-jardueretan beste islatu da enpresen eta jendartearen sentsibilizazioan, lurzoria babesteko beharraz jabetu baitira.

Lege-esparrua eta lurzoria poluziotik babesteko esku-hartzea bizkortzea

Lurzoria poluziotik babesteko lehen ekarpen legalak 1998koak izan baziren ere, *Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen orokorra babesteko 3/1998 Legea* eta *hondakinen 10/1998 Legea*, 2005etik aurrera soilik kontsidera daiteke lege-esparruak esku-hartzea bere hedadura osoan arautu zuela (Lurzoria ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko 1/2005 Legea eta lurzoria polui dezaketen jardueren zerrenda eta lurzoru poluituak izendatzeko arauak eta irizpideak zehazten dituen 9/2005 Errege Dekretua)

Beste ingurumen-konpartimentu batzuekin alderatuta, lurzoria duen berezitasunaren ondorioz —beste inguruneak ez bezala, lurzoria izaera pribatua du—, merkatuak esku hartu behar izan du, berariazko legedirik behar izan gabe. Hala ere, 1/2005 Legea onartu zenetik, lurzoria kalitatearen deklarazioak asko ugartu dira.

Substantzia poluitzaileen ondorioz **lurzoria kalitatea hondatzearen** prebentzioa, ohituraz, beste sektore batzuetako legediarekin, jardueralizentziarekin, ingurumen-inpaktuaren ebaluazioarekin edo antzeko prozedurekin kudeatu izan da. Lurzoria polui dezaketen jardueren titularrek Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-organoari lurzoria egoerari buruzko aurretiazko txostena aurkezteko azken eguna 2007ko otsailaren 7a da. Data horretatik aurrera, lurzoria poluituen legeak sortzen dituen tresnen bidez zentralizatu egingo dira prebentzio-ekintzak. Kontrol hori 5.900 inguru industria-jarduerak jasango dute.

Hirigintza, poluituta egon daitezkeen lurzoria berreskuratzeke katalizatzaile gisa


Berariazko legedirik gabe, hirigintzako garapena izan da **lurzoria poluituak zituzten lurretan esku hartzeko bultzatzaile nagusia**. Adibide gisa, 2. taulan 2003 eta 2004 denboraldian ikerketak zein arrazoik sustatu zituzten erakusten du. Taulan ikus daitekeenez, hirigintza-planeamendua —kasurik gehienetan industria-erabileratik bizitegi-erabilerara aldatzea— izan da azalera osoaren % 50ean ikerketarako jatorri zuzena. 1998-2005ean, ehuneko hori % 58koa izan da.

Ikerketarako arrazoa	(%)
Jarduera desegitea	7,6
Jarduera abiatzeko baimena (jarduera-lizentzia)	5,1
Ingurumen-inpaktuaren ikerketa	1,0
Beste administrazio-ekimenak (istripuak, etab.)	2,8
Beste arrazoiak (salerosketa prozedurak, borondatezko ekimena, etab.)	33,2
Hirigintza-planeamendua /erabilera aldatzea	50,2

4. taula: Poluituta egon daitezkeen lurzoruetan, 2003an eta 2004an egindako ikerketen arrazoi nagusiak, ikertutako azaleraren ehunenekotan adierazita.

*Euskal Autonomia Erkidegoko lurzoria polui dezaketen jarduerak dituzten lekuen inbentarioko datuak udal-planeamenduarekin eta lurraldeko plan partzialetan (LPP) eta lurraldeko plan sektorialetan (LPS) proposatutako hirigintza-ekintzekin gurutzatzeak erakusten du, datozen urteetan, **hirigintzaren garapenak lurzoru poluituak berreskuratzeko politikaren oinarrizko elementu izaten jarraituko duela**, betiere gai horretako organo eskudunek, batez ere udalek, ingurune horretan esku-hartzea eskatzen duten ekintza guztietan lurzoruaren babesa sartzen badute.*

Azterketa horren emaitza dira 16. irudian agertzen diren datuak. Datuok erakusten dute datozen urteetan Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurralde historikoetan eta, batez ere, hiriburuetan eta euren influentzia-eremuetan, **poluituta egon daitezkeen lurzoruetan hirigintza-garapen berriak** egingo dela



16. irudia : Hirigintzak¹⁹ berreskuratzeko sustatuko duen poluituta egon daitezkeen lekuen eta azaleraren ehunekoa.

¹⁹ Esparru funtzional bakoitzean, **datozen 15 urteetan**, era bateko edo besteko hirigintzako esku-hartzea izango duten inbentariatutako lursailetatik poluituta egon daitezkeen kokalekuen (K) eta azaleraren (A) portzentajea. Datu

Euskal Autonomia Erkidegoko ikuspegi orokorretik, **poluituta egon daitekeen lurzoruaren azalera osoaren % 51n** (4.023 hektarea, hau da, Euskal Autonomia Erkidegoko planifikatutako azalera osoaren % 10 inguru) eta poluituta egon daitezkeen leku-kopuruaren % 26an daude **planifikatuta hirigintza-jarduerak**.

Aipagarria da, gainera, gune erabilgarri batzuetan (Laudio, Bilbo Metropolitarra, Donostia, Zarautz-Azkoitia eta Eibar), **poluituta egon daitekeen lurzoruaren % 40 baino gehiagoan eragingo dutela hirigintza-garapeneko proiektuek**.

Plana indarrean egongo den denboraldian, 2007-2012, hirigintza-proiektuetarako erabiliko den poluituta egon daitekeen azalera kalkulatzeko, datozen hamar urteetarako, UDALPLANen jasota dauden hirigintzako planeamendu-arauetan aurreikusten den **lurzoruaren okupazioaren handitzea** hartu da kontuan. "Joerazko agertokia" deitu zaio horri. "Joerazko agertokia" UDALPLANen bizitegiatarako edo industria-erabilerarako aurreikusten den poluituta egon daitekeen lurzoruaren okupazioari buruzko datuak kontuan izanda eta sistema orokorrean erabiltzeko (garraioak eta komunikazioak, ekipamenduak eta eremu libreak) % 10 okupatuko dela kalkulatuta eraiki da.

"Joerazko agertoki" hori kontuan izanda, datozen 10 urteetan, 834 lurzoru-hektareatan egin beharko lirateke kalitate- eta/edo berreskuratze-ikerketak. Plan honen iraunaldia kontuan izanda, 500 hektareatan ekin beharko litzateke ikerketa- eta/edo berreskuratze-ekintzei, hau da, hirigintzak eragiten duen erabat poluituta dagoen azaleraren % 12,5ean.

Bigarren eszenategi bat definitu da poluituta egon daitezkeen lurzoruaren ekintzak egiteko beharrezko diren izapideak errazteak —horretan ari dira gaur egun— UDALPLANen aurreikusitako lurzoruaren okupazioaren erritmoak bizkortzea eta erabilera guztietan (bizitegietan, industrian eta sistema orokorretan) eskaera igotzea ekarriko duela suposatuz. Hori "plan-agertokia" litzateke eta, datozen 10 urteetan, poluituta egon daitezkeen 1.072 hektarea erabiliko dela estimatzen du; hau da, plana indarrean egongo den denboraldian 640 ha inguru, planeamenduak eragiten duen poluituta egon daitekeen lurzoru guztiaren % 16.

Planeamenduari dagokion poluituta egon daitekeen lurzoruaren azalera (ha) (Iturria: lurzoruaren inbentarioa eta LPP/LPS)	Poluituta egon daitekeen azalera kalifikatua (ha) (Iturria: Lurzoruaren inbentarioa eta UDALPLAN)			Lurzoruaren okupazioaren handitzea (Iturria: UDALPLAN)		Planeamenduari dagokion poluituta egon daitekeen lurzoruaren eskaera (ha)		
				Joerazko A.	Plan A.	Joerazko A.	Plan A.	
4.023	Bizitegi-lurzorua	468	Hirikoa	349	10%	15%	36	52
			Urbanizagarria	112	65%	90%	73	101
			Urbanizaezina	7	7%	10%	1	1
	Industria-lurzorua	3.070	Hirikoa	2.730	16%	20%	435	546
			Urbanizagarria	327	72%	90%	236	294
			Urbanizaezina	13	35%	40%	5	5
	Eremu libreak		208	10%	15%	21	31	
	Ekipamenduak		152	10%	15%	15	23	
Garraioa eta komunikazioak		125	10%	15%	12	19		
						834	1.072	

5. taula: Hirigintzako planeamenduak eragiten dion poluituta egon daitekeen lurzoruaren eskaera. Joerazko agertokia eta plan-agertokia

horiek kalkulatzeko, EAEko polui dezaketen jarduerak dituzten lekuen inbentarioa eta Lurralde Plan Partzialak eta Lurralde Plan Sektorialak (gaur egun, lanketa- eta onarpen-egoera fase desberdinetan) gainjarri dira.

1/2005 Legea indarrean sartu zenetik, erabilera-aldaketek lurzoruaren kalitatea deklaratzeko prozedura abiatzea exijitzen da. Datozen urteetan erabilera-aldaketen joerak berdin jarraitzen badu, arrazoi horregatik egingo diren lurzoru poluituen ikerketak nabarmen ugartzea espero daiteke. Gainera, ikerketa-kopurua are gehiago ugartuko da deklarazio-prozedura abiatuko duten gainerako kasuekin. Begi-bistako ondorio nabarmenena lurzoru poluituen kudeaketarako sistema antolatu beharra da. Hirigintzako planek gero eta eskaera gehiago jarriko dute mahai gainean eta sistemak eskaerei aurrea hartu beharko die. Eskura dauden gaitasun publikoak eta pribatuak ahalik eta gehien eta nahikoa aurreikuspenekin baliatu beharko dira, horrela, hirigintza-garapena ez mantsotzeko eta, ondorioz, ezta lurzoru poluituen berreskuratzea ere.

➡ Hirigintza izan da, aurreko urteetan, Euskal Autonomia Erkidegoan egin diren ikerketen % 58ren eragilea.

➡ Datozen urteetan, hirigintzak lurzoru poluituak berreskuratzeko funtsezko aldagai izaten jarraituko du. Euskal Autonomia Erkidegoan poluituta egon daitezkeen lurzoruen % 51n daude hirigintza-jarduerak planifikatuta.

➡ Hirigintzak ekarriko dituen eskaerei (ikerketetakoak zein garapen berriek eta erabilera-aldaketek sustatutako dituzten deskontaminazioetakoak) era ordenatuan erantzuteko beharrak lurzoruaren kudeaketa-sistema optimizatzea eskatzen dute:

Hirigintzaren garapena eta horren ondorio diren lurzoruaren berreskuratzeak ez mantsotzeko.


Hondeatutako materialen kudeaketa ezegokiak lurzoruaren kalitatearentzat kontrako efektuak izatea saihesteko

Poluituta egon daitezkeen lurzoruak erabilera berrietarako baliatzea, horrela, lurzoruak zigilatzeke iraganeko joera aldatzeko.

➡ Hirigintzak indar eragile gisa jardungo ez duen lekuetan eta, gainera, 1/2005 Legeak lurzoruaren kalitatearen deklarazio-prozedura exijitzen ez duenetan, administrazio publikoaren bultzada proaktiboa beharrezkoa izango da.

Ingurumen-kontzientzia

Indar eragile horietako bakoitzak presioak sortu eta lurzoruaren kalitatea hondatzeko duen gaitasuna, aztertzen diren erreferentzia-eremuaren arabera da. Adibidez, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-organoak, 2000 eta 2004 bitartean egindako ekobarometro sozialak eta industrialak erakusten duten **ingurumen-kontzientzia handitu** dela, eta horrek adierazten du euskal eragile ekonomikoek eta sozialek ingurumen-sentsibilitate handiagoa dutela. Dudarik gabe, hori da, legedia garatzearekin batera, enpresek lurzoruaren poluzioarekiko errespetagarriagoa den jarduera izatearen eta zentzu berean doan jendarte osoaren exijentzia handitzearen arrazoia.



6. taula: EAEko enpresen ingurumenarekiko sentsibilizazio-maila

Era horretan, **ingurumen-kontzientzia sentsibilizatu eta handitzeko** jarduera publikoak eta pribatuak lurzorua poluziotik prebenitzeko eta, oro har, lurzoru poluituen politikaren oinarritzko elementuak dira.

5.2 LURZORUA BABESTEKO POLITIKAREN ERRONKAK

Egoeraren diagnostikoak ondorio batzuk ateratzeko balio izan du. Hain zuzen, lurzorua poluziotik babesteko politikak datozen urteetan bere egin beharko dituen erronketan islatzen dira ondorio horiek.

Lurzorua babesteko berariazko araudiaren eta sektorekako bestelako arautzeen bidez lurzoruaren kalitatearen aldaketa prebenitzea

- Lege-aurrerapenez (1/2005 Legea), erregulazio- eta inspezio-prozedurez, enpresen ingurumen-kudeaketan emandako aurrerapausoez eta ardura sozialaz baliatzea substantzia poluitzaileak isurtzea eragin dezaketen jardunbide ezegokiak saihesteko. "Poluitzen duenak ordaintzen du" printzipioa aplikatzeko eta lurzorua babesteko jardunbide eraginkorrenak hartzeak lurzoru poluitu berriak agertzea prebenitzen lagunduko dute.
- Lurzoruaren egoera honda dezaketen eta ekosistemetan eta giza osasunean eragin dezaketen istripu edo jardunbide txarrak izateko aukera kontuan hartuta, kontingentzia-planak ezartzea sustatzea.

Eragileen ekimenak sustatzea sentsibilizazioaren, informazioaren eta prestakuntzaren bidez.

- Eragile politiko, sozial eta enpresarial guztiak sentsibilizatzea lurzorua poluziotik babesteko zeregin konplexuarekin bat egin dezaten.
- Lurzoruaren kudeaketaren arduradun diren eragile publikoak (udalak, foru-aldundiak, Eusko Jaurlaritzaren zenbait sail) trebatu, gaitu eta baliabideak ematea, haien eskuduntzak erabiltzean (planeamendua, ordenamendu, baimen emateak), ingurune horren aldaketei buruz eskura dagoen informazioa behar

bezala erabil dezaten.

- Lurzorua polui dezaketen jardueretan dabiltzan eragile pribatuak ingurune hori babesteko beharren eta indarrean dauden araudiek ezartzen dituzten betebeharren inguruan trebatu, sentsibilizatu eta kontzientziaztea.
- Biztanleria arlo horretan informatu eta trebatzea, hala, jardunbide egokiak hartzea eta, beharrezko den kasuetan, erabaki-prozesuetan parte hartzea sustatzeko.

Lurzorua poluziotik babesteko interesa duten parte publiko nahiz pribatuen arteko sinergiak baliatzea.

- Substantzia poluitzaileen presentziagatik hondatuta dauden lurzoruen detekzioarekin, tratamenduarekin eta erabilpen berriarekin lotutako zeregin guztietan ekimen pribatua mobilizatzea.
- Eragile pribatuen parte-hartzea motibatzea eta, horretarako, lan koordinatua eta sarekoa sustatzea.
- Eragile publikoen eta pribatuen arteko hitzarmenak eta lan bateratua sustatzea.
- Lurzoru poluituaren kudeaketaren eta tratamenduaren inguruan sortzen diren jarduera ekonomikoak dinamizatzen eta aukerak baliatzen laguntzea.

Ingurumen- eta hirigintza-ekimenak koordinatzea

- Hirigintza-planifikazioaren eta poluzioagatik kalitatea hondatuta duten lurzoruen kudeaketaren artean dauden sinergiak baliatzea giza osasunarentzako eta ekosistementzako arriskuak gutxitzeko.
- Lurzoruaren ikerketaren eta deskontaminazioaren inguruan hirigintzatik sortuko diren etorkizuneko eskariei erantzun eraginkor eta ordenatua ematea, poluituta egon daitekeen edo dagoen lurzoruaren kudeaketa planifikazioarekin eta erabileren garapenarekin batera egiteko.
- Hirigintza-planeamenduko arauetan lurzorua berriz erabiltzeko irizpideak sartzea, eta jadanik erabili izan diren lurren erabilera lehenestea lurzoru naturalen ordeaz. Horrela, lurzoruen garbiketa bizkortzeaz gain, lurzoruaren artifizializazioa kontrolatzen laguntzen da.
- Hirigintza-garapenik aurreikusi ez zaien eta poluituta egon daitezkeen 553 hektareetarako, lurzoruko ezaugarrietara egokitzen diren erabilerak esleitzea. Horretarako, Administrazio Publikoaren jarrera proaktiboa beharko da eragile pribatuak mobilizatzeko zereginetan.

Euskal Autonomia Erkidegoko lan-talde espezializatuen ikerketa-potentzialaz baliatuz, lan-tresna eta -lanabesak garatzea.

- Industria-jarduera handiaren ondorio den poluzio lausoaren garrantzian sakontzea.
- Giza osasunarentzako eta ekosistementzako arriskua neurtzeko metodologiaren ikerketan aurrerapausoak ematea.
- Euskal Autonomia Erkidegoan ohikoenak diren poluzio-motetan aplikazio espezifikoak duten teknologia berrien garapenean sakontzea.
- Substantzia poluitzaileen kontzentrazio baxuak dituzten materialak ingurumen-ikuspegitik exijentzia gutxiko erabileretan berriz erabiltzeko prozedura garatzea.

Lurzoruaren kalitatearen egoeraren kudeaketa eraginkorra eta errealista ahalbidetzen duten tresna berriak identifikatu eta martxan jartzea.


- Tresna ekonomiko berritzaileak diseinatzea, sektore pribatuak baliabideak eta behar besteko gaitasuna ekar ditzan deskontaminazioa eta leku poluituen berrerabilera arrakastatsuak izateko,
- Kalitatea aldatuta duten lurzoruen kudeaketarako eta tratamendurako azpiegituren eraikuntza sustatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko problematikari erantzuteko.
- Hondeatutako materialak egoki kudeatuz, eraikuntza-proiektuen ondorioz

mugitutako lurzoruek lurzoru gehiago poluitzea saihestea.

- Teknologia onenak arrazoizko kostuetan eskura jartzeko ahalegina egitea, lurzoru poluituaren tratamenduan teknologia aurreratuenen erabilera sustatzeko, batez ere, lekuan bertan.

6 Lurzorua poluziotik babesteko politikaren oinarriak eta helburuak

Lurzorua poluziotik babesteko politika koherente eta eraginkorra izateko, **balioak** (ildo estrategikoak eta irizpide orokorrak) eta **oinarri estrategiko** sendoa (ikuspegia edo azken helburua, kondizio sozioekonomikoak eta helburu estrategikoak) ezarri behar dira, proposatutako ekintzek bilatzen diren emaitzak lor ditzaten (ikus **6-1 irudia**).



17. irudia: Balioak, ikuspegia, baldintzak eta azken helburuak


Plan honen oinarriko filosofia balioek osatzen dute, eta lurzorua poluziotik babesteko politikaren eta haren ondorengo garapenaren oinarri dira. Balioek gidatzen dute, gainera, oinarri estrategiko horren funtsezko elementuen definizioa, hau da:

- Planaren **ikuspegia** edo azken helburua.
- Plana garatzeko eta azken helburua lortzeko arlo sozioekonomiko egokiena zehazten duten **baldintzak**.
- Ikuspegiarantz bideratzen duten **helburu estrategikoak**.

6.1 PRINTZIPIOAK ETA ILDO ESTRATEGIKOAK

Planaren esparru estrategikoa egitea eta garatzea hainbat **printzipio** orokorrek eta **ildo** estrategikok gidatu dute. Irizpide eta ildo horiek bat datoz Euskal Autonomia Erkidegoko garapen iraunkorrerako politika orokorrarekin, 1994ko **Euskal Autonomia Erkidegoko lurzorua babesteko plan zuzentzailearen proposamenean** emandako aurrerapausoekin eta **Euskal Autonomia Erkidegoko lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legearekin**.

Balio horiek (ikus **6-2 irudia**) lurzorua poluziotik babesteko politika zuzenduko duten irizpideak definitzen dituzte. Irizpideok programetan, ekintza-lerroetan eta ekimen zehatzetan islatzen dira.



18. irudia: Lurzoruen euskal politikaren balioak

Ildo estrategikoak

Lurzorua poluziotik babesteko Euskal Autonomia Erkidegoko politika jarraian laburbiltzen diren ildoetan oinarritzen da.

1. Politika proaktibo eta epe luzerakoa

Prebentzian nabarmen aurrera egin eta gaur egungo berreskuratze-erritmoak bizkortu nahi dituen lurzorua poluziotik babesteko politikak proaktiboa izan behar du, eta merkatuaren beharrei aurre hartu eta bere behar propioak sortu behar ditu.

Lurzorua babesteko arloan izandako esperientziak erakusten du lurzoruak berreskuratze-erritmoa bizkortu nahi duen politikak aldaketak sartu beharko dituela. Horren jakitun, plan honek politika **proaktibo** eta **epe luzerakoaren** alde egiten du:

- **Merkatuko beharrei** era eraginkorren erantzungo diona.
- Ingurumenaren edo gizartearen ikuspegitik interesen bat duen baina hirigintzak epe laburrean edo ertainean bertan esku-hartzea aurreikusi ez duen guneak berreskuratzea **sustatuko** duena.
- Modu jarraituan bete ahal izango diren **helburu errealistak baina asmo handikoak** markatuko dituena.

2. Politika bateratua, koordinatua eta eragile guztiek sarean lan egitea sustatzen duena

Lurzoruaren erabilera arduratsua, gaian eskumenak dituzten euskal instituzio guztien arteko zeregin konpartitua eta zeharkakoa da. Guztien arteko ekintza koordinatua da eragile pribatuak erabakiak hartzera eta konponbideak bilatzera bultzatuko dituzten ekintza sendoak eta sinesgarriak ezartzeko modu bakarra.

Iraunkortasuna, eta, ondorioz, lurzoruaren kudeaketa, gai asko barne biltzen dituen zeharkako kontzeptua da. Horregatik, plana helburu argi hauekin sortu da:

- Lurzoruaren kudeaketan zerikusia duten eragile publikoen eta pribatuen **ekintza koordinatua** sustatzea.
- **Politika bateratuen artikulazioan** aurreratzea, abian jarritako ekintzek arlo guztietan —ingurumenean, arlo ekonomikoan eta arlo sozialean— duten eragina kontuan har dezaten.

3. Merkatuak eskaintzen dituen aukerak baliatzen dituen politika

Lurzorua poluziotik babesteko politikak baliabide asko mobilizatzea eskatzen du, are gehiago 1/2005 Legea onartu ostean. Egoera horretaz jakitun, plan honek, gaian aitzindari diren Europako herrialde gehienek bezala, merkatuko indarrak, esku-hartze publiko/pribatuak eta hirigintzak eskaintzen dituen aukerak baliatzeko apustua egiten du.

Planak **merkatuaren** gaitasunaren eta **kooperazio publiko-pribatuaren** aldeko apustua egiten du, baliabide berriak sortzeko eta merkatuko indarrek lurzorua babestearen alde jardun dezaten sustatzeko. Interes pribatua poluitutako lurzoruen berreskuratzaera egoki bideratuta, bizkorrago eta era deszentralizatuagoan garbituko da lurzorua.

Hirigintzaren presioa lurzorua berreskuratzeko planifikazioan eskumenak dituzten instituzioen —batez ere udalen— esku dagoen tresna da. Azken urteetako lurzoru-eskaera handia dela eta, eremuak bizkor eta autofinantzaketaren bidez berreskuratu dira. Ildo horretan aurrera egiten jarraitzeko aukera handiak daude, betiere eskumenak dituzten organoen eta ingurumena zaintzeko ardura dutenen lana bateratuta.

Bestalde, **kolaborazio publiko-pribatuan** oinarritutako tresna ekonomikoak diseinatzeak eta abian jartzeak interesak batzea ekarriko du. Izan ere, lurzoru poluituak berreskuratzeko finantziazioa errazteko, alderdi bakoitzak ekarpenak egiteko dituen aukerak erabiliko dira.

4. Pragmatikoa, dinamikoa eta inguruneko aldaketei adi dagoen politika

Lurzorua babesteko oinarrizko printzipioek, laurogeita hamarrek hamarkadaren hasieran formulatu zirenek, Euskal Autonomia Erkidegoko politikaren etorkizuna zuzentzen jarraitzen dute, eta kasu bakoitzaren ezaugarri berezietara egokitutako konponbideak diseinatzea ahalbidetuko duten mekanismo malguagoen bidez gauzatuko dira.

1994an plan zuzentzailearen proposamena eratu zenetik eskuratutako esperientziari eta herrialde aurrerakoienetan diseinatutako politikei egindako hurbileko jarraipenari esker, *Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoru Poluituen 2007-2012 planaren* ekintza-proposamen guztiak ikuspegi praktikotik lantzeko ahalegina egin da.

Lurzorua poluziotik babesteko oinarrizko printzipioak mantendu egin dira, eta, gainera, orain dela gutxi onartutako Europako Batasuneko politika-proposamenarekin bat datoz. Hala ere, printzipio horiek bermatzen dituzten mekanismoei malgutasun handiagoa eman zaie, eta, hala, “kasuz kasuko” azterketak egin daitezke; ondorioz, ingurumenaren errealitatetik eta errealitate ekonomiko eta sozialetik gertuago dagoen azterketa egin daiteke.

5. Politika parte-hartzailea

Eragile sozialek eta ekonomikoek planaren diseinuan eta bere politiken exekuzioan esku hartzeko gogo argiarekin sortu zen plana.

Plana arrakastatsua izateko, funtsezko elementua izan da eta izango da, dudarik gabe, **interesa duten eragile publiko nahiz pribatu guztiek** diseinu-prozesuan zein ondorengo exekuzioan **esku-hartze zuzena eta konprometitu** edukitzea. Lehen pauso gisa, planaren eratze-metodologiak prozesu parte-hartzailea jarraitu du, eta interesa duten parteei dokumentu estrategiko honen alderdi garrantzitsuenei buruzko iritzi kualifikatua eskatu zaie. Prozesu parte-hartzailea *Planen eta programen ebaluazio estrategikoak* helburu hori lortzeko ezartzen dituen ekintzekin osatu da. Ondoren, eta orain arteko arau orokorrari jarraiki, gaiarekin zerikusia duten alderdi guztiei lurzorua babesteko politikaren aplikazioan diseinatzen diren tresna garrantzitsuenei buruzko iritzia eta adostasuna eskatuko zaie.

Printzipio orokorrak

Ildo horiez gain, lurzorua babesteko politika politika-jarduerarako oinarri gisa iraunkortasuna duten printzipio orokorren multzo batek zuzentzen du. Filosofia horrentzat, garapena hobekuntza soziala eta ingurumenekoa lortzeko bidea da, eta ez helburua; **garapen ekonomikoak garapen sozial eta ingurumeneko** bihurtuko dela bermatuko duten elementuz eta osagarritz osatua egon behar du. Horretarako, etorkizuneko belaunaldiek bitartekoak, ballabideak (naturalak, intelektualak eta ekonomikoak) eta azpiegiturak edukitzeko duten eskubidea kontuan hartu beharko da. Eskubide horrek aurrera egin eta pertsona gisa gauzatzeko, bizitza-maila duin eta egokia izateko eta zein mundutan bizi nahi duten erabakitze gaitasuna izateko balioko die.

Hori posible egiteko eta lurzoruaren erabilera iraunkorrean aurrera egiteko, planak jarraian laburbiltzen diren ingurumen-printzipioak eta printzipio ekonomiko eta sozialak hartzen ditu aintzat.

Ingurumen-printzipioak

- **Prebentzioa eta kontserbazioa.** Euskal Autonomia Erkidegoko lurzoruen funtzio naturalak kontserbatzeko eta ahalik eta erabilera-funtzio gehien mantentzeko asmo garbiarekin sortu da plana. Era berean, ahal den neurrian, ingurune hori gehiago ez artifizialtzeko helburua ere ezartzen du.
- **Bateragarritasuna edo funtzionalitatea.** **1/2005** Legean ezarritako aginduak jarraituz, iraganean poluitutako lurzoruak **emango zaien erabilerekin bateragarriak diren mailaraino berreskuratzeko** beharra ezartzen du planak. Arlo horretako erabakiak "arriskuan oinarritutako lurzoruaren kudeaketa" (RBLM) irizpidean oinarritzen dira, eta aintzat hartzen dituzte ingurumen-arloko, arlo ekonomikoko eta sozialeko irizpideak.
- **Ardura eta arreta.** Lursail batean, iraganean edo gaur egun, lurzorua polui dezakeen jardueraren bat gauzatu izana, nahikoa izango da 1/2005 Legeak exijitzen duen kasuetan lurzoruaren kalitatea deklaratzeko prozedura abian

jartzeko.

- **Hurbiltasuna eta autosufizientzia.** Planak aurreikusten du Euskal Autonomia Erkidegoak **bere lurraldean bertan** kudeatzea substantzia poluitzaileek eragindako lurzoru-kantitate handiena; horretarako, saneamendurako azpiegiturak eraikitzea, arriskuen kudeaketa eta lurzoruak berrerabiltzeko mekanismoak sustatuko ditu.

Printzipio ekonomikoak

- **“Poluitzen duenak ordaintzen du”.** **Sozialki** justua eta Europako Batasunak agindutako irizpideekin bat datorren **politika** bermatzeko, lurzoruen politikak, ahal den guztietan, **“poluitzen duenak ordaintzen du”** irizpidea aplikatuko du. Hau da, hasieran, poluzioa eragin dutenei esleituko die berreskuratze-kostuak beren gain hartzea.
- **Eskura dauden teknologiarik onenak erabiltzea arrazoizko** . Kasu bakoitzean hartu behar diren neurrien kostuak kalteak eragiten duen arriskuarekiko proportzionala izan behar du. Horretarako, teknika onena aukeratu beharko da. Teknika onenentzat jotzen da arriskua kostu onargarrian gutxitzea ahalbidetzen duena eta ingurumen- eta gizarte-aldagaiak aintzat hartzen dituen.
- **Kostua/eraginkortasuna binomioaren optimizazioa.** Administrazioak sustatutako ekintzak lehentasunak aztertzeko sistema baten bidez zuzenduko dira, zeinak, arriskuen garrantziarekin batera, neurrien eraginkortasuna ikuspegi ekonomikotik hartuko baitute aintzat.
- **Erabilera produktiboak ematea.** Beste printzipio batzuk, batez ere, “poluitzen duenak ordaintzen du”, eta ingurumen- eta hirigintza-legediak ezartzen dituzten mugak ahaztu gabe, lurzoru poluituei berreskuratze-ekintzen kostuak bere gain har ditzakeen erabilerak emango zaizkie.
- **Soluzio osoak sustatzea.** Posible den neurrian, lurzoru poluitu bati erabilera bat ematen zaionean, **ingurumen-irtenbidea** hirigintza-kudeaketaren parte den **lurzoru osorako** eskatuko da.

Printzipio sozialak

- *Garapen iraunkorrerako euskal estrategiak* ezartzen duen bezala, **lurzoru garbiaz gozatzeko eskubidea**, giza osasunarentzat edo ekosistementzat arriskurik gabe. Planak abian jarriko ditu lurzoruaren kalitate egokia mantentzeko eta kalitatea hondatuta duten lurzoruak ahalik eta egokien erabiltzeko neurriak. Arrisku onartezina duten lekuen garbiketa eskatuko du.
- Prebentziorako zein saneamendurako edo bestelako neurriak hartu behar dituzten eragileen **autoardura**. Administrazioak eskura dituen zaintza-tresnak edo helburu zehatz horretarako eskura ditzakeenak erabili ala ez, ardurak beren gain hartu behar dituzten eragileen borondate ona onartu egingo da.
- **Gardentasuna eta parte-hartzea.** Informazioa era erraz eta gardenean interesa duen ororen esku jartzeko mekanismoak jarriko ditu planak. Helburuak izango dira lurzoruaren kalitateari buruzko ezjakintasunak sortzen duen zalantza gutxitzea eta erabakiak hartzeko prozesuan parte hartzea sustatzea. Hasieran, lurzoruaren eskubideen transmisioan eta giza

osasunarentzat eta ingurumenarentzat onargarriak ez diren arriskuak identifikatzen diren kasuetako gardentasun horretan oinarritutako parte-hartzean informazioaren gardentasuna bermatzeko tresna egokienak garatzen zentratuko da plana.

- **Lurzoruaren kalitatearen zaintza eta ezagutza.** Lurzorua —jabetza pribatuaren mendeko baliabidea— komunitaterako zaindu beharreko ondasun gisa errazago babesteko, *Euskal Autonomia Erkidegoko lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko 1/2005 Legeak* **lurzoruaren babes juridikoa** jabetza-eskubidearen eduki normalen parte gisa eta jabetzan dauden gainerako ondasun gisa **taxutu du**. Horrek esan nahi du lurzoruaren jabetzaren baitan, espazio-alderdiez gain, ezaugarri fisikoak, kimikoak eta biologikoak ere badaudela, eta, hortaz, jabearen zaintza-ardura eta ezagutza alderdi horietara hedatzen dela.

6.2 IKUSPEGIA: INPAKTU TXIKIENA ZIURTATUKO DUEN LURZORUAREN KUDEAKETA

Garapen iraunkorraren euskal ingurumen-estrategiarekin (2002-2020) bat, Euskal Autonomia Erkidegoko lurzoru poluituen 2007-2012 planaren ikuspegia “**legedi berrira** egokitutako sistema sozioekonomikoaren esparruan **lurzoruaren kudeaketa onena** lortzea da. Kudeaketa horrek poluzioa **prebenitu** eta —iraganeko, oraingo eta etorkizuneko giza jardueren ondoriozkoa— lurzoruaren kalitatea **hondatzeak** eta giza osasunean eta ekosistemen funtzionamenduan izan ditzakeen **eraginak ahalik eta txikienak** izatea ziurtatuko du”.


Asmo handiko ikuspegia da, ondorengo **baldintzak** beteko diren garapen sozioekonomikorako esparrua lortzeko ahalegin ziurrak eskatzen baititu:

- **Berariazko arauak** garatzea eta lurzorua babesteko irizpideak arlo horretan eragiten duten beste sektorekako arau eta politika batzuetan era eraginkorrean sartzea.
- **Administrazio Publiko aktiboa** izatea, planaren kudeaketa eraginkorra eta koordinatua aurrera eramateko beharrezko baldintzak sortuko dituena.
- Lurzorua poluziotik babesteko zereginetan zerikusia duten **eragile publikoak eta pribatuak** konponbide eraginkorrenak bilatzeko eta aplikatzeko prest egotea.
- **Merkatuko eta hirigintzako tresnak** lurzoruak berreskuratzeko eta berriz erabiltzeko eragile gisa baliatzea.
- Euskal Autonomia Erkidegoko ezaugarri berezietara egokitutako **jakintza zientifikoa, teknikoa eta metodologikoa** **sortzeko, transferitzeko eta barneratzeko** gaitasuna garatzea.
- **Jardunbide-ereduak aldatzeko** mekanismoak edukitzea, lurzoruaren kalitatea hondatu dezaketenek ingurumen-kontzientzia handitu dezaten eta ingurune hori eta bere balizko poluzioa erabaki-aldagai izan daitezen.

6.3 HELBURU ESTRATEGIKOAK: IKUSPEGIRA GERTURATZEN DUTEN FAKTOREAK

Ikuspegia **lau helburu estrategikotan** zehazten da. Helburuak gaur egungo egoeraren azterketatik, lurzoruen politikan emandako aurrerapausoetatik eta esparru-arautik abiatzen dira. Helburu horien bultzadak indar-eragileengan eragitea, presioak eta eraginak gutxitzea eta lurzoria poluziotik babesteko kondizio eta tresna egokienak garatzea ekarriko du, eta ikuspegira gerturatu ahal izango da.

1. helburua. Lurzoruaren kalitatea hondatzea prebenitzea



Lurzoruak oso astiro erreakzionatzen du poluzioaren eraginaren aurrean. Horrela, denbora-alde handia egon daiteke jarduera poluitzaileek egiten duten presioaren eta inguruneagan sortzen dituzten kalteen artean. Ondorioz, erantzuna —beranduegi eman ohi da—, beti da prebentzio-ekintza baino garestiagoa.

Jarduera poluitzaileek lurzoruan presiorik egin ez dezaten eta haren egoera hondatu ez dezaten, **lurzoria poluziotik babesteko politikaren lehen helburua prebentzioaren bidean nabarmen aurrera egitea izango da.**

Gaur egungo lege-esparruak helburu horri lotutako betebeharrak zehatzak sortu ditu, eta poluzioa prebenitu dezaketen kontrolak jartzea ahalbidetzen du. Prebentziorako politika eraginkorrak **legedi hori zorrotz aplikatzea** eskatzen du. Gainera, lurzoria polui dezaketen jardueren arduradunen **produkzio- eta jardunbide-ereduak aldatzea** ere eskatzen du, faktore hori enpresako erabakietan sartzeko.

Epe laburrean, legedia betearazteko beharrezko neurrietan eragingo da. Beharrezkoa izango da, gainera, poluitzaileak lurzorura heltzea oztopatzen duten teknologien ezagutzan eta aplikazioan aurrerapausoak ematea. Hala ere, **epe ertain luzean**, ahalegin handienak lurzoria polui dezaketen jarduerak dituzten eragileen **ingurumen-kontzientzia** handitzera bideratuko dira.


Helburu hori lortzeko, jardunbide-ereduetan eragingo duten **epe ertain eta luzerako programak eta ekintzak jarriko dira martxan**. Jardunbideak aldatzeko, hauek egingo dira:

- Lurzoria **gehien errespetatzen duten produkzio-motak eta jardunbideak sustatzea.**
- **Prebentzioan zerikusia duten eragileei** lurzoruaren kalitatea hondatzea prebenitzeko eta zuzentzeko dituzten betebeharrak legalei buruzko eta poluzioak ingurumenean eta gizartean dituen eraginei buruzko **informazioa egituratzea**. Substantzia poluitzaileek giza osasunean eta ingurumenean eta lurzoruaren balioan dituzten eraginak izango dira ekintza horren argumentu nagusiak.
- **Eragile horiei prestakuntza ematea** eraikinen diseinuan eta arduradun


diren operazioetan erabaki egokienak har ditzaten.

Sentsibilitate-aldaketak epe ertainera edo luzera soilik lor daitezkeenez, kontzientziazio-, informazio- eta prestakuntza-ekimenak alde batera utzi gabe, **epe laburrean** norabide hauetara joko da:

- Prebentzioari dagokionez, *1/2005 Legeak* ezarritako arau-esparru berriko eskakizunak betearazteko **organizazio-egitura sortzea**
- Sektorekako **beste araudi batzuen** bidez lurzorua babesteko ezarritako neurrien **jarraipena indartzea**



2. helburua. Lurzoru poluituen arrazoizko berreskuratzea sustatzea



*Lurzorua polui dezaketen jarduerak dituzten lurzoruen inbentarioarekin bat, Euskal Autonomia Erkidegoko azalera erabilgarriaren % 16,5ak substantzia poluitzaileen presentziaren eraginez kalitatea era batera edo bestera hondatua izan dezake. Ondorioz, **Planaren helburu estrategikoetako bat poluituta egon daitezkeen lurzoruak erarik egokienean berreskuratzea da.***

Hirigintza izan da iraganean lurzoru poluituak **berreskuratze**ko eragile **nagusia**. Euskal Autonomia Erkidegoan gertatzen ari den hiri-berrikuntza lasterraren ondorioz, gaiaren inguruko **legediarekin** eta **giza osasuna eta ekosistemen funtzionamendua bermatzeko** beharrenekin **batera, etorkizunean ere**, aldagai hori izango da helburu estrategiko horretarako bultzada nagusietako bat.

Lurzoru poluituen **gaur egungo berreskuratze-joerak bizkortzeko**, hirigintzak eskaintzen dituen aukerez baliatu beharko du planak, eta **garapenerako proiektuak mantsotzea saihestuko duten konponbide egokiak ekarri**

beharko ditu oinarrizko printzipioak mantenduz. Horrela, hirigintza ez da gehiago mehatxu izango, baizik lurzoru urria duen lurraldean berreskuratze-erritmoak bizkortzeko eta, aldi berean, lurzoruaren artifizializazio-tasa gutxitzen lagunduko duen aukera.

Oro har, eta, batez ere, lurzoruaren poluzio historikoko kasuetan, **arriskuan oinarritutako lurzoruaren kudeaketa** (*RBLM, risk based land management*) kontzeptuak zuzenduko du lurzoria berreskuratzeko estrategia. Estrategia malgutu egin beharko da, "kasuan kasuko" emaitza eraginkorrenak lortzeko. Ingurumen-aldagaiak, ekonomikoak eta sozialak biltzen dituen kontzeptu horretan oinarrituta, planifikazio-prozesuan eta hirigintza-exekuzioan eragin beharko da, lurzoruaren poluzioa ahaztu gabe erabilera orokor zein zehatzak banatzeko. Era horretako hurbilketak arriskua nabarmen gutxitzea ekarriko du, eta, ondorioz, baliabideen optimizazioa.


Lurzoru poluituak berreskuratzeko erritmoa behar beste bizkortu dadin, **plan honetan sartu diren programek norabide hauek landuko dituzte:**

- Lurzoruaren kalitatea deklaratzeko prozedurak erabakitzeari dagokionez, **administrazioaren eraginkortasuna** hobetzea.
- Berariazko akreditazio-sistema baten bidez **behar besteko eskaintza kualifikatua** sortzea, merkatuak lurzoria ikertzearen eta berreskuratzearen inguruan dituen beharrak aseko dituen kalitate oneko zerbitzua eskaintzeko.
- Abangoardiako **jakintza teknikoa eta zientifikoa** garatu, eskuratu eta egokitzea.
- **Arriskua kudeatzeko** estrategiak diseinatu eta **lurzoru poluituak kudeatzeko azpiegiturak eraikitzea**, hirigintzaren erritmoak eta lurzoruaren saneamenduarenak bat egin dezaten.
- Indarrean dagoen araudiarekin koherenteak diren **finantziario-tresnak** garatu eta martxan jartzea.

2. helburua. BERRESKURATU

- Beharrezkoa da egungo berreskuratze-erritmoak bizkortzea. Horretarako, hau sustatuko da:
 1. Administrazioaren eraginkortasuna eta koordinazioa hobetzea.
 2. Langile kualifikatuak prestatzea, merkatuaren beharrei zerbitzua eskaintzeko, eta jakintza tekniko eta zientifikoa eskuratzea.
 3. Lurzoru poluituetan eragiteko tresnak diseinatu eta martxan jartzea: kudeaketa-estrategiak, azpiegiturak eta tresna ekonomikoak.

3. helburua. Erabiltzen ez diren eta kalitatea hondatua duten lurzoruak erabilera berrietarako berriz erabiltzea



Hirigintza-planek aurreikusten dute Euskal Autonomia Erkidegoan **poluituta egon daitezkeen lurzorutzat inbentariatutako lurzoruetatik % 51tan** (4.025 ha) esku hartuko dela datozen 15 urteetan .

Planaren beste lehentasunetako bat izango da kalitatea hondatua duten lekuak, giza osasuna eta ingurumena babestea bermatuko duten erabilera berrietarako berriz erabiltzea.


Poluitutako lurzoruak berriz erabiltzeak berreskuratze-joerak bizkortuko ditu, eta aldi berean, oraindik esplotatu gabe dauden lurzoruen degradazioa saihestuko du. **Lurzoru horiek berriz erabiltzea** sustatzeko, ezaugarri hauek dituzten **ekimenak eta programak** abiatuko dira:

- Hirigintzako planeamenduan **ekintzak egitea aurreikusten den eta poluituta egon daitezkeen lurzoruak identifikatu beharko dituzte**, etorkizuneko garapenei aurrea hartzeko.
- **Lurralde-planifikazioko** estrategietan hondatutako lurzoruak **berriz erabiltzeko irizpidea sartuko dute**, eta prozesu horretan udaleko eta udalez gaindiko eragileak sartuko dituzte. Horretarako, lurzoruaren kudeaketan eskumenak dituzten organoek **koordinazio-lan** handia egin beharko dute.
- **Eragile publikoak eta pribatuak bultzatu beharko dituzte** lurzoru horiek erabilerara egokitzeko eta ondoren berriz erabiltzeko **eskura ditzaten**.

3. helburua. BERRIZ ERABILI

- Berriz erabiltzearen funtsezko helburua ustiari gabeko lurzoruen degradazioa saihestea da. Horretarako hau egin beharko da:
 1. Lurzoruaren erabilera banatzeko hirigintzak eskaintzen dituen aukerak baliatu, poluzioagatiko hondatze-maila kontuan hartuz.
 2. Erabilera berrietarako, poluzioak hondatutako lurzoruak eskuratzeko bultzatu.

4 helburua. Lurzoruak balorizatzea poluitzen ez duten eta balio erantsi altua duten erabilerekin




Poluituta egon daitezkeen leku asko hiri-eremuen inguruan eta **hirigintza-interesik ez duten eta egitura sozial, ekonomiko eta espazial urria duten** guneetan daude. Kalitatea hondatua eduki dezaketen eta epe laburrean eta ertainean jarduerarik aurreikusten ez zaien lurzoruak dira (gutxi gorabehera, inbentariatutako lekuen % 49), eta haiek berreskuratzeko pizgarriak administrazio publikoak sortu behar ditu.

Planaren beste helburuetako bat lurzoru horiek balorizatzea da, ahal denean, berreskuratzea finantzatzea ahalbidetuko duten balio erantsia duten erabilerak ezarriz. Helburu hori bultzatuz, lortuko da: (1) lurzoruak berreskuratzeko joerak bizkortzea, (2) esplotatu gabe dauden lurzoruen degradazioa saihestea, (3) berregituraketa soziala bultzatzea.

Kasu batzuetan, balio erantsi handia duten erabilerak ezartzeak saneamendua finantzatzea ahalbidetu lezake. Hala ere, kasurik gehienetan, leku horiek berreskuratzearen onurak ingurumen- edo gizarte-mailakoak dira soilik.

Leku horientzako erabilera berriak izendatzeko beharrezko hirigintzako planeamenduaz gain, helburu hori betetzeko, norabide hauetan zuzendutako ekintza-lerroak jarri beharko dira abian:


- Ekintzen plan sistematikoan **lehentasunak** ezartzea, giza osasunean edo ekosistemetan onartu ezin diren arriskuak daudela adierazten duten aztarna serioak dituzten lekuak **identifikatzeko**.
- Leku horien ezaugarrietara egokitutako **finantziario-tresnak** sortzea, merkatuak berak finantzatu dezan lurzoru horiek zirkuitu produktiboan sartzea.
- Posible den kasuetan, *a priori* hirigintza-interesik eduki ez arren, **ingurumen-arrazoiengatik edo sozialengatik** berreskuratzea justifikatzen den lekuak **merkatuan jartzea bultzatzea**.



7 EKINTZA-PLANA

Lurzorua poluzioaren aurka babesteko Euskal Autonomia Erkidegoko politikaren helburuak planteatutakoan, arazo horren egoera IPEIE (indar eragileak – presioak – egoera – inpaktua – erantzunak) ereduaren bidez aztertutakoan eta gure inguruko herrialdeetan dauden kudeaketa-tresnak eta lege-esparru berritik eratortzen diren beharrak baloratutakoan, 2007-2012ko Lurzoru Poluituen Planak irismen handiko hiru programa proposatzen ditu lau helburu estrategikoak mobilizatzeko.

- **1. PROGRAMA. EZAGUTU.** Programa hau "jakintzaren kudeaketa" delakora zuzenduta dago hitzaren zentzurik zabalenean. Programa horretan ekintza-lerroak eta ekintza espezifikoak sartzen dira, eta horiek, batetik, Euskal Autonomia Erkidegoko lurzoruen kalitateari buruzko informazioa lortzearekin, eguneratzearekin eta kudeatzearekin lotuta egongo dira, bestetik, jakintza tekniko eta zientifikoa sortzearekin, eta, azkenik, jakintza hori sentsibilizazio-, informazio- eta prestakuntza-programen bidez jakinaraztearekin.
- **2. PROGRAMA. ERAGIN.** Bigarren programa honen helburuak izango dira diseinuan hobekuntzak bilatzea, araudia aplikatzea eta politiken integrazio handiagoa lortzea.
- **3. PROGRAMA. EKIN.** EKIN programak lau helburu estrategikoak lortzen modu praktikoagoan eta zuzenagoan laguntzen duten ekintza guztiak hartzen ditu bere baitan: prebenitzea, berreskuratzea, berriro erabiltzea eta balorizatzea.



19. irudia: Eragile estrategikoa

Hiru programen **edukia 2012raino** luzatzen da. Programa horiek bat datoz planean ezarritako oinarri eta konpromisoekin eta Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategiarekin. Horrez gain, diseinuan alderdi hauek hartu dira kontuan:

- **Lurzoruaren erabilera iraunkorra.** Lurzorua poluzioaren aurka babesteko politikak epe luzearako zehazten duen helburua hartzen dute barnean ekintza-lerroek eta ekintza espezifikoek. Helburu hori lurzoruaren erabilera iraunkorra bultzatzea da.
- **Irizpide arau-emaileak.** 1/2005 Legean eta arlo honetan indarrean dauden gainerako legeetan garatzen diren printzipio, betebeharrak eta prozedurei erantzuna ematen die eta haietara egokitzen dira. Aldi berean, etorkizuneko araudien garapen espezifiko berriak egiteko aukera aurreikusten dute.
- **Merkatu-ekonomiaren** funtzionamendua. Merkatuko indarrak erabiltzen dituzte poluitutako lurzoruak ikertzeko eta berreskuratzeko ekintzak bultzatzeko, eta, aldi berean, eragile guztiak sartzen dira erabakiak hartzeko eta irtenbideak bilatzeko prozesuetan.
- **Politiken integrazioa.** Lurzoruari eta haren kudeaketari eragin diezaioketen ekintzak egiten dituzten administrazioko maila ezberdinen integrazioa, lankidetzak eta koordinazioa sustatzeko diseinu-jarraibideak eta alderdiak sartzen dira programa guztietan.

Hurrengo koadroan, *2007-2012ko Lurzoru Poluituen Plan* honetan diseinatutako programak, ekintza-lerroak eta ekintza espezifikoak laburtzen dira. Alderdi horiek hurrengo ataletan azalduko dira. **II. eranskinean** xehetasunez azaltzen dira ekintza guztiak fitxa gisa.

1. PR. EZAGUTU: SENTSIBILIZAZIOA, INFORMAZIOA, PRESTAKUNTZA ETA IKERKETA	
1. EL. Lurzoruaren kalitateari buruzko informazioa biltzea, antolatzea eta kudeatzea	
	1.1.E Uneko beharretara egokitzea eta lurzoruaren kalitateari buruzko informazio-sistema kudeatzea
	1.2.E Lurzoruaren kalitateari buruzko informazio eguneratua edukitzea
2. EL. Jakintza sortzea	
	2.1.E Jakintza-alor anitzeko lantalde iraunkorrak sortzea hainbat diziplinatan
	2.2.E Zientzia eta teknologiari buruzko politika azpimarratzea jakintza sortzeko
3. EL. Sentsibilizazioa, informazioa eta prestakuntza	
	3.1.E Lurzoruaren poluzioarekin zerikusia duten funtsezko alderdien berri ematea eta haiek dibulгатzea
	3.2.E Lurzoruaren kudeaketan parte hartzen duten eragileen jakintza areagotzea
	3.3.E Parte hartzeko mekanismoak eratzea erabakiak hartzeko prozesuetan

2. PR. ERAGIN. ADMINISTRAZIO EGITURATUA	
4. EL. Ingurumen-organoaren ekintza optimizatzea eta lurzoru poluituei buruzko legeria aplikatzea	
	4.1.E Araudiaren aplikazioa eguneratzea, hobetzea eta sinplifikatzea, eta, horretarako, erantzuna ematea lurzoruaren kalitatea deklaratzeko prozedurari.
	4.2.E Araudia betetzen dela ziurtatzea
5. EL. Administrazio mailen artean lankidetzaren baldintza egokiak sortzea lurzoru poluituetan esku-hartzea aurreratzeko	
	5.1.E Lurzorua babesteari buruzko politika beste politika batzuetan sartzea
	5.2.E Interes-taldeen lankidetzaren baldintza egokiak sortzea lurzoru poluituetan esku-hartzea aurreratzeko
3. PR. EKIN: PREBENITZEA, BERRESKURATZEA, BERRIRO ERABILTZEA ETA BALORIZATZEA	
6. EL. Lurzoru poluitu gehiago sortzea PREBENITZEA	
	6.1.E Prebentzio-neurriak sustatzea administrazio-tresnen bidez
7. EL. Poluitutako kokalekuak BERRESKURATZEKO irtenbideak bilatzea	
	7.1.E Poluitutako lurzoruak berreskuratzeko/kudeatzeko azpiegituren sorrera sustatzea
	7.2.E Lurzoru poluituak berreskuratzea bultzatzen duten tresna ekonomikoak diseinatzea eta aplikatzea
	7.3.E Arrisku-kudeaketaren kontzeptua garatzea eta aplikatzea bere adiera aurreratuenetan
	7.4.E Berreskuratutako lurzoruak eta poluzioak eragindako kokalekuetan hondeatutako materialak berriro erabiltzeko irizpideak zehaztea
8. EL. Erabiltzen ez diren eta kalitatea aldatu gabe duten kokalekuak BERRIRO ERABILTZEA	
	8.1.E Lurzoruaren artifizialtzea murrizteko jarraibideak egitea eta neurriak identifikatzea
	8.2.E Hirigintza erabiltzea lurzoru poluituen berrerabiltzea eta berreskuratzea errazteko
9. EL. Aurreikusitako hirigintza-jarduerarik ez duten eta poluituta egon daitezkeen lurzoru kudeaketa - BALORIZATZEA	
	9.1.E Ekintza-estrategiak diseinatzea eta gauzatzea hirigintza-merkatutik kanpo dauden eta poluituta egon daitezkeen kokalekuetan

7. taula: Planean aurreikusitako programak, ekintza-lerroak eta ekintzak

7.1 EZAGUTU PROGRAMA

1. EL. Lurzoruaren kalitateari buruzko informazioa biltzea, antolatzea eta kudeatzea

Ekintza espezifikoak

1. PR	EZAGUTU: SENTSIBILIZAZIOA, INFORMAZIOA, PRESTAKUNTZA ETA IKERKETA
1. EL	LURZORUAREN KALITATEARI BURUZKO INFORMAZIOA BILTzea, ANTOLATZEA ETA KUDEATZEA
1.1.E	Uneko beharretara egokitzea eta lurzoruaren kalitateari buruzko informazio-sistema kudeatzea
1.2.E	Lurzoruaren kalitateari buruzko informazio eguneratua edukitzea

Deskribapena

Azken urteetan lurzoru poluzioaren aurka babesteko garatu diren ekintzek eta *Euskal Autonomia Erkidegoko lurzoru ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legearen* eta indarrean dauden gainerako legeen aplikazioak Euskal Autonomia Erkidegoko **lurzoruaren egoerari buruzko datu ugari biltzea** eragin du eta eragingo du etorkizunean. *Lurzoruaren poluitzaile izan daitezkeen*

jarduerak dituzten lurzoruen inbentarioa eta Lurzoruen erregistro administratiboa legeak sortu ditu erabilgarri dauden datu guztiak zentralizatzeko.

Ekintza-lerro honek bi helburu ditu: batetik, **datuak eguneratuta edukitzea** prozedura sistematiko baten bidez, eta, bestetik, **euskarri informatiko berria garatzea**, informazioa gordetzeaz gain, dokumentuak kudeatu, Erregistrora egindako kontsulten erantzunak ahal den neurrian automatizatu eta 1/2005 Legeak antolatzen dituen prozeduren segimendua erraztuko duena (prebentzioari eta berreskuratzeari dagokionez).

Helburu estrategikoekin bat etortzea

EZAGUTU programaren barruan dauden lerro guztiek bezalaxe, programak berak ere **helburu estrategikoak bultzatzen ditu zeharka**. Informazio zentralizatua erabilgarri egoteak, bai jabe, edukitzaile eta gainerako interesatuentzat, bai lurzorua kudeaketaren hainbat alderditan eskumenak dituzten administrazio guztientzat, lege-betebeharrak hobeto betetzeko aukera emango die lehenengoei, eta errealitatera hobeto egokitutako tresnak diseinatu eta arauak betetzen direla kontrolatu eta segimendua egiteko aukera bigarrenei.

Irismena

Substantzia poluitzaileak egoteagatik lurzorua kalitatea kaltetuta dagoen edo kalte daitekeen adierazten duten **datuak ematen dituzten ekintzak egin diren kokaleku guztiei** eragingo die ekintza-lerro honek. Hala, lurzoria polui dezaketen jarduerak egiten diren edo egin diren eta poluzio-aztarnak aurkitu diren kokalekuei buruzko informazioaz gain (aldizkako egoera-txostenen bidez bildutakoa zein lurzorua kalitatearen deklarazio-prozedura aplikatzean bildutakoa), informazio-sistemak beste ekintza-mota batzuekin lotutako informazioa ere bilduko du, adibidez, poluzio barreiatuaren iturriek eragindako lurzoruen kalteari edo erreferentzia-mailei buruzkoa.

2. EL. Jakintza sortzea

Ekintza espezifikoak

1. PR	EZAGUTU: SENTSIBILIZAZIOA, INFORMAZIOA, PRESTAKUNTZA ETA IKERKETA
2. EL	2. EL. JAKINTZA SORTZEA
2.1.E	Jakintza-alor anitzeko lantalde iraunkorrak sortzea hainbat diziplinatan
2.2.E	Zientzia eta teknologiari buruzko politika azpimarratzea jakintza sortzeko

Deskribapena

90eko hamarkadaren hasieran, lurzorua poluzioaren aurka babesteko politikaren lehen kontzeptuak aplikatzeko jakintza-oinarri orokorra garatzeko ahalegin handia egin behar izan zen, batik bat, tresna teknikoak sortzeari dagokionez.

Tresna horien irismena zabaldu egin da politika bilakatzen joan den neurrian. Filosofia horri jarraituz, ekintza-lerro horren bidez, **arlo guztietan** (zientifikoa, teknologikoa, hirigintzakoa, sozioekonomikoa, etab.) **jakintza sortu** nahi da, arlo honetako ekintzak egitean oinarritzat erabiltzeko. Jakintza sortzeari dagokionez, premiazko behar hauek identifikatu dira: batetik, **jakintza-arlo anitzeko lantalde iraunkorrak eratzea**, batik bat, administrazioaren eskaerari erantzuna emateko, eta, bestetik, **egungo zientzia eta teknologiari buruzko politika 2007-2012ko Lurzoru poluituen plan honetako helburuekin bat etortzea**.

Helburu estrategikoekin bat etortzea

Ekintza-lerro honen **zeharkakotasuna** poluzioaren prebentzioarekin eta substantzia poluitzaileak dituzten lurzoruak kudeatzearekin lotutako arlo guztietan jakintza sortzeko eta metodologiak garatzeko dagoen beharrean adierazten da.

Irismena

Ekintza-lerro honen bidez, **azken urteetan lurzoruaren poluzioaren hainbat arlotan jakintza eta esperientzia eskuratu dituzten guztiak elkartzea** lortuko da, administrazioari etengabeko laguntza emateko.

3. EL. Sentsibilizazioa, informazioa eta prestakuntza

Ekintza espezifikoak

1. PR	EZAGUTU: SENTSIBILIZAZIOA, INFORMAZIOA, PRESTAKUNTZA ETA IKERKETA
3. EL	SENSIBILIZAZIOA, INFORMAZIOA ETA PRESTAKUNTZA
3.1.E	Lurzoruaren poluzioarekin zerikusia duten funtsezko alderdien berri ematea eta haiek dibulгатzea
3.2.E	Lurzoruaren kudeaketan parte hartzen duten eragileen jakintza areagotzea
3.3.E	Parte hartzeko mekanismoak eratzea erabakiak hartzeko prozesuetan

Deskribapena

Ekintza-lerro honen helburua da lurzoruaren kudeaketan topo egiten duten **eragileak** (jabeak eta edukitzaileak zein administrazioak) **ekosistemen oreka mantentzeko lurzoruak duen funtzioaz jabetzea**. Kontzeptu horren barruan gizakia ere sartzen da. Helburu estrategikoak sentsibilizazioaren bidez bakarrik lor daitezkeen arren, informazioan eta prestakuntzan oinarritutako helburu partzialak ere proposatuko dira, eragileei beren betebeharrak betetzen laguntzeko.

Ekintza-lerro honen azken helburua lurzoruaren kudeaketan inplikaturako **hainbat eragileren jarduera arduratsua sustatzea** da, haien jarduerak lurzorian eta haren erabileran dituzten inpaktuak ulertutakoan. Horrela, gaur egun indarrean dagoen araudia betetzen lagunduko da.

Helburu estrategikoekin bat etortzea

Sentsibilizatutako, informatutako eta prestatutako eragileek osatutako gizarteak lurzoruaren poluzioa prebenitu eta poluzioak garapen iraunkorrean ahalik eta inpaktu gutxiena izatea ziurtatuko duen eredu sozioekonomikoa eratzea lortuko du. Beraz, (1) **eragileak** lurzoru babesteari dagokionez dituzten betebeharez gero eta **kontzienteago izateko** eta (2) **epe luzera** poluzioa saihesteko **beharrezko aldaketa lortzeko oinarriak** dira **jakintza eta kontzientzia soziala**. Ondorioz, ekintza-lerro hau zeharkakoa da, nabarmen.

Irismena

Jarduera poluitzaileak izan daitezkeen jarduerak garatzen diren kokalekuen edo lurzoru poluituen kudeaketan erantzukizunak dituzten guztiei zuzenduta dago ekintza lerro hori, nagusiki. Lurzorua polui dezaketen jardueren titularrak, lurzoru poluituen jabeak, ingurumen-arloan, lurralde-antolamenduan, hirigintzan eta azpiegituren eraikuntzan erantzukizunak dituzten administrazioak eta udalak dira ekintza-lerro honen xede, bai sentsibilizazioari, informazioari eta prestakuntzari dagokionez, bai erabakiak hartzeko prozesuetan guztiok parte hartzeko mekanismoak ezartzeko beharrari dagokionez.

Bereziki sentsibilizatzeko neurriak diseinatzean, ez da ahaztu behar herritarrek zeregin handia dutela lurzoru bezain baliabide garrantzitsua babesteko.

7.2 ERAGIN PROGRAMA

4. EL. Ingurumen-organoaren ekintza optimizatzea eta lurzoru poluituei buruzko legeria aplikatzea

Ekintza espezifikoak

2. PR	ERAGIN: ADMINISTRAZIO EGITURATUA
4. EL	INGURUMEN-ORGANOAREN EKINTZA OPTIMIZATZEA ETA LEGERIA APLIKATZEA
4.1.E	Araudiaren aplikazioa eguneratzea, hobetzea eta sinplifikatzea, eta, horretarako, erantzuna ematea lurzoruaren kalitatea deklaratzeko prozedurari, eta prozesuan txostenen egoerari buruzko informazioa ematea.
4.2.E	Araudia betetzen dela ziurtatzea

Deskribapena

Herri-administrazioak lurzoru poluituei buruzko araudia betearazteko **duen erantzukizunari erantzuna ematea** du helburu ekintza-lerro honek, eta, betetzen laguntzeko behar diren tresnak eskaintzen ditu.

Horretarako, lerro honetan aurreikusten diren ekintza espezifikoak **araudiaren aplikazioa hobetzen** oinarrituko dira, lurzoruaren kalitatea deklaratzeko prozedurari erantzuna emateko. Ekintza horien oinarri izango dira *1/2005 Legea* garatzeko arauak egitea edo administrazioari edo herritarrei zuzendutako metodologiak edo tresnak prestatzea haien betebeharrak optimizatzeko eta errazteko. Horrez gain, prozesuaren faseetan **txostenak zein egoeratan dauden ere jakinaraziko** da. Bestalde, ekintza-lerro honek **araudia betetzen dela ziurtatzea** du helburu, bereziki, ikuskapen-sistema baten bidez eta lurzoria babestearen arloan eragina duten sektoreko beste arau batzuekiko koordinazioaren bidez.

Helburu estrategikoekin bat etortzea

Ekintza-lerro honen barruan diseinatutako ekintzek beste lurzoru batzuen poluzioa **prebenitzea** eta poluitutako kokalekuak **berreskuratzea** helburu estrategikoetan eragingo dute neurri handienez. Zehazki, bi helburu horiek bat datoz *Lurzoria ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legearen* lehenengo artikuluan adierazitako helburuarekin.

Irismena

Ekintza-lerro honek **lurzoria polui dezaketen jarduerak jasaten dituzten edo jasan dituzten kokaleku ia guztiei eragingo die**, epe laburrera edo luzera.

5. EL. Administrazio mailen artean lankidetzabaldintza egokiak sortzea lurzoru poluituetan esku-hartzea aurreratze

Ekintza espezifikoak

2. PR	ERAGIN: ADMINISTRAZIO EGITURATUA
5. EL	ADMINISTRAZIOKO MAILEN ARTEAN LANKIDETZABALDINTZA EGOKIAK SORTZEA LURZORU POLUITUETAN ESKU-HARTZEA AURRERATZEKO
5.1.E	Lurzoria babesteari buruzko politika beste politika batzuetan sartzea
5.2.E	Interes-taldeekin lankidetzabaldintza egokiak sortzea lurzoru poluituetan esku-hartzea aurreratze

Deskribapena

Lurzoria poluzioaren aurka babesteari dagokionez, lurzoruaren kudeaketan eragina duten **politiken integrazioa** eta arlo horretan eskumenak dituzten **administrazioen arteko lankidetzabaldintza** funtsezko ekintzak dira 2007-2012ko Lurzoru poluituen plan honetan azaltzen den politikaren arrakasta ziurtatzeko.

Ekintza-lerro honetako lehen ekintzari dagokionez, hain zuzen, politiken integrazioa (Europako politika bateratuaren proposamenak lehenetsunaren artean duen helburua da), plan hau indarrean dagoen bitartean **ekintza espezifikoak egitea aurreikusten da hirigintzan, hondakinen kudeaketan eta lur azpiko urak babesteko arloan**. Erakunde arteko koordinazioa eta lankidetzabaldintza, berriz, lan-

foroan antolaketan eta arlo honetan baliabide eta esperientzia mugatuak dituzten administrazioei laguntzeko **tresnen diseinuan** oinarritzen da (adibidez, udalentsako laguntza-programari bere horretan eutsiko zaio haien jabetzako lurzoru poluituak berreskuratzeko).

Helburu estrategikoekin bat etortzea

Ekintza-lerro honen barruan, lurzoruen politika beste politika batzuetan sartzeko proposatzen diren ekintzak **prebentzioaren** helburuarekin lotuta daude nagusiki, eta herri-administrazioei lurzoruan esku hartzeko laguntza emateari buruzkoak, berriz, poluituta egon daitekeen lurzoria **berreskuratzeko, berriro erabiltzeko** eta **balorizatze**ko helburuekin. Ondorioz, ekintza-lerro hau zeharkakoa da, nabarmen.

Irismena

Ekintza-lerro honetan zehazten diren ekintzak **lurzoria polui dezaketen jarduerak garatzen diren edo garatu diren kokaleku gehienei aplikatzen zaizkie**, bereziki, epe ertaineko hirigintza-antolamenduaren barruan sartuta daudenak (poluituta egon daitezkeen kokalekuen azaleraren ia % 50). Lurzoruarekin lotura duten aplikazioetan hondakinak edo lurzoru kaltetuak berriro erabiltzeko prozedurak garatzeko ekintzak, bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko lurzoru osoa babestera zuzenduta daude.

7.3 EKIN PROGRAMA

6. EL. Lurzoru poluitu gehiago sortzea prebenitzea

Ekintza espezifikoak

3. PR	EKIN: PREBENITZEA ETA KONPONTZEA
6. EL	LURZORU POLUITU GEHIAGO SORTZEA PREBENITZEA
6.1.E	Prebentzio-neurriak sustatzea lehendik dauden administrazio-tresnen bidez

Deskribapena

Euskal Autonomia Erkidegoan **8.587 kokaleku inbentariatuta** daude, horietan lurzoria polui dezaketen jarduerak egiten direlako edo egin direlako. Horietako 5.872 lursailetan (guztira, 3.842 ha), egungo legeriak hala hartzen dituen jardueretako bat kokatzen da.

Ekintza-lerro honen helburua da hemendik aurrera lurzoruaren kalitatea ez aldatzea substantzia poluitzaileen ondorioz, **kokaleku industrial aktiboetan** eta **poluitzaileak izan daitezkeen jarduera berriak instala daitezkeen kokalekuetan**. Horretarako, ekintza espezifikoak zehaztu dira prebentzio neurriak mekanismoen bidez kontrolatzeko, ikuskatzeko eta ebaluatzeko. Mekanismo horiek lurzoria poluzioaren aurka babesteko araudia emateaz gain, beste prozedura batzuk ere eskaintzen dituzte, hala nola jarduera-lizentzia, ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa edo ingurumen-baimen integratua.

Helburu estrategikoekin bat etortzea

Ekintza-lerro honetako mekanismoak eta ekintzak **prebentzioaren** helburu estrategikoarekin lotuta daude, alegia, jasaten duten jarduera industrialaren ondorioz lurzoru gehiago ez kaltetzearekin.

Irismena

Ekintza-lerro honen jarduera-eremu dira Euskal Autonomia Erkidegoaren 5.872 kokaleku industrialetan garatzen diren **lurzorua polui dezaketen jarduera aktiboak**. Horiez gain, etorkizunean sor daitezkeen jarduera industrialak ere sartzen dira.

Ekintza-lerro honekin lotutako eskaera potentziala, nagusiki, aurretiko txostenek, aldizkako egoera-txostenek eta abarrek zehaztuko dute. Txosten horiek autonomia-erkidegoko ingurumen-organoak aztertu behar ditu. Egoerari buruzko aurretiko txosten-kopurua EAEko lurzorua polui dezaketen jardueren kopuru bera izango da.

7. EL. Poluitutako kokalekuak berreskuratzeko irtenbideak bilatzea

Ekintza espezifikoak

3. PR	EKIN: PREBENITZEA ETA KONPONTZEA
7. EL	POLUITUTAKO KOKALEKUAK BERRESKURATZEKO IRTENBIDEAK BILATZEA
Ekintza espezifikoak	
7.1.E	Poluitutako lurzoruak berreskuratzeko/kudeatzeko azpiegituren sorrera sustatzea
7.2.E	Lurzoru poluituak berreskuratzea bultzatzen duten tresna ekonomikoak diseinatzea eta aplikatzea
7.3.E	Arrisku-kudeaketaren kontzeptua garatzea eta aplikatzea bere adiera aurreratuenetan
7.4.E	Berreskuratutako lurzoruak eta poluzioak eragindako kokalekuetan hondeatutako materialak berriro erabiltzeko irizpideak zehaztea

Deskribapena

Lurzorua babesteari buruzko politikaren arrakasta, neurri handi batean, poluitutako kokalekuak berreskuratzeari irtenbide eraginkorrak eta errealistak ematen dizkioten tresnen diseinuaren eta martxan jartzearen araberakoa izango da. Osasunarentzat zein ekosistemarentzat arrisku onartezinak dituzten lurri buruzko erabakiak hartzeko prozesua "**lurzoruaren kudeaketa arriskuaren arabera**" (Risk Based Land Management, RBLM) delako kontzeptuaren inguruan garatuko da. Kontzeptu horrek irizpide ekonomikoak, sozialak edo beste mota batekoak eta ingurumen-irizpideak sartuko ditu irtenbideen hautapenean, eta *2007-2012ko Lurzoru poluituen plan* honen esparruan **garatu beharreko zereginetako bat izango da**.

Kontzeptuak garatzeaz gain (hor sartuko da arlo honetan aplikatu daitezkeen "*teknologiarik onena prezio onargarrian*" kontzeptuaren definizioa), ekintza-lerro honen barruan **helburu hauek dituzten ekintza espezifikoak** egingo dira:

- **Azpiegituren sistema bat eraikitzea sustatzea**, Euskal Autonomia Erkidegoko behar espezifikoak erantzuna emateko.
- **Tresna ekonomikoak diseinatzea** poluitutako lurzorua berreskuratzeko, egungo lege-esparrua errespetatuz eta merkatuko indarrak erabiliz.
- Poluitzaile-kontzentrazio baxua duten **lurzoruak** (eraikuntza-beharrengatik nahiz saneamendu-prozesu batengatik hondeatutakoak) **berriro erabiltzeko aukera ematen duen metodologia definitzea**, betiere lurzoru poluitu gehiago sortzen ez direla bermatzen duten baldintzetan.

Helburu estrategikoekin bat etortzea

Ekintza-lerro honek lurzoru poluituak **konpontzeko eta/edo behar bezala kudeatzeko baldintza egokiak sortzeari** buruzko helburu estrategikoari erantzuten dio.

Irismena

Ekintza-lerro honetako ekintza espezifikoak ezartzearen ondorioz lortzen diren emaitzek Euskal Autonomia Erkidegoko **poluitutako kokaleku guztiei eragingo die** epe laburrera, ertainera edo luzera. Halaber, diseinatutako tresna batzuk lurzoru hauetan aplikatu ahal izango dira: saneamendu-ekintzak behar ez dituztenak, baina behar bezala kudeatu behar diren materialak hondeatzeko beharra duten eraikuntza-proiektuak dituztenak.

8. EL. Erabiltzen ez diren eta kalitatea aldatu gabe duten kokalekuak berriro erabiltzea

Ekintza espezifikoak

3. PR	EKIN: PREBENITZEA ETA KONPONTZEA
8. EL	ERABILTZEN EZ DIREN ETA KALITATEA ALDATU GABE DUTEN KOKALEKUAK BERRIRO ERABILTZEA
8.1.E	Lurzoruaren artifizialtzea murrizteko jarraibideak egitea eta neurriak identifikatzea
8.2.E	Hirigintza erabiltzea lurzoru poluituen berrerabiltzea eta berreskuratzea errazteko

Deskribapena

Lurzoruak jasaten duen **mehatxuetako bat da lurzoria** artifizialtzea edo **zigilatzea**, hau da, lurzoruaren azalera "iragazgaiztea" eskatzen duten erabileretarako lursailak kolonizatzea (adibidez, etxebizitzak, bideetako azpiegiturak, industrialdeak, etab.), eta, azken urteetan, horri garrantzi handia ari zaio ematen, lurzoruaren funtzio naturalaren galera handia edo atzerazina baitakar.

Lurzoru naturalen okupazioa geldiarazteko estrategia integralak diseinatzea lurzoria poluzioaren aurka babesteko politikaraino zabaltzen den arren, Euskal Autonomia Erkidegoko ezaugarri espazialek zehazten dute **berriro erabiltzeko lurzoru erabilgarrien zati handi bat lurzoria polui dezaketen jardueraren bat jasan duten lursailei dagokiela**.

Ekintza-lerro honen helburua da, batetik, poluituta egon daitezkeen lurzoruen erabilera (lurzoru birjinekin alderatuta) lehenetsiko duten **jarraibideak aztertzea eta martxan jartzea**, eta, bestetik, lurzoru poluituen edo poluituta egon daitezkeen lurzoruen hirigintza-garapeneko prozesu integralaren plangintza eta kudeaketa egokia lortzea. **Lurzoru horietan**, hirigintza-planen arabera, hurrengo urteetan **erabilera edo jarduera berri bat aurreikusita** egongo da.

Helburu estrategikoekin bat etortzea

Ekintza-lerro honen aplikazioa ekintza berria identifikatzen den unetik lurzoria berriro erabiltzeko edo balorizatzeako berreskuratzea erabakitzen den arte hedatu behar da. Beraz, programa **berreskuratzeako, berriro erabiltzeko eta balorizatzeako helburuetan aplika daiteke**, azken helburua berreskuratzea baino harantzago baitoa. Asmoa da lur horiek balio berria emanaz berriro erabiltzea.

Irismena

Gaur egun, Euskal Autonomia Erkidegoan 7.898 ha egon daitezke poluituta (8.585 kokaleku). Lurralde-plan partzialek eta arlokako lurralde-planek emandako informazioaren arabera, hurrengo 15 urteetan **4.023 ha**-tan (1.978 kokaleku) aurreikusten dira hirigintza-jarduerak. Ekintza-lerro hau kokaleku horietan behar bezalako jarduera lortzera zuzenduta egongo da, eta hirigintza erabiliko da esku-hartze arrazionalagoa ahalbidetzen duten erabilera orokorrak eta zehatzak esleitzeko. Halaber, ekintza-lerroaren helburua izango da zifra hori berrerabiltzea sustatuz handitzea.

9. EL. Aurreikusitako hirigintza-jarduerarik ez duten eta poluituta egon daitezkeen lurzoruen kudeaketa. Balorizatzea

Ekintza espezifikoak

3. PR	EKIN: PREBENITZEA ETA KONPONTZEA
9. EL	POLUITUTA EGON DAITEZKEEN ETA AURREIKUSITAKO JARDUERARIK EZ DUTEN LURZORUAK BALORIZATZEA
9.1.E	Ekintza-estrategiak diseinatzea poluituta egon daitezkeen eta merkatutik kanpo dauden kokalekuetan

Deskribapena

Lurralde-plan partzialek eta arlokako lurralde-planek ez dute aurreikusten epe ertaineko hirigintza-jarduerarik poluituta egon daitezkeen kokaleku gisa inbentariatutako 8.587 kokalekuetatik 6.607 kokalekutan (3.875 ha).

Kokaleku horietako batzuek, gaur egun, ez dute inolako erabilerarik, eta ez da erraza haiek higiezinaren zirkuituan sartzea. Oro har, lurralde horietan berreskuratzearen onurak ingurumen- eta gizarte-terminoetan neurtu behar dira, eta ez termino ekonomikoetan. Ekimen pribatuak ez du paper garrantzitsua izango, eta, horregatik, administrazioak **jarrera aktiboa** hartu behar du **kokaleku horietan neurriak hartzea sustatzeko**, jarduera-mota horiek finantzatzen lagunduko duten estrategien diseinua egitea barne.

Baliteke lehentasun-sistema bat diseinatutakoan utzitako hondakindegia izatea jarduera-estrategia espezifikoa behar duten lehen kokalekuak, batez ere gune sentikorretan.

Helburu estrategikoekin bat etortzea

Ekintza-lerro honek, aurrekoaren moduan, bi helburu estrategiko bultzatuko ditu nagusiki: **berreskuratzea eta balorizatzea**.

Irismena

Ekintza-lerro honek, utzitako hondakindegiez gain, **poluituta egon daitezkeen eta gaur egun erabiltzen ez diren 527 hektareei** (334 kokaleku) eragiten die. Horietan, lurralde-plan partzialen eta arlokako lurralde-planen arabera, ez da hirigintza-jarduerarik aurreikusten hurrengo urteetan.

8 BALIABIDEEN MOBILIZAZIOA ETA PLANAREN FINANTZIAZIOA

8.1 KUANTIFIKAZIO EKONOMIKORAKO IRIZPIDEAK

Atal honetan, 2007-2012ko Lurzoru poluituen planaren kuantifikazio ekonomikoan erabilitako irizpide nagusiak azaltzen dira laburki:

a) Programen, ekintza-lerroen eta ekintzen balorazio ekonomikoa

Hurrengo kapituluetan datozen aurrekontuetako kostuetan (II. eranskinean xehetasun handiagoz azaltzen dira) **Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak** lurzorua poluzioaren aurka babesteko politika eta *EAEko lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legearen* aginduak aplikatzeko **izango dituen gastuak bakarrik** hartzen dira kontuan²⁰. Gastu horietan sartzen dira **langileentzat eta kanpo-kontratatorako** bideratutako aurrekontua.

b) Azterketaren epea eta esparrua

Plana indarrean egongo den denboraldira mugatu da azterketa ekonomikoa (**2007-2012**), eta lurzorua iturri industrialetatik eratorritako poluzioaren aurka babesteko beharrezko ekintzei egiten die erreferentzia. Beste poluzio-iturri batzuk — esaterako, nekazaritza—, planaren irismenetik kanpo gelditzen dira, eta, ondorioz, kalkulu ekonomikotik kanpo.

c) Aurreko ekintzak *versus* berrikuntzak

Ez da bereizketarik egin iraganean hasitako ekintzei dagozkien aurrekontu-sailen eta haiekiko berrikuntzaren bat dakarten aurrekontu-sailen artean, **2007-2012ko Lurzoru poluituen plana** jarraipeneko baita.

8.2 BANAKATZE EKONOMIKOA

Dokumentu honetan zehazten diren baldintzetan *2007-2012ko Lurzoru poluituen plana* martxan jartzeko baliabide ekonomiko batzuk behar dira lau helburu estrategikoak garatzeko. Horiek lehen aipatutako **9 ekintza-lerroen** bidez jarriko dira martxan. II. eranskinean xehetasunez garatzen da horien aurrekontua.

Plan honetara bideratuko diren baliabide publikoak guztira **25,55 milioi eurokoak** izango dira (1. taula). **2007rako 3,65 milioi euroko** gastua aurreikusi da aurrekontuetan.

Diru publikoa (milioi €)	Lurzoru poluituen planaren indarraldia								
	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	Guztira
Ezagutu programa			1,080	1,050	1,065	0,950	0,860	0,850	6,575
Eragin programa			1,050	1,650	1,675	1,925	1,850	1,850	10,000
Ekin programa			0,800	1,100	1,800	2,075	1,750	1,450	8,975
Aurrekontua	2,7	3,5	3,650	3,800	4,540	4,950	4,460	4,150	25,550

²⁰ Sektore pribatuak lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legea aplikatzeko izango dituen gastuen kalkulua lege hori onartzeko prozesuan aurkeztutako memorian sartu zen.

8. taula: 2007-2012ko Lurzoru poluituen plana gauzatzeko inbertitu beharreko aurrekontu publikoaren kalkulua (milioi euro)

3 programa horiek ekintza-lerroez osatuta daude, eta horiek martxan jartzeko **ekintza espezifikokoak** diseinatu eta egin behar dira. Aurrekontua kalkulatzeko, proposatutako **9 ekintza-lerroetako** 19 ekintza espezifikoei esleitu behar zaizkien baliabideak kalkulatu dira alderdi hauen arabera:

- Haiek diseinatu, martxan jarri eta kudeatu behar dituzten **administrazioko pertsona-kopurua**, eta haien **kontratazio-kostuak**. Horien bidez Lurzoru poluituen planaren guztizko kostua kalkulatu ahal izango da (10. taula eta 11. taula)
- **Administrazioak guztira behar dituen baliabide ekonomikoak** ekintza-lerro bakoitzerako (9. taula).

EZAGUTU programa

1. ekintza-lerroa bi ekintzen bidez jarriko da martxan. Ekintza horien helburua izango da Euskal Autonomia Erkidegoko lurzoruaren kalitateari buruzko informazioa garatzea, kudeatzea eta eguneratuta edukitzea. Bi ekintza horien aurrekontua **2007rako 1.000.000 eurokoa** izango dela kalkulaten da: 250.000 euro lurzoruari buruzko informazio-sistema garatzeko eta 750.000 sistema horretako informazioa bildu, antolatu eta eguneratzeko. Lehenengo urtean arreta berezia jarriko zaio *Lurzoruaren poluitzaile izan daitezkeen jarduerak dituzten lurzoruaren inbertarioko* lursail industrialen berrikuspenari. Horrez gain, **150.000 euro langile-gastuetara** bideratuko dira. Lurzoruari buruzko informazio-sistema diseinatutakoan, tresna hori garatze baliabideak murriztu egingo dira, eta hura kudeatzeko erabilitakoak gehitu. Hala, ekintza-lerro horren **aurrekontua ia konstante mantenduko da planak iraungo duen 6 urteetan**.

2. ekintza-lerroak bi ekintza osagarri ditu (jakintza-arlo anitzeko lantaldeak sortzea eta zientzia eta teknologiarik buruzko politika azpimarratzea jakintza sortzeko). Horietarako 600.000 euro inbertituko dira 2007an, eta planaren gainerako aplikazio-denboraldian **3.000.000 euro** baino zertxobait gehiago bideratu beharko dira. Funts horiek hirugarrenekin egindako lankidetzahitzarmenetara bideratuko dira jakintza sortzeko. Bi ekintza horietara bideratutako **baliabide ekonomikoak konstante** mantenduko dira denboran, baina **langile-gastuetara bideratutakoak handitu** egingo dira, jakintza-arlo anitzeko lantaldeak areagotuz joango baitira.

3. ekintza-lerroa behar bezala garatzeko euskarri gisa erabiliko dira **hiru ekintza osagarri** (lurzoruaren poluzioarekin zerikusia duten funtsezko alderdien berri ematea eta haiek dibulgatzea, eragileen jakintza areagotzea eta lurzoruaren poluzioak eragindakoei arriskuaren berri ematea). Horretarako, **200.000 euro** beharko dira planaren aplikazioaren **lehenengo urtean**, eta lehenengo bi ekintzen artean banatuko dira, arriskuaren jakinarazpenari esleitutako lehentasuna ertaina baita, eta 2009ra arte ezingo da martxan jarri. Hiru ekintza horietarako behar diren baliabideek **beheranzko joera** erakusten dute 2007-2012 denboraldian.

EZAGUTU programaren aurrekontua egonkor mantenduko da planak indarrean irauten duen bitartean. Langileen behar handiagoak kanpoko zerbitzuak azpikontratatzeko behar txikiagoak konpentsatzen ditu.

ERAGIN programa

4. ekintza-lerroaren kostua 2007rako **250.000 eurokoa** izango da, eta araudia eguneratzeko, hobetzeko eta sinplifikatzeko eta hura betetzen dela ziurtatzeko ekintzetan banatuko dira. Horrez gain, 125.000 euro langile-gastuetara bideratuko dira. Araudia eguneratzera bideratutako baliabideak zertxobait handituko dira 2007 eta 2012 bitartean, bereziki, langile-behar handiagoaren ondorioz, ekintza hori egiteak hala eskatzen baitu. Araudia betetzeko baliabideak ere zertxobait handituko dira, kasu honetan ere, langile-behar handiagoagatik.

5. ekintza-lerroa behar bezala garatzeko egin beharreko bi ekintza espezifikoentzat **800.000 euroko** aurrekontua kalkulatu da 2007rako, eta **5.2 ekintzari** zuzenduko zaizkio (herri-administrazioei laguntzea). Bi ekintza horiek egiteko **langile beharrek 100.000 euroko** gastua sortuko dute. Ekintza-lerro horren aurrekontuan ez da aldaketa handirik ikusten, baina egia da lurzoruei buruzko politikak beste politika batzuetan sartzeko Administrazioak lan gehiago egin behar duela planaren aplikazioko lehenengo urteetan, eta, beraz, langile-beharrak murriztu egingo dira 2011n eta 2012an.

Programa honen aurrekontua egonkorra izango da, administrazioei laguntzeko baliabideak (horrek eskatuko du aurrekontu-ahalegin handiena) konstante mantenduko baitira planak indarrean irauten duen bitartean.

EKIN programa

6. ekintza-lerroa prebentzio-neurriak ezartzeko ekintza baten bidez jarriko da martxan, eta 2007rako **100.000 euroko** aurrekontua izango duela kalkulatu da. **Langile-beharra** lanaldi osoko langile bakarrekoa izango da, eta horren gastua, **50.000 eurokoa**. Zerbitzu espezializatuak kontratatzeke aurrekontua ez da aldatuko planak indarrean irauten duen bitartean, baina langile-beharrak 2010ean handitu egingo direla aurreikusten da.

7. ekintza-lerroak (kokaleku poluituak bere onera ekartzeko irtenbideak bilatzea) behar bezala funtziona dezan, lau ekintza espezifiko dira beharrezkoak (lurzoru poluituak kudeatzeko azpiegituren sorrera sustatzea; lurzoruen funtsa sortzea; arrisku-kudeaketaren kontzeptua garatzea eta aplikatzea; hondeatutako materialak berriro erabiltzeko irizpideak definitzea). Ekintza horiei **500.000 euro** zuzendu zaizkie **2007an**, eta administrazioz kanpoko zerbitzuei esleitu zaizkie. Ekintza-lerro horren aurrekontua pixkanaka handituko da, eta **2011n gutxi gorabehera 1,6 milioi eurokoa** izango da, lurzoruen azpiegituraren aurrekontua handituko baita. Poluituta egon daitezkeen lurzoruak aurreikusitako hirigintza-jardueren bidez kudeatzeko (**8. ekintza-lerroa**) bi ekintza aplikatu behar dira aldi berean (lurzoruaren erabilera iraunkorra sustatzeko jarraibideak egitea eta neurriak identifikatzea; hirigintza erabiltzea lurzoru poluituak errazago berrerabili eta berreskuratzeko). Horren guztizko kostua **100.000 eurokoa** izango da. Administrazioaren aurrekontuan 50.000 euro bideratuko dira ekintza bakoitzera. Langile-gastuak langile bakarrari dagozkionak izango dira. Ekintza-lerro horretarako aurrekontua handitu egingo da 2008 eta 2009an, baina 2010etik aurrera murriztu egingo da; izan ere, nagusiki 2009 eta 2010ean gauzatuko diren kanpo-zerbitzuetarako aurrekontua murriztu egingo da.

Merkatutik kanpora dauden eta poluituta egon daitezkeen kokalekuetako ekintza-estrategiak diseinatzeko ekintza bat behar da, eta beharrezkotzat jotzen da aurreikusitako hirigintza-jarduerarik ez duten eta poluituta egon daitezkeen lurzoruak kudeatzeko (**9. ekintza-lerroa**). Ekintza horretarako hasierako aurrekontu bat kalkulatu da planaren lehenengo urtean: 100.000 eurokoa izango

da. Ekintza horretan lanaldi partzialean lanean arituko den langilearen gastuak 30.000 eurokoak izango dira. Poluituta egon daitezkeen lurzoruek gune sentikorretan izan ditzaketen eraginei buruzko ezagutzan egiten diren aurrerapenek zehaztuko dute ekintza horren lehentasuna. Hori dela eta, aurrekontu hau berrikusi egin behar da plana indarrean dagoen bitartean.

Laburpena

9. taulan **baliabide ekonomiko publiko** totalak erakusten dira, eta ekintza-lerroen arabera banatuta daude. Horiek beharrezkoak dira planean aurreikusitako 19 ekintzak diseinatzeko, gauzatzeko eta kudeatzeko. **Gobernuak mobilizatutako funtsak eragile gisa erabiliko dira beste administrazio batzuen eta sektore pribatuaren funtsak eskuratzeko.** Sektore pribatuak konpromiso garrantzitsua hartu behar du hurrengo urteetan planean proposatutako helburuak betetzeko. Beraz, plana kudeatzen dutenen zeregina izango da sentsibilizazio- eta hedapen-mekanismoak martxan jartzea eragile horiek eraginkortasunez eta sinergikoki inplika daitezen.

Baliabide ekonomiko totalak		2007	2008	2009	2010	2011	2012	Guztira
Ezagutu programa	1. EL	1,000	0,250	0,250	0,150	0,100	0,100	1,850
	2. EL	0,600	0,625	0,625	0,625	0,625	0,625	3,725
	3. EL	0,200	0,175	0,190	0,175	0,135	0,125	1,000
Eragin programa	4. EL	0,250	0,300	0,300	0,300	0,300	0,300	1,750
	5. EL	0,800	1,350	1,375	1,625	1,550	1,550	8,250
Ekin programa	6. EL	0,100	0,100	0,100	0,100	0,100	0,100	0,600
	7. EL	0,500	0,700	1,100	1,500	1,500	1,200	6,500
	8. EL	0,100	0,200	0,500	0,375	0,050	0,050	1,275
	9. EL	0,100	0,100	1,000	0,100	0,100	0,100	0,600
Aurrekontua guztira		3,650	3,800	4,540	4,950	4,460	4,150	25,55

9. taula: 2007-2012ko Lurzoru poluituen plana ezartzeko beharrezkoak diren guztizko baliabide ekonomikoak (milioi euro)

9. taulan, plana behar bezala gauzatzeko behar diren langileak kontratatuzeko baliabideak erakusten dira (8-4 taula). Giza baliabideak, eta, beraz, hara bideratutako aurrekontua, pixkanaka handitzen joango dira planak iraun bitartean, eta **2012an 30 pertsona** arituko dira lanean.

Giza baliabideak		2007	2008	2009	2010	2011	2012	Guztira
Ezagutu programa	1. EL	0,150	0,250	0,250	0,250	0,250	0,250	1,400
	2. EL	0,050	0,075	0,075	0,125	0,125	0,125	0,575
	3. EL	0,025	0,025	0,050	0,062	0,062	0,062	0,287
Eragin programa	4. EL	0,125	0,225	0,250	0,250	0,300	0,300	1,450
	5. EL	0,100	0,150	0,150	0,175	0,100	0,100	0,775
Ekin programa	6. EL	0,050	0,050	0,050	0,100	0,125	0,125	0,500
	7. EL	0,075	0,087	0,125	0,125	0,175	0,200	0,787
	8. EL	0,050	0,075	0,087	0,100	0,125	0,125	0,562
	9. EL	0,025	0,025	0,025	0,025	0,025	0,025	0,150
Aurrekontua guztira		0,650	0,962	1,062	1,212	1,287	1,312	6,485

10. taula: 2007-2012ko Lurzoru poluituen plana ezartzeko giza baliabideetara bideratu beharreko aurrekontua (milioi euro)

Giza baliabideak		2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012
Ezagutu programa	1. EL		4	5	5	5	5	5
	2. EL		1	2	2	3	3	3
	3. EL		1	1	1	1	1	1
Eragin programa	4. EL		4	5	4	5	7	7
	5. EL		3	3	3	3	2	2
Ekin programa	6. EL		3	3	4	6	5	6
	7. EL		1	2	2	3	3	3
	8. EL		1	1	1	1	1	2
	9. EL		2	2	4	3	4	4

Aurrekontua guztira		11	11	17	22	25	28	30
---------------------	--	----	----	----	----	----	----	----


11. taula: Behar diren giza baliabideak

9 PLANAREN KUDEAKETA

2007-2012ko Lurzoru poluituen plana martxan jartzeko eta Euskal Autonomia Erkidegoko lurzoru poluzioaren aurka babesteko politikaren tresna eragile nagusi gisa finkatzeko **kudeaketa-sistema** bat eta **segimendu-adierazle** batzuk behar dira. Horiek proposatutako ekintza guztien euskarri gisa arituko dira eta haien ebaluazioa erraztuko dute.

9.1 KUDEAKETA-ORGANOAK

Planeko ekintzak gauzatzeko eta horiei eusteko elkarren artean lotutako hiru kudeaketa-mailaz osatutako eredu bat diseinatu da (ikus 20. irudia). Horren osaera eta erantzukizunak ondoren azaltzen dira.



20. irudia: Kudeaketa-eredua

Planaren zuzendaritza

Planaren zuzendaritza Ingurumen **Sailburuordetzari** dagokio. Hori **kudeaketa-organo** gorena da, eta **plana ezartzen dela ziurtatzeko erantzukizuna** du. Zuzendaritzaren funtzio nagusiak hauek dira:

- Planarekin bat datorren **urteko programa** egitea
- Plana eguneratzea, hura berritzeko beharrezkoak diren zeregin guztiak **martxan jarritz**
- Sail eta administrazioek egiten dituzten ekintzen eta jardueren **segimendu** aktiboa koordinatzea eta egitea
- Planaren **ekintzak** lurzoruaren kudeaketarekin zerikusia duten edo eduki dezaketen gobernuko beste sail eta organo batzuekin batera **koordinatzea**

- Egindako ekimenetan zehaztutako **neurriak sustatzea eta ebaluatzea**. Horiek urteko txostenean zehaztu behar dira.

Kudeaketarako unitate teknikoak

Kudeaketarako unitate teknikoak **Zuzendaritzatik eratorritako funtzioak gauzatuko** ditu. Unitate hori Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saileko eta **IHOBE**ren Lurzoru Polituen arloko **teknikariek** osatuko dute. Planaren ekintzak zuzenduko ditu, Zuzendaritzatik eratorritako funtzioak beteko ditu eta lurzoruaren kudeaketan inplikaturako eragileak koordinatuko ditu.

Unitatearen funtzioak hauek dira:

- **Plana prestatzea**, hari buruz eztabaidatzeko eta, dagokionean, Zuzendaritzak onartzeko
- **Plana gauzatzea**, eta, horretarako, proposaturako programak eta ekintzak egitea eta koordinatzea
- **Plana betetzen dela ziurtatzea**, eta martxan jarritako ekintzen eragina sistema ekonomiko eta sozial osoan maximizatzea
- Planaren bilakaerari buruzko **segimendu jarraitua** eta formalizatua egitea, eta egoerari, bilakaerari, segimenduari eta ekintzei buruzko material teknikoak prestatzea. Arreta berezia jarriko zaio proposatzen diren adierazle guztiak betetzeari
- Plan eragileen eta urteko txostenen **zirriborroak prestatzea**.
- **Bileren deialdiak egitea** eta zuzendaritzarako dokumentuak hornitzea
- Eragile publiko eta pribatu guztientzako oinarritzako **erreferente** izatea, eta, horretarako, lurzoruaren kudeaketan parte hartzen duten guztiei eta gizarte osoari informazio estrategikoa ematea
- **Kontsulta-ekintzak** egitea plana eguneratzeko eta inguruko aldaketetara egokitzeko, eragile inplikatuak planaren bilakaerari buruzko iritzia emateko, esperientzia trukatzeko, koordinatzeko eta hura bultzatzeko eta planean zehaztutako ekintza-programak ezartzeko. Horretarako, eragile inplikatuak parte hartzeko mahai-inguruak eta foroak antola daitezke

Sustapen-taldeak

Sustapen-taldeak behar den neurrian osa daitezke. Talde horiek horretarako prestatu diren planeko programaren ekintza-lerroen eta ekintza zehatzen **kontsulta-, laguntza- eta segimendu-funtzioak** izango dituzte. Hala, sustapen-taldeak kudeaketarako unitate-teknikoak izendaturako arduradun batek eta gobernuaren hainbat sailerako, erakunde publikoetako eta programa osatzen duten ekintzek eragindako edo haietan nolabaiteko erantzukizuna duten erakunde pribatuetako eragileek osatuta egongo dira.

Helburuak betetzen doazen neurrian, talde horiek desagertu egingo dira.

9.2 AGINTE-TAULA

Plana behar bezala ezartzeko, ezinbestekoa da haren gauzatzearen **segimendua** egitea, ekintzak zenbateraino betetzen diren eta haietan lortutako emaitzak ebaluatzeko. Halaber, segimendua ezinbestekoa izango da, ondorioak ateratzeko eta planaren etorkizuneko egoerarentzat aldaketak edo egokitzapenak proposatzeko.

Kudeaketarako unitate teknikoak **datuak biltzeko eta prozesatzeko sistema** egokia ziurtatuko du, planaren ebaluazioa, segimendua, mantentzea eta berrikuspen objektiboa egiteko.

Segimendu-adierazleak

Planaren segimendua egiteko, **betetze-adierazleen** multzo murriztu bat baloratuko da (ikus **9-1 taula**), programa bakoitzeko ekintza-lerro espezifikoaren bidez (ikuspegi-adierazleak) lortutako emaitzen **ondorio globalak** ezagutzeko eta planaren **helburu estrategikoetan** (adierazle estrategikoak) **zenbateraino aurrera egin den** jakiteko.

Hala, planaren **funsezko gaien** bilakaeran proposatutako ekintzen eragina neur daiteke: (1) lurzoruaren kalitatea eta lurzoruaren kalitateari buruzko informazio-sistema, (2) lurzoru poluituei buruzko jakintza, (3) lurzoru poluituen deklarazio-prozeduran ingurumen-organoak duen eraginkortasuna eta efikazia, (4) lurzoru poluitu gehiago ez agertzeko prebentzio-lanean aurrera egitea, (5) poluituta egon daitezkeen lurzoruak berrerabiltzen eta balorizatzen aurrera egitea eta (6) ikerketan eta lurzoruak berreskuratzen aurrera egitea.

Aurrerapen-arloak		Adierazlea	Adierazle-mota
1	EAEko lurzoruaren kalitatea eta lurzoruaren kalitateari buruzko informazio-sistema	1. Poluituta egon daitezkeen lurzoruen inbentarioan sartutako lurzoruen kopurua eta azalera, lurzoru-motaren arabera	Ikuspegia
		2. Poluitutako lurzoruen kopurua eta azalera, lurzoru-motaren arabera	Ikuspegia
2	Lurzoru poluituei buruzko jakintza	3. Lurzoru poluituen arloko I+G+B proiektuen guztizko aurrekontua EAEko administrazioen aurrekontuen kargu finantzatuta	Estrategikoa
3	Ingurumen-organoaren eraginkortasuna lurzoru poluituaren deklarazio-prozeduran	4. Lurzoruen inbentarioan jasotako eta erantzundako kontsulta-kopurua	Estrategikoa
		5. Lurzoruaren kalitatearen deklarazio-kopurua	Estrategikoa
4	Lurzoru poluitu gehiago ez agertzeko prebentzio-lanean aurrera egitea	6. Egindako ikuskapen-kopurua	Estrategikoa
5	Poluituta egon daitezkeen lurzoruak berrerabiltzen eta balorizatzen aurrera egitea	7. Erabilera eman zaien poluituta egon daitezkeen lurzoru inaktiboak: kopurua eta azalera	Estrategikoa
6	Ikerketan eta lurzoruak berreskuratzen aurrera egitea	8. Lurzoruaren kalitateari buruz egindako azterketa-kopurua eta eragindako azalera, ikerketa-motaren arabera	Estrategikoa
		9. Amaitutako lurzoruaren erremediatze-kopurua eta dagokion azalera	Estrategikoa
7	Azpiegitura edo tresna berritzaileak sortzea lurzoru poluituak kudeatzeko	10. Finantziazio-tresna berrien bidez azterketa eta erremediatzeetara bideratutako aurrekontua	Estrategikoa

12. taula: Planeko adierazleak

Tarteko ebaluazioak

Adierazleetan oinarrituta (urtean behin egin behar dira), **urteko ebaluazio- eta segimendu-txostenak** prestatzen dira. Horiek aurreikusitako ekintzen ezarpen-maila (adierazle estrategikoak) eta hasierako egoerarekiko aurrerapen globala (ikuspegi-adierazleak) baloratzen dituzte. Hor lortzen diren ondorioak kontuan hartuta, **Kudeaketarako Unitate Teknikoak** hobekuntza eta jarraibide berriak proposatuko ditu, eta horiek **Planaren Zuzendaritzak** onartu behar ditu.

Urteko txostenez gain, planaren eta **lortutako emaitzen berrikuspen** sakonagoa egingo da haren **indarraldiaren erdia igarotakoan**. Berrikuspen horretan diagnostikoa eguneratuko da, eta horretarako ordura arte egindako lurzoruen azterketei eta erremediatzeei buruzko informazioa erabiliko da. Hala dagokionean, berrikuspenera egiteko unean dagoen egoerara egoki daitezke planean hasieran aurreikusitako helburuak eta ekintzak, eta horrek helburuak edo haien lehentasuna berriro definitzea ekar lezake. Lurzoru poluituen arloko jakintzaren egoera ere laburki berrikusiko da.

ERANSKINAK

I. ERANSKINA ADITUEKIN EGINDAKO BILERAKO OHARRAK

Lurzoru poluituen plana egitean kontuan hartzeko ekarpen interesgarrienak

- Eragile pribatuak mobilizatzeko erabiliko diren mekanismoak martxan jartzea komeni da, horrela, merkatuak berak identifika eta deskontamina ditzan poluitutako kokalekuak, bere funtzionamendu normalean. Horretarako, baliteke araudiari artikulatu berri bat gehitu behar izatea. Mekanismo horiek eragile pribatuengan jarduteko beharra handiagoa denean eta dirua jokoan dagoenean aplikatu behar dira, adibidez:
 - Jabetza aldatzen denean
 - Lizentziak eskatzean
- Adituen gomendio orokorra da mekanismoak bilatzea, merkatuak berak sor ditzan lurzoru poluituen azterketa- eta berreskuratze-ekintzak finantzatzeko dituzten baliabide ekonomikoak. Besteak beste, adibide hauek jaso dira: lursail publikoak (zati poluitu bat eta zati garbi bat dutenak) sektore pribatuari saltzea, lehen aipatutako mekanismo "eragileak" eta lurzoruaren kalitateari buruzko ziurtagiriak.
- Herri-administrazioak laguntza ekonomikorako sistemak aztertzea komeni da, horien bidez baliabide pribatuak mobilizatzeko edo sektore pribatuak konpontzen ez dituen arazoak lantzeko:
 - Deskontaminaziorako diru-laguntzak, baliabide pribatuen mobilizatzaile gisa.
 - Kokaleku "umertzutzeko" eta arriskua dutenentzako edo baldintza jakin batzuk betetzen dituzten isurketa-puntuentzako diru-laguntzak.
 - Poluzio-arazoak sektore pribatuaren erantzukizunen eta sektore publikoak bere gain har ditzakeen erantzukizunen artean banatzea.
 - Europako administrazio bateratuarentzat onargarriak diren diru-laguntzak identifikatzea.
- Sektore publikoan giza baliabide osagarriak beharko dira txostenak bideratzeko. Kostuen igoerak finantzatzeko modu bat Flandesko eredia izan daiteke. Horren arabera, beharrezkoak dira lurzoruaren kalitateari buruzko ziurtagiriak lurzoruaren jabetzaren transakzio guztietan (ziurtagiri horiek notarioek eskatzen dituzte). Ziurtagiri horien kostua bere gain hartuko du azterketa-txostenak, lurzoruaren deskontaminazioa

eta lurzoru poluituei buruzko datu-basearen mantentze-lanak egiteaz arduratzen den sailak.

- Egoera berezietan ohikoa ez den beste prozedura baten bidez jarduteko aukera gehitu behar zaio araudiari, alegia, egoera bereziak kasuaren arabera eta ekintza egokiagoa ahalbidetzen duen prozedura espezifiko baten arabera kontuan hartzeko aukera. Adibidez, kokaleku oso handien edo konplexuen kasuan.
- Eragileen kontzientzia eta sentsibilizazioa areagotzeko ekintzak diseinatzeko, arazoa poluzioaren ondorioen arabera hartu behar da kontuan: osasunerako arriskuak eta propietateen balioarentzako arriskuak. Lurzoruaren poluzioa baloratzeko plangintzan, baimenak ematean edo informazio garrantzitsua sortzean inplikaturako administrazioko eragileentzat ekintza bereziak diseinatu behar dira.

II. ERANSKINA. EKINTZEN DESKRIBAPEN XEHATUA

1. PR. EZAGUTU: SENTSIBILIZAZIOA, INFORMAZIOA, PRESTAKUNTZA ETA IKERKETA

1. EL. Lurzoruaren kalitateari buruzko informazioa biltzea, antolatzea eta kudeatzea.

1.1 ekintza. Uneko beharretara egokitzea eta lurzoruaren kalitateari buruzko informazio-sistema kudeatzea

1. PR	EZAGUTU: SENTSIBILIZAZIOA, INFORMAZIOA, PRESTAKUNTZA ETA IKERKETA
1. EL	LURZORUAREN KALITATEARI BURUZKO INFORMAZIOA BILTzea, ANTOLATZEA ETA KUDEATZEA
1.1.E	Uneko beharretara egokitzea eta lurzoruaren kalitateari buruzko informazio-sistema kudeatzea
Aurrekariak eta deskribapena	
<p><i>Euskal Autonomia Erkidegoko lurzoruaren poluitzaile izan daitezkeen jarduerak dituzten lurzoruaren inbentarioaren lehen bertsioak sistema informatiko bat garatzeko beharra ekarri zuen (datu-base bat eta geografia-informazioko sistema bat konbinatzen zituen), bildutako datu-kopuru izugarria gordetzeko eta kudeatzeko. Sistema hori informazioa gordetzeko euskarri gisa erabili da, eta hainbat aldiz aldatu eta handitu behar izan da gero eta datu-kopuru handiagoa gorde ahal izateko. Gaur egun, informazioa gordetzeko, tratatzeko eta kudeatzeko beharrek sistemaren ahalmena gainditu dute, eta, horregatik, ezinbestekoa da sistema berri bat garatzea etorkizunean interakzioa erraza izan dadin eta lurzoruaren kalitatean interesatuta dauden beharretarako egokitu dadin.</i></p> <p>Ekintza hori 2006. urtean jarri zen martxan, eta lurzoruaren kalitateari buruzko informazio-sistema diseinatzea, garatzea eta kudeatzea du helburu. Hona hemen sistemaren funtzioak:</p> <p>Lursail bakoitzarentzat, lurzoruaren kalitateari buruz egon daitezkeen datu guztiak gordetzea.</p> <p>Lurzoruaren kalitatearen deklarazio-prozeduraren segimendua egiteko eta hura optimizatzeko oinarritzat erabiltzea <i>EAEko lurzoria ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko 1/2005 Legearen</i> arabera.</p> <p>1/2005 legea eta arlo horretan dauden edo etorkizunean egon daitezkeen beste lege batzuk aplikatzeko prozesuan sortzen diren dokumentuak erregistratzea (adibidez, inbentariorako kontsultak, egoera-txostenak, lurzoruaren kalitatearen deklaraziorako sortutako dokumentuak, etab.) .</p>	

1. PR	EZAGUTU: SENTSIBILIZAZIOA, INFORMAZIOA, PRESTAKUNTZA ETA IKERKETA
1. EL	LURZORUAREN KALITATEARI BURUZKO INFORMAZIOA BILTzea, ANTOLATZEA ETA KUDEATZEA
1.1.E	Uneko beharretara egokitzea eta lurzoruaren kalitateari buruzko informazio-sistema kudeatzea
<p>Datuak tratatzea, eduki daitezkeen beharretara egokitutako informazioa emateko.</p> <p>Hainbat helburutarako diseinatutako txostenak eta kartografia egitea.</p> <p>Lurzoruaren kalitateari buruzko informazioa (adibidez, geologia, akuiferoen zaurgarritasuna, hidrologia, plangintza, etab.) interpretatzeko edo tratatzeko garrantzitsuak izan daitezkeen beste datu batzuk gordetzea (alfanumerikoki zein grafikoki).</p>	
Justifikazioa	
<p>Lehendik erabilgarri dagoen informazioaz gain, <i>EAEko lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko 1/2005 Legeak</i> betebeharrak eta tresna batzuk sortu ditu, eta horiek datu-bolumen handia eskuratzea ekarriko dute. Besteak beste, inbentariatzeko-prozesuan (33. artikulua) egoera-txostenen bidez lortutakoak (horiek, nagusiki, gaur egun martxan dauden jardura industrialei eragingo die (6. artikulua)) edo lurzoruaren kalitatea deklaratzeko prozesuan (11-16. artikulua) gauzatuko diren ikerketa eta saneamenduen bidez lortutakoak aipatzea merezi du.</p> <p>Legearen arabera, hura aplikatzean lortzen den informazio guztia <i>Lurzoruaren kalitatearen erregistro administratiboan</i> gorde behar da. Erregistro horren helburu nagusia da lurzorua poluzioaren aurka babesteko arloan segurtasun juridikoa eta herritar guztien informazioa jasotzeko eskubidea bermatzea.</p> <p>Funtsezkoa da informazio hori edukitzea eta eskuragarri egotea, lurzorua babesteari buruzko politika garatzeko. Ekintza horrek erantzun eraginkorra emango dio informazio eguneratua eta egiazkoa lortzeko tresnaren beharriari. Tresna hori beharrezkoa da lurzoru poluituak (poluituta egon daitezkeen) behar bezala kudeatzeko.</p>	
Erronkak eta helburuak	
<p>Tresna informatiko berria diseinatzea, datuak sartzeko eta kontsulten aurrean txostenak egiteko automatizazio-maila altua izateko. Eta horri esker, errazagoa izango da inbentarioan eta lurzoruaren kalitatearen erregistro administratiboan gordetako informazioa erabiltzea eta hedatzea.</p> <p>Tresna bat egitea (segur aski web-a) informazioa argitaratzeko eta eguneratzeko, erabiltzaile-mota bakoitzaren beharretara egokituta dagoena.</p> <p>Inprimaki estandarizatuak prestatzea lurzoruaren kalitateri buruz hainbat iturritatik datozen datuak sisteman zuzenean sartu ahal izateko (aurretiko egoera-txostenak, lurzoruaren kalitatearen ikerketak, etab.).</p> <p>Lurzoruaren kalitateari buruzko erregistro administratiboan egindako kontsultei eraginkortasunez erantzutea.</p>	
Ekintzaren garapenean inplikaturako eragile nagusiak	
<p>Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila</p> <p>Informazio garrantzitsua duten gobernuko beste sail batzuk (adibidez, lurraldearen ezaugarriei buruzkoa edo kokaleku poluituen (poluituta egon daitezkeen) etorkizuneko kudeaketari buruzkoa)</p> <p>Informazio-sisteman sar daitezkeen informazioa duten aldundiak eta udalak</p>	
Ekintzaren emaitzen hartzaileak	
<p>Lurzoruen (poluituta egon daitezkeenak) jabeak eta edukitzaileak</p> <p>Lurzoruaren kalitatea deklaratzeko prozedura egiteko eta hainbat neurri hartzeko arduradunak</p> <p>Lurzoruaren kudeaketan zuzenean inplikaturako herri-administrazioak</p> <p>Lurzoruaren kalitatearen balorazioa eskatzen duten prozedura administratiboan herri-administrazio arduradunak</p> <p>Jabetzaren notarioak eta erregistratzaileak</p>	

1. PR	EZAGUTU: SENTSIBILIZAZIOA, INFORMAZIOA, PRESTAKUNTZA ETA IKERKETA					
1. EL	<i>LURZORUAREN KALITATEARI BURUZKO INFORMAZIOA BILTzea, ANTOLATZEA ETA KUDEATZEA</i>					
1.1.E	Uneko beharretara egokitzea eta lurzoruaren kalitateari buruzko informazio-sistema kudeatzea					
Epea						
Lurzoruaren kalitateari buruzko informazio-sistema berriaren garapena 2006 eta 2007an hasiko da eta beste 24 hilabetez luzatuko da. Sistemaren kudeaketa urtean behin planifikatuko da.						
Aurrekontuaren kalkulua						
1.1.E	2007	2008	2009	2010	2011	2012
Giza balia.	50.000 €	50.000 €	50.000 €	50.000 €	50.000 €	50.000 €
Balia. finantz.	250.000 €	200.000 €	200.000 €	50.000€	-	-

1.2 ekintza. Lurzoruaren kalitateari buruzko informazio eguneratua edukitzea

1. PR	EZAGUTU: SENTSIBILIZAZIOA, INFORMAZIOA, PRESTAKUNTZA ETA IKERKETA
1. EL	LURZORUAREN KALITATEARI BURUZKO INFORMAZIOA BILTzea, ANTOLATzea ETA KUDEATzea
1.2.E	Lurzoruaren kalitateari buruzko informazio eguneratua edukitzea
Aurrekariak eta deskribapena	
<p>Lurzoru poluituen lehen kasuak identifikatutakoan, arazoaren larritasuna mugatzea izan zen lehentasunezko zeregina. Hainbat hurbilketa-fase egindakoan, 2002an poluituta egon daitezkeen lurzoruen inbentarioaren lehen bertsioa amaitu zen Euskal Autonomia Erkidegoko 251 udalerrientzat.</p> <p>Ondoren, 2005ean eta 2006an, inbentarioko datuen eguneratze orokorra egin zen. Datu horiek kokaleku-mota garrantzitsuenetako bati buruzkoak dira, hain zuzen, hondakindegiei buruzkoak. 2006an, gainerako lurrei buruzko informazioaren berrikuspenari ekin zitzaion: lurzoru industrialak, gaur egun utzita daudenak eta beste erabilera bat dutenak edo martxan dauden jarduera industrialetarako erabiltzen direnak.</p> <p>2007aren amaieran lurzoru polui dezaketen jarduerak egin diren lursail guztiei buruzko informazio eguneratua edukiko den arren, azken helburua da sistema bat diseinatzea eta martxan jartzea une oro lurzoruaren kalitateari buruzko daturik berrienak edukitzeko.</p> <p>Informazioa etengabe eguneratu beharra alderdi hauetaraino iritsiko da: lursail-mota bakoitzarentzat egiten diren ekintza guztiak; lurzoru polui dezaketen jarduerak egiten diren lursailen egoera-txostenak, lurzoruaren kalitateari buruzko ikerketak eta lurzoruaren kalitatea deklaratzeko prozesuaren barruan dauden lurrentzako saneamendu-proiektuak edo inbentarioko datuak, poluituta egon daitezkeen eta 1/2005 Legean aipatzen diren egoeretako bat ere gertatzen ez den (deklarazio-prozesuaren ondorioz) kokalekuen kasuan.</p>	
Justifikazioa	
<p><i>Lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko 1/2005 Legearen</i> printzipioen artean dago (3. artikulua) Euskal Autonomia Erkidegoko lurzoruaren kalitatean izandako aldaketen ezagutzari eta kontrolari lehentasuna ematea. Horretarako, eta 1.1 ekintzaren justifikazio-atalean adierazi den bezala, legeak betebeharrak eta tresna batzuk sortzen ditu, eta horiek ekintza honetan ere aplikatu daitezke.</p> <p>Legea aplikatuzetik lortutako datuak errazago gorde eta kudeatzeko euskarri informatikoa garatzeko balio du aurreko ekintzak, eta beste hau, batetik, informazioa etengabe eguneratuta dagoela bermatzeko eta, bestetik, ahal den neurrian, datuen koherentzia eta egiazkotasuna bermatzeko.</p> <p>Inbentarioa eta Lurzoruaren kalitateari buruzko erregistro administratiboa erabilera handiko informazio tresnak dira lurzoruaren poluzioa prebenitzeko eta zuzentzeko politikan inplikaturako eragileentzat, hala nola herri-administrazioentzat, lurzoru polui dezaketen jardueren edo instalazioen pertsona titularrentzat edo lurzoruen jabe edo edukitzaileentzat.</p>	
Erronkak eta helburuak	
<p>Lurzoruaren kalitateari buruzko informazioa eguneratzeko prozesu iraunkorra egitea eta martxan jartzea, erabakiak hartzeko prozesuetan erabiltzeko. Horretarako, iturri hauetatik eratorritako informazioa (1/2005 legea aplikatuzetik lortutakoa) sistematikoki bildu behar da:</p> <p>Lurzoruaren poluitzaile izan daitezkeen jarduerak dituzten lurzoruen inbentarioa eguneratzea (lurzoru industrialak zein hondakindegia)</p> <p>Lurzoruaren kalitatea deklaratzeko prozedura</p> <p>Aurretiko egoera-txostenak eta lurzoruaren kalitatearen egoerari buruzko aldizkako txostenak</p> <p>Hondo naturalaren eta hondo antropikoaren (poluzio barreiatua) mailari buruzko informazioa</p> <p>Beste arau batzuk betetzetik lortutako datuak (adibidez, hondakindegiei buruzko erregulazioa edo poluitzaile organiko iraunkorrei buruzko Stockholmeko Hitzarmena).</p> <p>Informazio-iturri garrantzitsu izan daitezkeen erakunde guztiekin lankidetzaren eta koordinazio-bideak ezartzea.</p> <p>Batetik, <i>Lurzoruaren poluitzaile izan daitezkeen jarduerak dituzten lurzoruen inbentarioa</i> onartzen duen eta,</p>	

1. PR	EZAGUTU: SENTSIBILIZAZIOA, INFORMAZIOA, PRESTAKUNTZA ETA IKERKETA					
1. EL	LURZORUAREN KALITATEARI BURUZKO INFORMAZIOA BILTzea, ANTOLATZEA ETA KUDEATZEA					
1.2.E	Lurzoruaren kalitateari buruzko informazio eguneratua edukitzea					
bestetik, hura etengabe eguneratzea arautzen duen dekretu bat aldarrikatzea, eta, horretarako, prozedurarik eraginkorra ezarri.						
Ekintzaren garapenean inplikaturako eragile nagusiak						
Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren zerbitzu guztiak						
Ekintzaren emaitzen hartzaileak						
Lurzoruen (poluituta egon daitezkeenak) jabeak eta edukitzaileak Lurzoruaren kalitatea deklaratzeko prozedura egiteko eta hainbat neurri hartzeko arduradunak Lurzoruaren kudeaketan zuzenean inplikaturako herri-administrazioak Lurzoruaren kalitatearen balorazioa eskatzen duten prozedura administratiboen herri-administrazio arduradunak Jabetzaren notarioak eta erregistratzaileak						
Epea						
Urte bat						
Aurrekontuaren kalkulua						
1.2.E	2007	2008	2009	2010	2011	2012
Giza baliabi.	100.000 €	200.000 €	200.000 €	200.000 €	200.000 €	200.000 €
Balia finantz.	750.000 €	50.000 €	50.000 €	100.000 €	100.000 €	100.000 €

2. EL. Jakintza sortzea

2.1 ekintza. Jakintza-alar anitzeko lantalde iraunkorrak sortzea hainbat diziplinatan

1. PR	EZAGUTU: SENTSIBILIZAZIOA, INFORMAZIOA, PRESTAKUNTZA ETA IKERKETA
2. EL	Lurzoru poluituen arloko jakintza sustatzea
2.1.E	Jakintza-alar anitzeko lantalde iraunkorrak sortzea hainbat diziplinatan
Aurrekariak eta deskribapena	
<p><i>Lurzorua babesteko plan zuzentzailea</i> (1994) eta horren ondorioz garatutako tresnak egiteko jakintza-arlo anitzetako lantaldeak sortu ziren, poluzioak lurzoruan sortzen dituen kalteei buruzko jakintza oraindik mugatua zen arloan.</p> <p>Harrezkero, profesional, lantalde eta ikerketa-talde ugari espezializatu dira arlo horretan biltzen diren gaietan. Jakintzaren hainbat alorretatik egindako ekarpenen bidez lortzen den sinergiaren emaitza positiboak lortzeko aritzen dira lanean horietako batzuk.</p> <p>Lehendik dauden egitura eta estrategietan oinarrituta, ekintza honen bidez, denboran iraungo duten jakintza-alar anitzeko lantaldeak sortu nahi dira, lurzoru poluituen politika aplikatzeko tresna teknikoak edo metodologikoak garatzen laguntzeko.</p> <p>Halaber, ekintza honen helburuaren barruan sartzen dira nazioarteko lantaldeetan zuzenean parte hartzeko ekimenak edo Euskal Autonomia Erkidegoko adituen bidez talde horiekin eta adituekin lankidetzan aritzea sustatzen duten ekimenak.</p>	
Justifikazioa	
<p>Lurzorua babesteko politika garatzeko tresna ugari garatu behar dira, administrazioak arlo horretan egiten dituen jardueri laguntzeko. Lurzoruaren kalitatearen estandarrak, lurzoru poluituak ikertzeko gida teknikoak eta metodologikoak edo lurzoruaren kalitatearen irizpidea hirigintza-plangintzan, -kudeaketan eta -jardueran sartzeko jarraibideak dira tresna horietako batzuk, eta horretarako sortutako lantaldeen bidez sortu dira azken urteetan.</p> <p>Euskal Autonomia Erkidegoko errealitate espezifikoak sakontasunez ezagutzen duten adituen eta jakintza-alar anitzeko lantaldeen bidez bakarrik berma daiteke lurzoruen politika bere hedapen osoan. Egitura tekniko-zientifiko egonkorra eratzeko izango da bide bakarra, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak laguntza etengabea izan dezan sor daitezkeen beharrei erantzun aditua eta azkarra emateko.</p> <p>Europako lurzoru babesteko gaikako strategiaren barruan sortutako lantaldeak bat datoz lurzoru poluituak ikertzeko eta berreskuratzeko prozedura batzuk homogeneizatu behar direla adieraztean (adibidez, arrisku-analisia), eta, bestetik, lurzoru poluituetatik eratorritako arazoak konpontzeko proiektu integralak garatu behar direla (teknikoak, ingurumenekoak, ekonomikoak, sozialak, hirigintzakoak, etab.).</p> <p>Lurzoruaren poluzioarekin zerikusia duten arloetan espezializatutako Euskal Autonomia Erkidegoko ikertzaileek ekimen horietan parte hartzea funtsezkoa da, haietan garatutako jakintza partekatzeko eta lurzoru poluituei buruzko politiken definizioan eta aplikazioan ezartzeko.</p>	
Erronkak eta helburuak	
<p>Talde tekniko iraunkorrak sortzea, lurzoru poluituen politikaren aplikaziotik eratorritako beharrek in lotura zuzena duten lanak garatzeko (adibidez, lurzoruarentzat edo lur azpiko urentzat konposatu berrientzako erreferentzia-maila generikoak garatzea, datu-base toxikologikoak edo ekotoxikologikoak hobetzea, arriskuak aztertzeko prozedurak berrikustea edo saneamendu-teknikak aplikatzea)</p> <p>Administrazioaren eta lantaldeen arteko lankidetzak-formulak aztertzea</p> <p>Hainbat urtetarako lan-plana egitea taldeen iraunkortasuna bermatzeko</p> <p>Arlo tekniko-zientifikokoak ez diren lantaldeak eratzeko aukera aztertzea (abokatuak, ekonomistak edo hirigileak)</p>	

1. PR	EZAGUTU: SENTSIBILIZAZIOA, INFORMAZIOA, PRESTAKUNTZA ETA IKERKETA					
2. EL	Lurzoru poluituen arloko jakintza sustatzea					
2.1.E	Jakintza-alor anitzeko lantalde iraunkorrak sortzea hainbat diziplinatan					
Identifikatzea nazioarteko zein lantaldetan parte hartzea komeni den, ondoren parte hartzeko estrategia prestatzeko						
Ekintzaren garapenean inplikaturako eragile nagusiak						
Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila						
Ikerketa- eta garapen-lan gehienak akordio eta hitzarmenen bidez egin behar lirateke. Akordio horiek Euskal Autonomia Erkidegoko jakintza-sortzaileekin egin behar lirateke: unibertsitateak eta zentro teknologikoak						
Ekintzaren emaitzen hartzaileak						
Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila eta Eusko Jaurlaritzako gainerako sailak						
Beste herri-administrazio batzuk						
Lurzoru poluituak ikertzen eta berreskuratzen aritzen diren erakundeak						
Epea						
Urte bat						
Aurrekontuaren kalkulua						
2.1.E	2007	2008	2009	2010	2011	2012
Giza baliabi.	25.000 €	50.000 €	50.000 €	100.000 €	100.000 €	100.000 €
Balia.finantza.	25.000 €	25.000 €	25.000 €	25.000 €	25.000 €	25.000 €

2.2 ekintza. Zientzia eta teknologiari buruzko politika azpimarratzea jakintza sortzeko

1. PR	EZAGUTU: SENTSIBILIZAZIOA, INFORMAZIOA, PRESTAKUNTZA ETA IKERKETA
2. EL	INFORMAZIOA ANTOLATZEA ETA KUDEATZEA
2.2.E	Zientzia eta teknologiari buruzko politika azpimarratzea jakintza sortzeko
Aurrekariak eta deskribapena	
<p>Iraganean, lurzoruaren eta lur azpiko uren poluzioaren arloko ikerketa zientzia eta teknologiako plan orokorren bidez sustatu izan da. Horrek lerrokatze-falta ekarri du lurzoria poluzioaren aurka babesteko politikaren beharren eta plan horien arloan garatutako ikerketa-proiektuen artean.</p> <p>Lurzoru poluituen "merkatua" agertzeak merkatu horrek ordainduko duen jakintza-beharra sortuko du. Hori onartzea beharrezkoa izan arren, ez da ahaztu behar, batetik, jakintza-arlo bereziak daudela, eta horiek garatzeko laguntza instituzionala beharko dela, arlo horretako ikerketak administrazioarentzat baitira, eta bestetik, lurzoria babesteko politikaren egungo garapen-egoeran jarduera-mota horiek sustatzeko beharra dagoela.</p> <p>Ekintza honen bidez dagokien garrantzia eman nahi zaie lurzoruaren poluzioaren arloko azterketei eta haien ondorioei eta irtenbideei, oinarritzko ikerketaren eta ikerketa aplikatuaren ohiko kanalen bidez, lurzoru poluituen politika aplikatzeko jakintza sortu ahal izateko. Ekintza horren barruan sartzen da ikerketa- eta karakterizazio-teknikak eta lurzoru poluituak berreskuratzeko teknologiak ikertzea eta garatzea, EAEn testuinguruan egokienak eta eraginkorrenak identifikatzeko eta ebaluatzeko. Lurzoru poluituak aztertzeko eta berreskuratzeko teknologia berrien, azkarrenen eta merkeen azterketan eta baliozkotzean oinarritzen da.</p> <p>Ekintza hau aurrekoarekin osatuko da; izan ere, gai horietara bideratzen diren baliabideek jakintza-arlo anitzeko aditu-taldearen egonkortasuna lortzen lagunduko dute.</p>	
Justifikazioa	
<p>Lurzoruen eta lur azpiko uren poluzioak eta haien kudeaketak bigarren mailako ikerketa-arloa osatu dute orain dela gutxira arte. Gai hau nahiko berria denez, azterketa- eta ikerketa-lerroak garatu behar dira Euskal Autonomia Erkidegoko lurzoru poluituen kudeaketa egokia bultzatuko duen oinarri tekniko osoa emateko.</p>	
Erronkak eta helburuak	
<p>Jakintza sortzeko eta biltzeko gai den eskaintza zientifikoa eta teknologikoa garatzea. Jakintzari ekarpen garrantzitsua egiteko baliabide ugari behar direnez, eraginkortasun berezia izango dute jakintza biltzeko ekintzek.</p> <p>Elementuak gehitzea eragile publikoek eta pribatuek lurzoruaren edo lur azpiko uren poluzioak eragindako beharrei erantzuteko sortutako jakintza erabil dezaten.</p> <p>Koordinazio-maila altua lortzea lehenetsutako ikerketa-lerroak definitzen parte hartzen duten eragileen artean, laguntzak ikerketa-lerro estrategikora bideratzeko, eta, hala, lurzoru poluituen politika aplikatzeko, oinarritzko ikerketarentzat behar den laguntza ahaztu gabe.</p> <p>Programen proposamenean eta parte hartzeko proiektuetan aktiboki parte hartzea, eta, horretarako, EAEn eragileen parte-hartzea eta nazioarteko lankidetzaren proiektuak sustatzea eta demostrazio eta baliozkotze teknologikoko proiektuak bultzatzea.</p> <p>Interes handieneko arloetan ikerketa-lerroak sustatzea: poluituaren bioerabilgarritasuna, arriskua kalkulatzeko, ebaluatzeko eta lurzoruaren osasuna ebaluatzeko duten garrantziagatik; poluzioa arintzeko berreskuratzeko-teknikak (indargabetze naturala, <i>ex situ</i> teknologiak, <i>in situ</i> teknologiak); behin-behineko birgaitze-neurriak; eta teknologia horien jakintza-transferentzia</p> <p>Lurzoru poluituen saneamendu-/kudeaketa-esperientzia pilotuak sustatzea hirigintza-planik ez duten edo berehala egingo ez diren kokalekuetan (adibidez, hondakindegietan), behar bezain lan-epe luzeak bermatzeko</p>	

1. PR	EZAGUTU: SENTSIBILIZAZIOA, INFORMAZIOA, PRESTAKUNTZA ETA IKERKETA					
2. EL	INFORMAZIOA ANTOLATZEA ETA KUDEATZEA					
2.2.E	Zientzia eta teknologiari buruzko politika azpimarratzea jakintza sortzeko					
Ekintzaren garapenean inplikaturako eragile nagusiak						
<p>Eusko Jaurlaritzako sailak: Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila, Unibertsitate eta Ikerketa Saila eta Industria, Turismo eta Merkataritza Saila dira inplikaziorik handiena dutenak lerro estrategikoen eta ikerketa-plan eta -programen definizioan.</p> <p>Jakintza-sortzaileak: unibertsitateak, zentro teknologikoak eta ikerketa-zentroak. Horiek egiten dituzte ikerketa- eta garapen-lan gehienak, beraiek bakarrik edo erakunde pribatuekin elkarlanean, bai erakunde publikoek, bai eragile pribatuek finantzaturako proiektuen esparruan.</p> <p>Lurzoruak ikertzen eta berreskuratzen edo lurzoru poluituekin zerikusia duten beste jarduera batzuetan aritzen diren eragile pribatuak.</p>						
Ekintzaren emaitzen hartzaileak						
<p>Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila izango da ekintza honen bidez eskuratutako jakintzaren zati handi baten hartzailea edo erabiltzailea.</p> <p>Lurzoruaren kudeaketan inplikaturako beste herri-administrazioak batzuk.</p> <p>Lurzoruak eta lur azpiko urak ikertzen eta berreskuratzen aritzen diren erakunde pribatuak eta ohiko jardueran lurzoruarekin aritzen diren beste erakunde batzuk: eraikuntza-sektoreko enpresak, lurralde-planifikatzaileak, lege-aholkulariak eta beste batzuk.</p>						
Epea						
Urte bat						
Aurrekontuaren kalkulua						
2.2.E	2007	2008	2009	2010	2011	2012
Giza baliabi.	25.000 €	25.000 €	25.000 €	25.000 €	25.000 €	25.000 €
Baliab.finantza.	575.000 €	600.000 €	600.000 €	600.000 €	600.000 €	600.000 €

3. EL. Sentsibilizazioa, informazioa eta prestakuntza

3.1 ekintza. Lurzoruaren poluzioarekin zerikusia duten funtsezko alderdien berri ematea eta haiek dibulгатzea

1.PR	EZAGUTU: SENTSIBILIZAZIOA, INFORMAZIOA, PRESTAKUNTZA ETA IKERKETA
3. EL	SENSIBILIZAZIOA, INFORMAZIOA ETA PRESTAKUNTZA
3.1.E	Lurzoruaren poluzioarekin eta lurzoru poluituak berreskuratzearekin zerikusia duten funtsezko alderdien berri ematea eta haiek dibulгатzea
Aurrekariak eta deskribapena	
<p>Ingurumenaren arlo guztietan onartzen den bezala, maila guztietako sentsibilizazioa funtsezko arrakasta-faktorea da ingurumena babesteko politika guztietan. Poluzioak, oro har, ingurumenean eta, zehazki, lurzorian dituen ondorioak barneratuz bakarrik berma daiteke arlo honetan egiten diren ekintzen benetako eraginkortasuna eta lurzoruaren erabilera iraunkorra.</p> <p>Iraganean ez zen estrategiarik diseinatu lurzoruaren poluzioaren ondorioei dagokienez kontzientzia handitzen laguntzeko. Arlo horretako ekintzak ez dira behar adina egituratu, eta, oro har, ez dira erlazionatu garrantzi berezia duten lurzoruaren poluzioaren kasu zehatzekin.</p> <p>Gabezia hori arintzeko, ekintza honek informazio- eta sentsibilizazio-maila handituko duen komunikazio-estrategia sistematikoa garatu nahi du. Estrategia hori lurzoruaren kudeaketan parte hartzen duten eragileei eta, oro har, herritarrei zuzenduta egongo da. Estrategia horrek arrakasta izan dezan, interes-talde bakoitzak bere ekintzen indar eragile gisa kontuan hartzen dituen alderdiak identifikatu beharko dira: giza osasuna eta ekosistemak babestea, lurzoria eta lur azpiko urak babesteko legeria, beste alderdi arau-emaile garrantzitsu batzuk (ingurumen-erantzukizuna, hondakindegia kudeatzea eta ixtea, hondakinak kudeatzea, etab.) edo lurzoria babesteko alderdi ekonomikoak.</p>	
Justifikazioa	
<p>Informazioa eta sentsibilizazioa oinarrizko bi euskarri dira iraunkortasunari dagokionez. Lurzoria babestea ez da salbuespena. Hala, orain dela gutxi argitaratu den <i>Lurzoria babesteko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren Direktibaren Proposameneko</i> (COM(2006)232 azkena) 15. artikulua sentsibilizazio eta parte-hartze publikoari buruzkoa da. Artikulu horren arabera, giza espezieak eta ekosistemak bizirauteko eta lurzoruaren erabilera iraunkorrerantz aurrera egiten lagunduko duten jakintza eta esperientzien transferentzia sustatzeko lurzoria duen garrantziaz herritarren kontzientzia areagotzeko behar diren neurriak hartu beharko dituzte EBko estatuak.</p> <p>Testuinguru horretan, esan daiteke kontzientzia soziala eta jakintza areagotuz bakarrik lor daitekeela lurzoruaren benetako erabilera iraunkorra finkatzea, hain zuen, arlo horretako legeriaren aplikazioa baino harantzago joango dena eta bizitzaren garapenerako lurzoria duen funtsezko papera ulertzetik sortuko dena.</p>	
Erronkak eta helburuak	
<p>Hartzailearen beharren arabera oinarrituta eta haietara egokituta dagoen informazio zehatza emango duen komunikazio-estrategia bat egitea eta ezartzea, lurzoruaren poluzioak giza osasunean eta ingurumenean dituen arriskuak edo lurzoria poluituta egoteagatik jabetzaren balioak jasan dezakeen murriztea kontuan hartzen dituen eta interes-talde bakoitzarentzat komunikazio-baliabiderik eraginkorrenak erabiltzen dituen.</p> <p>Plan honen edukiaren eta jarraibideen berri emateko formula bat planifikatzea lurzoruaren kudeaketarekin zerikusia duten alderdietan eskumena duten erakunde guztiek haren printzipioak onar ditzaten (gubernuko sailak, aldundiak, udalak, aholkulariak, elkarte profesionalak, etab.).</p> <p>Eragileak sentsibilizatzea haien produkzio-jarduerak lurzorian izan ditzaketan inpaktuei dagokienez, eta, horretarako, lurzoruaren poluzioa prebenituko duten jarduerak azpimarratzen dituzten prestakuntza-kanpainak egingo dira.</p>	
Ekintzaren garapenean inplikaturako eragile nagusiak	

1.PR	EZAGUTU: SENTSIBILIZAZIOA, INFORMAZIOA, PRESTAKUNTZA ETA IKERKETA					
3. EL	SENSIBILIZAZIOA, INFORMAZIOA ETA PRESTAKUNTZA					
3.1.E	Lurzoruaren poluzioarekin eta lurzoru poluituak berreskuratzearekin zerikusia duten funtsezko alderdien berri ematea eta haiek dibulгатzea					
Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila						
Ekintzaren emaitzen hartzaileak						
Erakunde publikoak Aldundiak eta udalak (hainbat sail) Gobernuko sailak Lurzoruaren kudeaketan esku –hartzen duten sozietate publikoak Eragile pribatuak Lurzorua polui dezaketen jardueren titularrak Higiezinaren sustatzaileak eta eraikitzaileak Arkitektoak eta hirigileak Lurzoru poluituen ikerketan eta berreskuratzean akreditatutako erakundeak Hiritarrak oro har						
Epea						
Urte bat						
Aurrekontuaren kalkulua						
3.1.E	2007	2008	2009	2010	2011	2012
Giza Baliab.	12.500 €	12.500 €	12.500 €	25.000 €	25.000 €	25.000 €
Balia.fi nantz.	100.000 €	75.000 €	40.000 €	25.000 €	33.750 €	25.000 €

3.2 ekintza. Lurzoruaren kudeaketan parte hartzen duten eragileen jakintza areagotzea

1. PR	EZAGUTU:
3. EL	EZAGUTU: SENTSIBILIZAZIOA, INFORMAZIOA, PRESTAKUNTZA ETA IKERKETA
3.2.E	Lurzoruaren kudeaketan parte hartzen duten eragileen jakintza areagotzea
Aurrekariak eta deskribapena	
<p>Iraganean, funtsezkotzat hartu izan da lurzoruaren kalitatea aldatzeari buruzko funtsezko alderdiak arazo horrek eragindako eragileei jakinaraztea eta helaraztea. Helburu hori lortzeko, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak lan-tailerrak antolatu eta haietan aktiboki parte hartu du. Tailer horiek hainbat interes-taldeei zuzenduta egon dira, esaterako, herri-administrazioei (bereziki udalei) eta lurzoria polui dezaketen jardueren titularrei.</p> <p><i>Lurzoria ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko 1/2005 Legea</i> onartu denetik, gero eta interes handiagoa dute arau horren aplikazioak eragiten dienek, poluzioa prebenitzeko eta lurzoru poluituak berreskuratzeko funtsezko alderdiak ezagutzen baitituzte. Prestakuntza-jarduera espezifikoak diseinatzeko interesa erakutsi dute hauek: lurzoria polui dezaketen jarduerak egiten dituzten titularrak, administrazioari eman behar dioten informazioaren irismenagatik eta jarduerak egiten dituzten lurren poluzioari dagokionez etorkizunean hartu beharko dituzten erantzukizunengatik kezkatuta; udalak eta beste herri-administrazio batzuk, lurzoria babesteko politikak beren ardurapeko prozedura administratiboei nola eragingo dien ulertu nahi dutenak; eta higiezinaren sustatzaileak, publikoak eta pribatuak, espazio poluituen (poluituta egon daitezkeen) garapenari egunero aurre egin behar baitiote.</p> <p>Orain arte, eskaeraren arabera eta Tokiko Agenda 21 edo EAEko enpresei zuzendutako ingurumen-arloko prestakuntza-tailerretan diseinatutako prestakuntza-estrategien zati gisa antolatu dira jarduera horiek.</p> <p>Prestakuntza sistematizatzeko helburuarekin ekintza hau sortu da. Horren zeregina da lurzoru poluituei buruzko prestakuntza-beharrak detektatu zaien interes-taldeentzako prestakuntza-plana diseinatzea eta martxan jartzea.</p> <p>Halaber, ekintza honen barruan sartzen da lurzoruaren poluzioarekin zerikusia duten alorretako teknikariak prestatzea, hain zuzen, sektore publikoan edo pribatuan jarduera profesionalak garatu ditzaketen teknikariak.</p>	
Justifikazioa	
<p>Lurzoruaren kudeaketan parte hartzen duten eragile askorentzat sentsibilizazioa ez da nahikoa. Jakintza espezializatua izan behar dute jarduerak indarrean dagoen legeriara eta erabilgarri dauden teknikariek aurreratuenetara egokituta daudela ziurtatuta garatu ditzaten.</p> <p>Prestakuntza-planeko interes-taldeak hauek izango dira: (a) industriako ingurumen-arduradunak, lurzoru poluitu gehiago ez agertzeko helburuarekin, (b) lurzoru poluituen politikaren kudeaketaz arduratzen diren funtzionarioak eta administrazioeko teknikariak, bereziki, lurzoru poluituei buruzko legeriak lurzoruaren kalitatea deklaratzeko prozedura eta antzeko beste batzuk hasteko eskatzeko eskumenak ematen dizkietenak (udaleko ingurumen-teknikariak, lizentzia-teknikariak, hirigintza-teknikariak eta abar, Eusko Jaurlaritzako eta foru-aldundietako teknikariak), (c) administrazioeko teknikariak, plangintzan, baimenak ematean edo lurzoru poluituak baloratzeko informazio garrantzitsua sortzean aritzen direnak, (d) erakunde akreditatuak eta (e) jabetza-erregistratzaileak eta notarioak.</p>	
Erronkak eta helburuak	
<p>Inplikaturako eragile guztiei zuzendutako prestakuntza-ekintzak, ekintza teknikoak eta juridikoak sistematikoki garatzea. Horietan indarrean dagoen kalitatea babesteari buruzko arauditik eta Europako Batasunean, Espainian edo Euskal Autonomia Erkidegoan onartzen diren araudiaren arabera betebeharren irismenaren berri emango da, baita betebeharrak erantzuteko nola jardun behar den ere.</p> <p>Prestakuntza-ikastaroak diseinatzea, lurzoruaren poluzioaren kudeaketan aritzen diren eragileek maila profesional egokia lor dezaten.</p>	

1. PR	EZAGUTU:					
3. EL	EZAGUTU: SENTSIBILIZAZIOA, INFORMAZIOA, PRESTAKUNTZA ETA IKERKETA					
3.2.E	Lurzoruaren kudeaketan parte hartzen duten eragileen jakintza areagotzea					
Lurzoru poluituak ikertzen eta berreskuratzen espezializatutako profesionalak aurrerago arlo horretako erakunde akreditatueta sar daitezten prestatzeko ekintzak identifikatzea eta martxan jartzea. Erronka honen azken helburua erakunde-masa kritikoa lortzea da, merkatuko beharrei erantzun zehatza eman ahal izateko.						
Ekintzaren garapenean inplikaturako eragile nagusiak						
Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila						
Sentsibilizatzen eta komunikazio- eta prestakuntza-ekintzak antolatzen lagun dezaketen erakundeak (erakunde ekologistak, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, enpresa-elkarteak, merkataritza-ganberak, eskualdeko garapen-elkarteak, etab.)						
Ekintzaren emaitzen hartzaileak						
Erakunde publikoak						
Aldundiak eta udalak (hainbat sail)						
Gobernuko sailak						
Lurzoruaren kudeaketan esku –hartzen duten sozietate publikoak						
Eragile pribatuak						
Lurzorua polui dezaketen jardueren titularrak						
Higiezinen sustatzaileak eta eraikitzaileak						
Arkitektoak eta hirigileak						
Lurzoru poluituen ikerketan eta berreskuratzean akreditaturako erakundeak						
Epea						
Urte bat						
Aurrekontuaren kalkulua						
A3.2	2007	2008	2009	2010	2011	2012
Giza baliab.	12.500 €	12.500 €	12.500 €	12.500 €	12.500 €	12.500 €
Baliab.finantz.	100.000 €	100.000 €	100.000 €	100.000 €	50.000 €	50.000€

3.3 ekintza. Lurzoruaren poluzioak eragindakoei arriskuaren berri ematea

1.PR	EZAGUTU: SENTSIBILIZAZIOA, INFORMAZIOA, PRESTAKUNTZA ETA IKERKETA					
3. EL	SENSIBILIZAZIOA, INFORMAZIOA ETA PRESTAKUNTZA					
3.3.E	Parte hartzeko mekanismoak eratzea erabakiak hartzeko prozesuetan					
Aurrekariak eta deskribapena						
<p>Lurzoruaren poluzioa hainbat sentsibilitate eta interes elkarrekin bizi diren ingurune geografikoetan gertatzen da. Bizilagunek, berreskuratzearen arduradunek (jabeak edo edukitzaileak), erabilera berriaren sustatzaileek, erakunde ekologistek edo administrazioko mailek oso modu desberdinetan hautematen dituzte lurzoruaren poluzioaren ondorioak eta, ondorioz, giza osasunarentzat edo ekosistementzat onartezina izan daitekeen arriskuaren ondorioak, eta, batzuetan, egoerak konponezina dela dirudi.</p> <p>Iraganean, garrantzi sozial handiko lurzoruaren poluzio-kasuetan ekintza espezifikoak jarri izan dira martxan, kasu bakoitzean inplikaturako taldeen informazioa eta parte hartzea koordinatzeko. Horretarako, beste arlo batzuetan erabilitako teknika eta metodologia orokorrak erabili dira, gure ingurunean ez baitago arriskuaren komunikazioaren arloko esperientzia espezifikorik.</p> <p>Ekintza honen helburua teknika egokiak garatzea da, horien bidez kokaleku jakin bateko lurzoruaren poluzioak eragindako guztiei informazio laburra eta erraz uler daitekeena emateko, hartzaile bakoitzarentzat bereziki diseinatutakoa eta poluzioari dagozkion alderdi garrantzitsuei buruzkoa, hala nola giza osasunarentzako eta ekosistementzako arriskua eta lursaila arrisku onargarriko egoerara itzultzeko aurreikusitako neurriak.</p>						
Justifikazioa						
<p>Lehen aipatu bezala, Lurzorua babesteko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren direktibaren proposamenak (COM(2006)232 azkena) dio beharrezkoa dela lurzoruari eta haren funtzioei buruzko jakintza orokorra areagotzeko, kontzientziazio-maila handitzeko eta jakintza-trukea sustatzeko neurriak hartzea. Halaber, herritarren parte-hartze goiztiarra eta eraginkorra bermatu behar dela dio.</p>						
Erronkak eta helburuak						
<p>Lan-metodologiak garatzea, arriskuaren berri modu ulergarrian eta labor emateko. Plangintzan, baimenak ematen edo informazio garrantzitsua sortzen inplikaturako administrazioko eragileentzat ekintza espezifikoak diseinatu behar dira lurzoruaren poluzioa baloratzeke.</p> <p>Parte-hartze instituzional eta sozialerako mekanismoak antolatzea garatutako metodologiak aplikatzeko.</p>						
Ekintzaren garapenean inplikaturako eragile nagusiak						
Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila						
Ekintzaren emaitzen hartzaileak						
Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila						
Lurzoruaren kudeaketan inplikaturako administrazioko hainbat maila						
Lurzoruaren poluzioak eragindako hainbat eragile						
Epea						
2008an hasiko da eta urtean behin egingo da						
Aurrekontuaren kalkulua						
3.3.E	2007	2008	2009	2010	2011	2012

1.PR	EZAGUTU: SENTSIBILIZAZIOA, INFORMAZIOA, PRESTAKUNTZA ETA IKERKETA					
3. EL	SENTSIBILIZAZIOA, INFORMAZIOA ETA PRESTAKUNTZA					
3.3.E	Parte hartzeko mekanismoak eratzea erabakiak hartzeko prozesuetan					
Giza baliab.	-	-	25.000 €	25.000 €	25.000 €	25.000 €
Baliab.finantz.	-	-	50.000 €	50.000 €	50.000 €	50.000 €

2. PR. ERAGIN: ADMINISTRAZIO EGITURATUA

4. EL. Ingurumen-organoaren ekintza optimizatzea eta lurzoru poluituei buruzko legeria aplikatzea

4.1 ekintza. Araudiaren aplikazioa eguneratzea, hobetzea eta sinplifikatzea, eta, horretarako, lurzoruaren kalitatea deklaratzeko prozedurari erantzutea.

2. PR	ERAGIN: ADMINISTRAZIO EGITURATUA
4. EL	<i>Ingurumen-organoaren ekintza optimizatzea eta lurzoru poluituei buruzko legeria aplikatzea</i>
4.1.E	Araudiaren aplikazioa eguneratzea, hobetzea eta sinplifikatzea, eta, horretarako, lurzoruaren kalitatea deklaratzeko prozedurari erantzutea; eta prozesuan txostenen egoerari buruzko informazioa ematea.
Aurrekariak eta deskribapena	
<p>Lurzorua poluzioaren aurka babestearen arloan jardueri dagokien lege-esparrua definitzen dute 1/2005 Legeak eta 9/2005 Errege Dekretuak. Lurzoruaren kalitatea deklaratzeko prozedura bideratzeko oinarritzko tresnak zehazten dituzte bi arau horiek. Legeria horrek agindutakoari jarraiki, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila prozedura hori aplikatzen hasi da 1/2005 Legeko 17. artikulua aipatzen dituen egoeretako bat gertatzen den kasu guztietan. Duela urte batzuetatik egiten da hori, baina ez hain sistematikoki.</p> <p>Aplikazioaren uniformetasunari eta eraginkortasun administratiboari dagokionez prozedura optimizatzeke, legearen lehen urteetan, garapen-araudia eta araudiaren aplikazioa hobetzeke eta sinplifikatzeko prozedurak egin dira. Helburu horrekin garatu ziren Lurzoruaren poluitzaile izan daitezkeen jarduerak dituzten lurzoruen inbentarioa edo lurzoruaren poluzioa ikertzeko gida teknikoak eta metodologikoak. Gida horien edukia <i>urriaren 10eko 1/2006 Dekretuaren</i> bidez onartu zen ofizialki. Lurzoruaren kalitatea ikertzeko eta berreskuratzeko erakundeak akreditatzeko sistema ezartzen du dekretu horrek, eta erakunde horiek egin beharreko lurzoru-kalitatearen ikerketen edukia eta irismena zehazten du. Halaber, lurzoru poluituak ikertzeko eta berreskuratzeko jarduerak egiten dituzten erakundeak nola akreditatuko diren ere arautzen du, haien ekintzak administrazioak onar ditzan lurzoruaren kalitatea deklaratzeko prozeduran. Helburu bera du lurzoruaren egoerari buruzko aurretiko txostena egiteko metodologia espezifikoak argitaratzeak. Txosten hori lurzoru polui dezaketan eta martxan dauden jarduerak aurkeztu behar dituzte.</p> <p>Horiek izan dira aukera honen helburuak lortzeko eman diren lehen urratsak. Plan hau indarrean dagoen bitartean, araudiaren aplikazioa optimizatzeke jauzi kuantitatiboa ematea izango da helburua. Horretarako, kudeaketa-tresnak eta barneko hobekuntza-prozedurak garatuko dira herritarra-administrazioa erlazioa sinplifikatzeko eta optimizatzeke.</p> <p>Bestalde, Lurzoruaren kalitatea deklaratzeko prozeduraren testuinguruan, prozesuko etapetan egiten diren txostenen egoeraren berri garaiz emango zaie alde interesatuei.</p>	
Justifikazioa	
<p><i>Lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legeak</i> tresna batzuk ezartzen ditu administrazioaren esku, Euskal Autonomia Erkidegoko lurzoru poluituen politikaren printzipioak eraginkorrak izan daitezzen. Lege horrek araudia garatzea aurreikusten du, eta lurzoruaren kalitatea deklaratzeko prozesuan prozedurak eta tresnak garatzeko beharra adierazten du.</p> <p>Halaber, <i>lurzorua polui dezaketan jardueren zerrenda eta lurzoru poluituak deklaratzeko irizpideak eta estandarrak ezartzen dituen urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretuak</i> autonomia-erkidegoen esku uzten ditu herritarrei zerbitzu hobea emateko zeregin batzuk.</p>	
Erronkak eta helburuak	
<p>1/2005 Legeak sortutako Lurzoruaren kalitatearen erregistro administratiboaren edukia eta funtzionamendua arautzeko dekretua aldarrikatzea.</p> <p>Mekanismoak diseinatzea eta martxan jartzea lurzoruaren kalitatearen arloan Ingurumen eta Lurralde</p>	

2. PR	ERAGIN: ADMINISTRAZIO EGITURATUA					
4. EL	<i>Ingurumen-organoaren ekintza optimizatzea eta lurzoru poluituei buruzko legeria aplikatzea</i>					
4.1.E	Araudiaren aplikazioa eguneratzea, hobetzea eta sinplifikatzea, eta, horretarako, lurzoruaren kalitatea deklaratzeko prozedurari erantzutea; eta prozesuan txostenen egoerari buruzko informazioa ematea.					
<p>Antolamendu Sailak, jabetzaren erregistratzaileek eta EAeko notarioek egiten dituzten jarduerak koordinatzeko, erregistroaren publikotasuna lurzoruaren poluzioa prebenitzeko eta zuzentzeko erabili ahal izateko. Koordinazioaren esparruan, sistemak sortuko dira aipatutako erakundeen artean informazioa azkar, sistematikoki eta modu frogagarrian trukatzeko, eta informazio hori lurzoria babesteari buruzko araudian aurreikusitako moduan hedatzeko.</p> <p>Poluituta egon daitezkeen lurzoru-erakundearen jardueren kalitatea hobetzea, eta, horretarako, lurzoru poluituen ikerketan eta berreskuratzean adituak akreditatzeko sistema jarriko da martxan. Sistema horren bidez, besteak beste, erakunde akreditatuei pixkanaka atribuzioak ematea lortu nahi da, lurzoru-erakundearen jarduerak sinplifikatzea eta bizkortzea ekarriko duten baldintzak sortzeko.</p> <p>1999/2006 Dekretuak zehazten dituen lurzoru-kalitatearen ikerketen eta berreskuratzearen edukia eta irismena gertatzen diren aurrerapen zientifikoetara egokitzea.</p> <p>Prebentzio-neurriak sistematizatzea eta orokortzea. Horretarako, aurretiko egoera-txostenek emandako datuen balorazio zehatzaz gain, informazio osagarria eta aldizkako egoera-txostenak eskatuko dituen sistema bat egingo da, jarduera industrialen potentzial poluitzailearen eta ingurune fisikoaren ezaugarrien arabera.</p> <p>Lurzoruaren kalitatea deklaratzeko prozeduraren barne-segimendua optimizatzeke sistema informatiko bat diseinatzea eta ezartzea (ikus 1.1 ekintza). Sistema horrek prozedura osatzen duten faseak kontrolatzea ahalbidetuko du.</p> <p>Lurzoruaren kalitatea deklaratzeko prozedura hasten den kasuetan, prozesuan egiten diren txostenen egoerari buruzko informazioa ematea interesatuei.</p> <p>Lurzoru poluituei buruz indarrean dagoen araudia aplikatzeko irizpideak bateratzea. Horretarako, interpretazio-/aplikazio-gida argitaratuko da, legearen indarraldiaren denboraldi bat igarotakoan, irizpide uniformeak eta koherenteak edukitzeko kasuistika ezberdinen kopurua mugagabea den arlo honetan. Iraganen noizbait egin izan den moduan, interes-taldee zuzendutako zirkularrak erabiliko dira horri buruzko interes orokorreko alderdien berri emateko.</p>						
Ekintzaren garapenean inplikaturako eragile nagusiak						
Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila						
Ekintzaren emaitzen hartzaileak						
<p>Lurzoruaren kalitatea deklaratzeko prozedura martxan jartzeko arduradunak</p> <p>Poluituta egon daitezkeen kokalekuen jabeak eta edukitzaileak</p> <p>Lurzoruaren kalitatean interesatutako herritarrak eta erakundeak</p> <p>Lurzoru polui dezaketzen jardueren titularrak</p> <p>Lurzoru poluituen ikerketan eta berreskuratzean akreditatutako erakundeak</p> <p>Notarioak eta erregistratzaileak</p>						
Epea						
Urte bat						
Aurrekontuaren kalkulua						
4.1.E	2007	2008	2009	2010	2011	2012
Giza baliab.	75.000 €	150.000 €	150.000 €	150.000 €	200.000 €	200.000 €
Balia.finantz.	100.000 €	150.000 €	150.000 €	150.000 €	150.000 €	150.000 €

4.2 ekintza. Araudia betetzen dela ziurtatzea

2. PR	ERAGIN: ADMINISTRAZIO EGITURATUA
4. EL	<i>Ingurumen-organoaren ekintza optimizatzea eta lurzoru poluituei buruzko legeria aplikatzea</i>
4.2.E	Araudia betetzen dela ziurtatzea
Aurrekariak eta deskribapena	
<p>Alderdi prebentiboari zein zuzentzaileari dagokienez, lurzoria babesteari buruzko araudia betetzea da 2007-2012ko Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoru poluituen plan honen lehentasunetako bat.</p> <p>Norberaren erantzukizunaren printzipioa betetzea eta legearen obligaziopean daudenak behar bezala jardutea eskatzen du plan honek, beren ardurak bere gain har ditzaten; nolahi ere, ekintza honen helburua da administrazioaren tresna guztiak erabiltzea, "lagunkoienetatik" "hertsatzaileetaraino", betiere araudia betetzeko eta, gainera, hura arrazionalki eta proportzionalki aplikatzeko xedearekin.</p> <p>Ekintza hau gauzatzeko, plan honetako beste ekintza-lerro batzuetan sartutako ekintzak erabiliko dira, esaterako, informaziori buruzko sentsibilizazio-kanpainak, lurzoruaren poluzioa prebenitzeko diseinatutako beste ekintza espezifikoko batzuk (martxan dauden jarduera industrialen lurzoru-kalitatearen egoerari buruzko txostenen segimendua egitea edo prebentzio-neurriak hartzea beste araudi batzuen bidez, esaterako, ingurumen-baimen integratuari, jarduera-lizentziei edo ingurumen-inpaktuaren ebaluazio indibidualizatuari edo bateratuari buruzkoa) edo lurzoria berreskuratzeko ekintzak, batik bat, ikuskapen-planen bidez.</p> <p>Gaur egungo egoeran oraindik araudia betetzeko funtsezko tresnatzat hartu behar diren ikuskapen-planak hiru alderdi hauen bidez garatuko dira: (a) lurzoria polui dezaketen jardueren ikuskapena, (b) lurzoruaren kalitatea deklaratzeko prozeduraren eraginpean dauden poluitutako kokalekuen ikuskapena, lege-eskakizunak eta arlo horretako ebazpenen eskakizunak betetzen direla egiaztatzeak, eta (c) lurzoruaren kalitatea deklaratzeko prozedura martxan jartzea behartzen duten egoeretako bat duten eta betebeharrak hori bete gabe jarduerak gauzaten ari diren kokalekuen ikuskapena.</p>	
Justifikazioa	
<p>Euskal Autonomia Erkidegoko lurzoria ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legeak, lurzoria polui dezaketen jardueren zerranda eta lurzoru poluituak deklaratzeko irizpideak eta estandarrak zehazten dituen urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretuak eta beste araudi sektorial batzuek lege-esparru garbia osatzen dute, lurzoruaren poluzioa prebenitzeari eta jadanik poluituta dauden kokalekuen saneamenduari dagokionez. Administrazioak, maila guztietan, eta bereziki, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak —herritarren osasunaren eta ekosistemen funtzionamendu egokiaren bermatzaile gisa— bere gain hartzen du legeria betetzen dela ziurtatzeko betebeharra, besteak beste.</p>	
Erronkak eta helburuak	
<p>Araudia betetzen laguntzen duten baldintzak sortzea, eta, horretarako, 3. ekintza-lerroan (Sentsibilizazioa, informazioa eta prestakuntza) aurreikusitako ekintzak erabiltzea.</p> <p>Lurzoria eta lur azpiko urak babestea lurzoria polui dezaketen jardueren ikuskapenen barruan sartzea, Eusko Jaurlaritzaren ikuskapen-planarekin eta haren lehentasunekin bat etorriz. Ikuskapen horien helburua, nagusiki, enpresek aurretiko txostenetan eta lurzoruaren egoerari buruzko aldizkako txostenetan emandako datuak egiaztatzea izango da.</p> <p>Lurzoru poluituen ikuskapen espezifikokoak egitea, lurzoruaren kalitatea deklaratzeko prozeduratik eratorritako ekintzen segimenduan eta legearen eskakizunak bete ez dituzten jardueren identifikazioan oinarrituta.</p> <p>Lurzoruaren poluzioaren prebentzioa azpimarratzea beste araudi sektorial batzuen bidez (ingurumen-baimen integratua, jarduera-lizentzia, ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa, etab.)</p>	
Ekintzaren garapenean inplikaturako eragile nagusiak	
Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila	

2. PR	ERAGIN: ADMINISTRAZIO EGITURATUA					
4. EL	<i>Ingurumen-organoaren ekintza optimizatzea eta lurzoru poluituei buruzko legeria aplikatzea</i>					
4.2.E	Araudia betetzen dela ziurtatzea					
Beste araudi sektorial batzuen aplikazioan eskumenak dituzten beste administrazio batzuk (udalak eta aldundiak, jarduera-lizentziak emateko, edo aldundiak, ingurumen-inpaktuaren ebaluazio indibidualizatua edo bateratua egiteko)						
Ekintzaren emaitzen hartzaileak						
Lurzorua poluzioaren aurka babesteko legeriatik eta zerikusia duten beste araudi sektorial batzuetatik eratorritako betebeharrak betearazteko arduradunak						
Lurzorua polui dezaketen jardueren titularrak						
Lurzoruaren kalitatea deklaratzeko prozedura martxan jartzeko arduradunak						
Poluituta egon daitezkeen kokalekuen jabeak eta edukitzaileak						
Epea						
Urte bat						
Aurrekontuaren kalkulua						
4.2.E	2007	2008	2009	2010	2011	2012
Giza baliab.	50.000 €	75.000 €	100.000 €	100.000 €	100.000 €	100.000 €
Balia.finan tz.	150.000 €	150.000 €	150.000 €	150.000 €	150.000 €	150.000 €

5. EL. Administrazio mailen artean lankidetzeta-baldintza egokiak sortzea lurzoru poluituetan esku-hartzea aurreratzeko

5.1 ekintza. Lurzorua babesteari buruzko politika beste politika batzuetan sartzea

2.PR	ERAGIN: ADMINISTRAZIO EGITURATUA
5. EL	<i>Administrazio mailen artean lankidetzeta-baldintza egokiak sortzea lurzoru poluituetan esku-hartzea aurreratzeko</i>
5.1.E	Lurzorua babesteari buruzko politika beste politika batzuetan sartzea
Aurrekariak eta deskribapena	
<p>Lurzoruak hainbat erabilera eta funtzio dituenaz, argi dago lurzoru poluzioaren aurka babesteko politikak arrakasta izan dezan, babes-irizpideak ingurumenarekin lotzen diren politika eta estrategia guztietan sartu behar direla. Bi alderdi hauek kontuan hartuta aztertu behar da hori: batetik, lurzoru poluituek beste estrategia batzuk garatzeko ekar ditzaketen ondorioak, eta, bestetik, beste politika batzuek lurzoru poluituetako esku-hartzeari ezar diezazkioketen mugak.</p> <p>Lehenengo alderdiari dagokionez, iraganean, lurzoru poluzioaren aurka babesteko legeria espezifikorik ez zegoenez, ahalegin gutxi egin da lurzoru poluituetako esku-hartzeek hainbat mailatan izan ditzaketen ondorioak ez ahazteko. Lurralde-antolamendua eta hirigintza-plangintza izan da arreta gehien jaso duen arloa, segur aski, erabilerak espazioan planifikatzeari dagokionez lurzoruaren kalitateak dituen eraginengatik eta indar eragile gisa eta irtenbide-iturri gisa duen ahalmenengatik. Plan hau indarrean dagoen bitartean, beste erakunde batzuekin (udalak, aldundiak) lanean eta lankidetzan aritzeko arlorik garrantzitsuena izaten jarraituko du horrek.</p> <p>Bigarren alderdiari dagokionez, berriz, Europako direktibak eta oraindik proposamen gisa dauden direktibak izango dira kontuan hartu beharreko erreferenteak. Baliteke lurzoru babesteko politikaren diseinuan eta aplikazioan hurbileko etorkizunean eragin handiena izatea arau hauek: <i>Lur azpiko uren direktibaren</i> proposamena, <i>Hondakinen direktibaren</i> proposamena eta <i>Ingurumen-erantzukizunaren direktiba</i>, <i>Lurzorua babesteko direktibaren</i> proposamena ahaztu gabe.</p> <p>Lehenengo urrats gisa, integrazioarako tresna erabilgarriak identifikatuko dira ekintza honen bidez, hainbat politika sektorialetan eskumenak dituzten erakundeen lankidetzarekin, ondoren, tresna horiek integratzeko modurik onena diseinatzeko eta martxan jartzeko.</p>	
Justifikazioa	
<p>Lurzorua babesteko, beharrezkoa da ingurumen-alderdiekin eta giza jardueraren hainbat arloekin interakzionatzen duen sistema gisa ikustea haren erabilera eta funtzioei dagokienez. Lurzoru babesteko politika bere hedapen osoan garatzeko modu bakarra da Europako egungo eta etorkizuneko araudiak ezarritako printzipioetan eta aginduetan oinarritutako integrazio-estrategia bat diseinatzea.</p>	
Erronkak eta helburuak	
<p>Ekintza honen erronka nagusia tresnak identifikatzea izango da, eta, horretarako, lantaldeak eratuko dira. Horietan, eskumena duten erakunde guztiek parte hartuko dute, eta lurzoruaren babesa hainbat politika sektorialetan integratzea ahalbidetuko dute. Azken helburu gisa, arlo hauetan ekintza espezifikokoak egitea proposatzen da:</p> <p>Hirigintzako erronka izango da lurzoruaren kalitatearen irizpidea lurraldea antolatuta dagoen mailatan integratzea (herri mailako plangintza, kudeaketa eta hirigintza-diziplinatik lurralde-antolamendu orokorreraino). Arlo horren barruan, lurzoru industrialaren eta bizitegi-lurzoruaren sustapen publikorako estrategiak ere kontuan hartuko dira.</p> <p>Hondakinen arloan, batetik, lurzoru azpiproduktu gisa kalifikatu behar da, eta ez hondakin gisa, gero lurzoru poluituak sailkatzeko eta aldatutako lurzoruak berriz erabiltzeko irizpideak ezartzeko, eta, bestetik, berrerabiltzea eta deskontaminazioa bultzatzen dituzten tresnak diseinatu behar dira hondakindegietako isurketei dagokionez (adibidez, isurketa-tasak).</p>	

2.PR	ERAGIN: ADMINISTRAZIO EGITURATUA					
5. EL	<i>Administrazioko mailen artean lankidetzeta-baldintza egokiak sortzea lurzoru poluituetan esku-hartzea aurreratzeko</i>					
5.1.E	Lurzorua babesteari buruzko politika beste politika batzuetan sartzea					
Lur azpiko uren arloan, poluitzaileak izan daitezkeen jardueren eta lurzoru poluituen aurrean haiek babestea izango da helburua, beste babes-politika batzuekin bat etorritik. Helburu horrekin, arlo honetan eskumena duten administrazio guztiekin lantalde bat sortuko da, eta, ikerketa-erakundeen laguntzarekin, gai hauek landuko ditu: lur azpiko uraren kalitatearen estandarrak ondorioztatzea, eskalako arazoak (poluitutako kokaleku jakinetan jarduteko aukerak poluzioak area handiei eragiten dienean) edo akuiferoen edo azaleko ur-masen babes-perimetroak mugatzea.						
Ekintzaren garapenean inplikaturako eragile nagusiak						
Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila Xede-politiketan eskumenak dituzten erakundeak (Eusko Jaurlaritzako hainbat sail, aldundiak, udalak eta lurzoru industrialaren, bizitegi-lurzoruaren edo azpiegituretarako lurzoruaren sustapenean eta/edo garapenean aritzen diren sozietate publikoak) Ikerketa-erakundeak (unibertsitateak eta zentro teknologikoak)						
Ekintzaren emaitzen hartzaileak						
Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila Xede-politiketan eskumenak dituzten erakundeak Poluitutako (poluituta egon daitezkeen) kokalekuen jabeak eta edukitzaileak Euskal Autonomia Erkidegoko herritarrak						
Epea						
Urte bat						
Aurrekontuaren kalkulua						
5.1.E	2007	2008	2009	2010	2011	2012
Giza baliab.	50.000 €	100.000€	100.000€	100.000 €	50.000 €	50.000 €
Balia.finant.	-	150.000 €	125.000€	125.000€	50.000 €	50.000 €

5.2 ekintza. Herri-administrazioei laguntzea

2. PR	ERAGIN: ADMINISTRAZIO EGITURATUA
5. EL	<i>Administrazioako mailen artean lankidetzeta-baldintza egokiak sortzea lurzoru poluituetan esku-hartzea aurreratzeko</i>
5.2.E	EAEko herri-administrazioei laguntzea poluituta dauden (egon daitezkeen) titulartasun publikoko kokalekuen kudeaketan
Aurrekariak eta deskribapena	
<p>Herri-administrazioak poluituta dauden (egon daitezkeen) bere jabetzako lurzoruak ikertzeko eta berreskuratzeko lanak egin behar ditu hainbat egoeraren ondorioz. Batzuetan, administrazioaren jabetzako kokalekuetan lurzoruaren poluitzaile izan daitezkeen jarduerak egin ziren iraganean, leku gehienetan, erakundeek beraiek kudeatuta, eta orain lur horietan esku hartu behar da. Horixe da, adibidez, gaur egun inaktibo dauden hainbat hondakindegiren kasua. Beste kasu batzuetan, administrazioak poluituta egon daitezkeen lurzoruetan esku hartu behar du erkidegoarentzako erabilerak edo zerbitzu-azpiegiturak gauzatzeko. Adibiderik argiena, agian, errepideen eraikuntza izango da, poluzioaren ondorioz kalitatea txartuta duten lurzoruetan eragiten baitu haien trazadurak. Azkenik, eremu degradatuak edo gainbehera doazen eremuak birgaitzeko estrategikotzat jotzen dituen lurzoruetan esku hartzea erabaki dezake administrazioak.</p> <p>Iraganean, erakunde arteko hainbat lankidetzeta- eta laguntza-mekanismo sortu dira. Horien artean azpimarratu behar dira udalekin edo Bizkaiko Foru Aldundiarekin lurzoruaren babesari dagokionez sinatutako lankidetzeta-hitzarmenak edo <i>Euskal Autonomia Erkidegoko lurzoru poluituak berreskuratzeko udalentsako laguntza-programa</i>.</p> <p>Erakunde publikoek poluituta dauden (egon daitezkeen) kokalekuetan jabe gisa jarduteko hainbat egoera daudenez, plan honetan ekintza espezifiko bat gehitzea erabaki da herri-administrazioei (udalak, aldundiak eta Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuk) eta lurzoruren jabe edo kudeatzaile diren beste erakunde publiko batzuei laguntza-mekanismoa eskaintzeko, lurzoru poluituen kudeaketa-prozesu osoa egiteko. Hala, baliabide erabilgarriak optimizatzeaz eta jakintza aditua partekatzeaz gain, herri-administrazioaren jardueretan beti nagusitu behar den ereduzko izaera areagotzen laguntzen da.</p>	
Justifikazioa	
<p>Poluituta egon daitezkeen lurzoru publikoen kopuruaren ondorioz eta udalek eta aldundiek hirigintza-planetan duten erantzukizunaren ondorioz, erakunde horiei ikerketa-prozesuan eta, beharrezkoa izanez gero, kokaleku horiek berreskuratzeko prozesuan laguntzeko ekintza bat martxan jartzea komeni da.</p>	
Erronkak eta helburuak	
<p>Funtzio nagusi gisa lurzoru hainbat erabilerarako kudeatzea duten erakundeekin elkarlanean aritzeko mekanismoak sortzea, erakunde arteko lankidetzeta optimizatuz.</p> <p>Lurzoruaren kudeaketan eta plangintzan eskumena duten administrazioek parte hartuko duten lan-foroa sortzea, kokaleku poluitu estrategikoak berriro erabiltzea sustatzeko ekimen publikoaren bidez. Kokaleku horiek berreskuratzeko eremu degradatuak birgaitzeaz gain, aurrez hiri-erabilerarik izan ez duten lurzoruen erabilera murriz dezake.</p> <p>Udalaren jabetzako lurzoruak ikertzeko eta berreskuratzeko laguntza-programei eustea Ingurumen Esparru Programaren helburuak betetzeko, eta, horretarako, erantzukizunekin eta gainbalioarekin zerikusia duen indarreko legeriara egokitutako parte-hartze baldintzak ezartzea programan.</p> <p>Udalentsako eskuliburua eguneratzea plangintzan, kudeaketan eta hirigintzan "lurzoruaren kalitatea" irizpidea sartzeko.</p>	
Ekintzaren garapenean inplikaturako eragile nagusiak	
Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila	
Ekintzaren emaitzen hartzaileak	

2. PR	ERAGIN: ADMINISTRAZIO EGITURATUA					
5. EL	<i>Administrazioko mailen artean lankidetzeta-baldintza egokiak sortzea lurzoru poluituetan esku-hartzea aurreratzeko</i>					
5.2.E	EAEko herri-administrazioei laguntzea poluituta dauden (egon daitezkeen) titulartasun publikoko kokalekuen kudeaketan					
Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuk						
Foru-aldundiak						
Udalak						
Lurzoruaren kudeaketan zereginak esleituta dituzten sozietate publikoak						
Epea						
Urte bat						
Aurrekontuaren kalkulua						
5.2.E	2007	2008	2009	2010	2011	2012
Giza baliab.	50.000 €	50.000 €	50.000 €	75.000 €	50.000 €	50.000 €
Balia. finantz.	800.000 €	1.200.000 €	1.250.000 €	1.500.000 €	1.500.000 €	1.500.000 €

3. PR. ERAGIN: PREBENITZEA, BERRESKURATZEA, BIRZIKLATZEA ETA BALORIZATZEA

6. EL. Lurzoru poluitu gehiago sortzea prebenitzea

6.1 ekintza. Prebentzio-neurriak sustatzea administrazio-tresnen bidez

3. PR	EKIN: PREBENITZEA, BERRESKURATZEA, BIRZIKLATZEA ETA BALORIZATZEA
6. EL	Lurzoru poluitu gehiago sortzea prebenitzea
6.1.E	Prebentzio-neurriak sustatzea administrazio-tresnen bidez
Aurrekariak eta deskribapena	
<p>Lurzoruaren poluzioa prebenitzeko, baliabide hori polui dezaketean jardueren garapenean funtsezko papera dutenak sentsibilizatu eta informatu behar dira. Horretarako, ekintza espezifikoak planifikatu dira (ikus 3.1.E).</p> <p>Hala ere, prebentzioaren arloan egiaztatu da araudia dela neurriak hartzeko indar sustatzaile nagusia. Lurzoruaren poluzioaren arloan, prebenitzeko betebeharra ez dator zuzenean orain dela gutxi onartu den legeria espezifikoari; izan ere, esplizituki zein inplizituki, beste arlo batzuetan aldarrikatutako ingurumen-araudi eta -erregulazioen zati zen dagoeneko. Hori dela eta, 1/2005 Legean eta 9/2005 Errege Dekretuan zehaztutako xedapenek lehenik araututa zegoena baino ez dute osatzen.</p> <p>Ondorioz, ekintza honek bi helburu izango ditu: batetik, lurzoruaren poluzioa prebenitzeko neurriak har daitezkeen azpimarratzea beste arau sektorial batzuen bidez —horretarako, laguntza-dokumentu teknikoak egingo dira—; bestetik, lurzoruaren poluzioaren aurka babesteko legeriak ezartzen dituen betebeharren segimendua egitea. Zentzu horretan, lurzoruaren babesteko legeriak arautzen dituen prebentzio-tresna nagusiak aurretiko txostenak eta aldizkako egoera-txostenak dira. Lehenengoa, autonomia-erkidegoko ingurumen-organismoari bidali behar zaio 2007ko otsailaren 7a baino lehen, urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretuak zehazten duenaren arabera (lurzoruaren polui dezaketean jardueren zerranda eta lurzoru poluituak deklaratzeko irizpideak eta estandarrak zehazten ditu). Mugarri horrek lurzoruaren poluzioa prebenitzeko politika sistematikoaren hasiera markatuko du.</p> <p>Ekintza hau 4.2 ekintzan proposatutako ikuskapenarekin konbinatuko da.</p>	
Justifikazioa	
<p>Lurzoruak oso poliki erreazionatzen du poluzioaren eraginean aurrean. Horrek esan nahi du, atzerapen handia egon daitekeela jarduera poluitzaileak egindako presioen eta horrek lurzoruaren funtzioetan dituen ondorio kaltegarrien artean. Ondorioz, erantzuna beranduegi ematen da, eta egoera beti larriagoa izaten da prebentzio-neurri egokiak ezarrita lortuko litzatekeela baino. Egoera horiek saihesteko, prebentziorantz aurrera egiteko ekintzak martxan jarri behar dira.</p>	
Erronkak eta helburuak	
<p>Prebentzio-estrategiak bi egoera hartu behar ditu kontuan:</p> <p>Martxan dauden enpresen kasuan, prebentzioa, nagusiki, lurzoruaren egoerari buruzko aurretiko eta aldizkako txostenen bidez egingo dira. Aurretiko txostenak aurkezteko epea amaitutakoan (2007ko otsailaren 7a), ekintza hauek egin beharko dira:</p> <p>Jasotako informazioa (deskribatzailea eta, beharrezkoa denean, neurriak hartzeko planak) gordetzea eta baloratzea, sistema baten arabera, aurrez diseinatutako irizpideen bidez, informazio osagarria beharrezkoa den erabakitzeke.</p> <p>Aldizkako txostenen edukia diseinatzea</p> <p>Jarduera berrien kasuan, prebentzio-neurriak ezartzeko tresnak, orain arte bezalaxe, hauek izango dira: ingurumen-baimen integratua, ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa (hala dagokionean) eta jardura-lizentzia.</p> <p>Neurri horien aplikazioa optimizatzeko hau egin beharko da:</p> <p>Prebentzio-neurrien oinarritzko gida eta hura garatzen duten beste dokumentu batzuk argitaratzea</p>	

3. PR	EKIN: PREBENITZEA, BERRESKURATZEA, BIRZIKLATZEA ETA BALORIZATZEA					
6. EL	<i>Lurzoru poluitu gehiago sortzea prebenitza</i>					
6.1.E	Prebentzio-neurriak sustatzea administrazio-tresnen bidez					
<p>Neurriak ezarri eta kontrolatu behar dituztenak prestatzea</p> <p>Neurri horien ikuskapena lehendik dagoen ikuskapen-planean sartzea.</p> <p>Ekintza-lerro honen beste helburu bat izango da lurzoruen babesa borondatezko akordio sektorialetan (lehendik daudenak edo etorkizunekoak) sartzeko aukera aztertzea. Horri dagokionez, erronkak hauek izango dira:</p> <p>BREF sektorial espezifikoak prestatzea, egoeraren diagnostikoa egiteko aukera ematen duten lurzoruentzat.</p> <p>Kontrol- eta segimendu-neurrien aplikazioa baloratzea sektore espezifikoekin egindako borondatezko akordioen bidez edo eremu geografiko jakin bateko enpresekin egindako akordioen bidez.</p>						
Ekintzaren garapenean inplikaturako eragile nagusiak						
Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila						
Poluzioaren prebentzioan aplikatu daitezkeen araudian eskumenak dituzten beste administrazio batzuk (batik bat, udalak eta aldundiak)						
Ekintzaren emaitzen hartzaileak						
Lurzorua polui dezaketen jardueren titularrak						
Epea						
Urte bat						
Aurrekontuaren kalkulua						
6.1.E	2007	2008	2009	2010	2011	2012
Giza baliab.	50.000 €	50.000 €	50.000 €	100.000 €	125.000 €	125.000 €
Balia. finantz.	100.000 €	100.000 €	100.000 €	100.000 €	100.000 €	100.000 €

7. EL. Poluitutako kokalekuak berreskuratzeko irtenbideak bilatzea

7.1 ekintza. Poluitutako lurzoruak berreskuratzeko/kudeatzeko azpiegituren sorrera sustatzea

3. PR	EKIN: PREBENITZEA, BERRESKURATZEA, BIRZIKLATZEA ETA BALORIZATZEA
7. EL	Poluitutako kokalekuak BERRESKURATZEKO irtenbideak bilatzea
7.1.E	Poluitutako lurzoruak berreskuratzeko/kudeatzeko azpiegituren sorrera sustatzea
Aurrekariak eta deskribapena	
<p>Lurzorua poluzioaren aurka babesteko politikak lurzoru poluituak berreskuratzeko irtenbideak behar ditu. Estregia oro kolapsa daiteke, dagokion errealitatera egokituta egon arren, eraikuntza-proiektuen beharregatik saneatu edo hondeatu behar diren lurzoru poluituentzako edo aldatuentzako irteera-diseinurik ez balego.</p> <p>Iraganean, kasu zehatzetan beste berreskuratze-teknika batzuk aplikatu diren arren, kasu gehienetan, lurzoru poluituak hondeatu egin dira, eta, ondoren, hondakindegri-mota ezberdinetan isuri dira lurzoruaren sailkapenaren arabera, hondakinen arloko indarreko legeriak adierazitakoari jarraituz. Irtenbide horrek lurzoria azkar kentzen uzten du, hirigintza-ekintzek eskatzen duten bezala, baina ezin da inola ere iraunkortzat hartu, eta ez dator bat 9/2005 Errege Dekretuak ezarritako lehentasunarekin. Batetik, Euskal Autonomia Erkidegoan ez dago hondakin arriskutsuak isurtzeko baimendutako hondakindegirik. Hondakin ez-arriskutsuen hondakindegri gutxi daude, eta hondakin industrialak jasotzeko eraikitzen dira. Hondakin geldoen hondakindegiek, berriz, edukiera mugatua dute. Bestetik, lurzoru aldatuak betelanak eta lurra egokitzeko lanak egiteko berriro erabiltzeko legeria espezifikoa behar da, eta Euskal Autonomia Erkidegoan oraindik ez da garatu.</p> <p>Egoera horren aurrean, ekintza honek Euskal Autonomia Erkidegoan lurzoru poluituak eta aldatuak tratatzeko eta kudeatzeko azpiegiturak ezartzea du helburu, ondoren, lurzoru horiek bigarren mailako merkatu batean berriro erabiltzeko. Merkatu horrek hurrengo urteetan behar adina masa kritiko garatu beharko du. Azpiegituraren bidez, hurbiltasun-printzipioa bete ahal izango da, eta, hala, material horiek garraiatzean sor daitezkeen ingurumen-arriskuak saihestu egingo dira, neurri batean.</p> <p>Printzipioz, eta horri buruzko xehetasun-azterketa egin aurretik, hondakindegri batekin lotutako tratamendu-azpiegitura nahiko handia eraikitzea kontuan hartzeaz gain, beste tratamendu-, kudeaketa- (adibidez, lurzoru-bankuak) edo isurketa-zentro txiki batzuk gaitzeko aukera ere hartuko da kontuan, hirigintza-proiektuetan materialen lekualdatzea arintzeko. Aukera horrek harrobiak birgaitzen edo utzitako hondakindegriak berreskuratzen lagun dezake (isurketak, baldintza zehatzetan, irabaziak sor ditzake, eta horiek saneamendua egiteko erabili litezke).</p> <p>Horrelako instalazio baten aurre-diseinua barnean hartu zuen lehen azterketa egindakoan, bideragarritasun-azterketarekin batera, ekintza honen bidez eman nahi den bultzada bi alderditara bideratuko da: batetik, bideragarritasun ekonomikoa ahal den neurrian bermatzeko merkatu-baldintza egokiak sortzea (isurketa-kanona, 9/2005 Errege Dekretuaren agindua zorrottasunez aplikatzea, teknika hobeak aplikatzea, ikuskapena indartzea, etab.), eta, bestetik, Euskal Autonomia Erkidegoak horri dagokionez dituen beharren hasierako azterketa egitea eta ekimenak identifikatzea.</p>	
Justifikazioa	
<p>Euskal Autonomia Erkidegoko lurzoru poluituen arazoaren garrantzitsua da, hirigintzak hurrengo urteetan lurzoru poluituak berreskuratzea bultzatzen jarraituko du eta, azkenik, 1/2005 Legea indarrean sartzearen ondorioz tratatu beharreko lurzoru poluituen kopurua areagotu egingo da; hori guztia kontuan izanik lurzoru poluituen bolumen handia behar bezala kudeatu behar izango da.</p> <p>1994ko Plan zuzentzailearen proposamenak, besteak beste, azpiegitura-plan bat proposatu zuen, lurzoru poluituak kudeatzeko eta biltegitratzeko zentro bat sortzeko helburuarekin. Bideragarritasun-azterketa egin zen arren, azpiegitura horren sorkuntzak ez zuen aurrera egin, nagusiki, une hartako merkatuak ez zuelako bideragarritasuna bermatzen.</p>	

3. PR	EKIN: PREBENITZEA, BERRESKURATZEA, BIRZIKLATZEA ETA BALORIZATZEA
7. EL	<i>Poluitutako kokalekuak BERRESKURATZEKO irtenbideak bilatzea</i>
7.1.E	Poluitutako lurzoruak berreskuratzeko/kudeatzeko azpiegituren sorrera sustatzea
Gaur egun, ordea, egoera erabat bestelakoa denez, beharrezkoa da ideia horri berriro heltzea eta lurzoru poluituak tratatzeko azpiegitura(k) sortzea, haien kudeaketatik eratoritzen diren inpaktu negatiboak minimizatze ko.	
Erronkak eta helburuak	
<p>Euskal Autonomia Erkidegoko egoeretara hobekien egokitzen den azpiegitura-sistema diseinatzea.</p> <p>Aurreikusitako egitura(k) martxan jartzen parte hartzeko interesa duten bazkide pribatuak identifikatzea.</p> <p>Azpiegitura-sistemaren bideragarritasuna bermatzeko merkatu-baldintzak sortzea.</p> <p>Azpiegitur(ar)en eraikuntzan eta kudeaketan modu mugatuan parte hartzea, amaieran ekimen pribatuak kudea ditzan guztiak.</p> <p>Lurzoru poluituen kudeaketa-zentroaren bideragarritasun-azterketa (teknikoa eta ekonomikoa) eta aurreproiektu bat egitea..</p> <p>Plana garatzeko azpiegituraren edo azpiegitura-sistemaren kokaleku optimoa hautatzeko, lurraldearen zonifikazioa egin beharko da, ingurumen-inpaktu kaltegarri handiagoak eragiten dituzten jarduera eta erabilera horiek haiek hartzeko gaitasun handiagoa duten eta balio natural txikiagoa duten lekuetara bideratzeko, aldi berean, ingurumenari dagokionez, (ekologia, paisaia...) gune baliozkoenak zainduz.</p> <p>Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Zuzentarauen arabera Ingurune Fisikoa antolatzeko matrizea kontuan izanik, LAAetako ingurune fisikoa antolatzeko matrize bat egin da —horren barruan sartzen da lurzoru poluituak berreskuratzeko/kudeatzeko azpiegituren erabilera—, zehazteko zer antolamendu-kategorian edo baldintza gainjarriko zer gunetan den egokia, onargarria edo debekatzekoa lurzoruak berreskuratzeko azpiegitura erabiltzea. 163. orriko irudian dago ikusgai matrizea.</p> <p>Halaber, matrize horretan oinarrituz, kokalekuen alternatibak hautatzeko irizpideak ezarri dira. Irizpide horiek hainbat baldintza bete behar dituzte: lurzoruari buruzko legeak ezarritako eskakizunak; beste zenbait erabilerarekiko bateragarritasuna; bizitokitako lurzorutik hurbil egoteari buruzko tokiko irizpideak; lursailera hiriguneetatik sartzeari; instalazio-mota horretarako eskatutako azalera erabilgarri egotea; poluituta egon daitezkeen lurzoruak egotea; eta osasuna eta ingurumena babesteari lotutako beste zenbait irizpide betetzea; esaterako, akuiferoen ahultasuna, uholdeak izateko arriskua duten gunek, eta EAEko Naturgune Babestuen Sarean eta Natura 2000 sarean sartutako kokalekuak.</p> <p>Halaber, lehen aipatutakoaren arabera aurrez hautatutako kokalekuei lehentasuna eman ahal izango zaie, puntu hauetan oinarritutako irizpideei esker: kokalekuak ezaugarri fisiko eta sozioekonomikoen arabera karakterizatzea; proposatutako azpiegitura-tipologiek ekar ditzaketen ingurumen-kalteak identifikatzea eta baloratzea; eta garraio-eredua, tratamendu-azpiegiturek gizartean izan dezaketen inpaktua baloratzea.</p> <p>Azpiegitura ezartzeko lurraldea egokia den erabakitze irizpideak:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Lurzoru industrialari buruzko lurzoruaren legearen arabeko lege-irizpideak – Bizitokitako lurzoruarekiko gertutasuna. Bizitokitako lurzorutik gertu egotea saihestu behar da – Azalera erabilgarria. Azalera minimoaren eskakizunak bete behar dira instalazio/azpiegitura ezartzeko – Osasuna eta ingurumena babesteari lotutako irizpideak: – Akuiferoen ahultasuna – Natura 2000 Sarean sartuta dauden eta naturaren ikuspegitik interesa duten tokiak – EAEko Naturgune Babestuen Sarea: biotopo babestuak, parke naturalak eta zuhaitz apartekoak – Uholdeak Prebenitzeko Plan Integralaren (UPPI) arabera uholde-eremuetan sartuta dauden lekuak – Lursailera hiriguneetatik sartzeari – Beste jarduera edo erabilera batzuekin bateragarria izatea – Poluituta egon daitezkeen lurzoruak egotea, informazio-iturri gisa poluituta egon daitezkeen EAEko lurzoruaren inbentarioa erabiliz 	

3. PR	EKIN: PREBENITZEA, BERRESKURATZEA, BIRZIKLATZEA ETA BALORIZATZEA					
7. EL	Poluitutako kokalekuak BERRESKURATZEKO irtenbideak bilatzea					
7.1.E	Poluitutako lurzoruak berreskuratzeko/kudeatzeko azpiegituren sorrera sustatzea					
<p>Aurrez azaldutako irizpideekin aurrez hautatutako kokapenei lehentasuna emateko irizpideak, hauek oinarri hartuta:</p> <ul style="list-style-type: none"> ■ Lekuen karakterizazioa, ezaugarri fisikoei eta sozioekonomikoei dagokienez ■ Proposatutako azpiegitura-motek sor ditzaketen ingurumen-kalteak identifikatzea eta haien ingurumen-balorazioa egitea ■ Garraio-ereduak <p>Bestalde, aintzat hartzen diren berreskurapen-teknologiaren tipologia bakoitzaren Arrisku Eredu Kontzeptuala egiteari esker, horien ebaluazio konparatiboa egin ahal izango da, haien ingurumen-kalteei dagokionez.</p> <p>Kontuan izanda lurzoru poluituak tratatzeko eta/edo kudeatzeko azpiegitura-mota Planaren garapenean sustatuko dela, ezin da zehaztasunez adierazi azpiegitura horietatik zein hartuko diren aintzat Ingurumen Inpaktuaren banakako Ebaluazioaren prozeduran.</p> <p>Alor horretan, aipatu beharra dago lurzoru poluituak jatorrizko lekuan ez beste leku batean tratatzea hondakinak tratatzeko eragiketatzat jotzen dela, eta, horrenbestez, prozeduran kontuan hartu behar da indarrean dagoen araudia aplikatuta. Otsailaren 27ko 3/1998 Legearen –EAEko ingurumena babesteari buruzko Lege Orokorren– I.B Eranskineko 4.2. atalean jasotako kasuen artean, modu esplizituan zehaztutako gain, aintzat hartu beharrekotzat joko dira hondakina eta hari estuki lotuta dagoen substantzia edo materiala bereiztea helburu duen tratamendu kimiko do bestelako tratamenduetarako industria-instalazio finkoak.</p> <p>Ingurumen-inpaktuaren ebaluazioan kontuan hartu diren lurzoruak tratatzeko azpiegituren kokapenari buruzko azken erabakia hartzeko, aintzat hartu behar da kokapen alternatiboen aurretiko azterketa bat (IIHT). Horren ondorioz, zonifikazioa egin behar da, ingurumen-inpaktu kaltegarri handiagoak eragiten dituzten jarduerak eta erabilerak haiek hartzeko gaitasun handiagoa duten lekuetara bideratzeko, baliabide naturalak zainduz, uraren, airearen eta lurzuaren kalitatearen ikuspuntutik zein naturaren eta paisaiaren balioak babestearen ikuspuntutik. Azterketa horrek kontuan izan behar ditu, behintzat, atal honetan aipatutako kokapen-irizpideak, eta aplikatu beharreko ingurumen-inpaktuaren ebaluazio-prozeduraren esparruan bideratuko da Lurzoru Poluituen Plan honen garapen-plan batzuekin lotuta edo dagokion instalazioaren funtsezko baimenaren prozedurarekin lotuta</p>						
Ekintzaren garapenean inplikaturako eragile nagusiak						
<p>Ekimen honen eragilea Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila izango da</p> <p>Ekimenean parte hartzeko prest dauden eragile pribatuak</p> <p>Arlo horretan I+G jarduerak garatzen dituzten zentro teknologikoak eta unibertsitateko sailak</p>						
Ekintzaren emaitzen hartzaileak						
<p>Lurzoru poluituak saneatzeko betebeharra dutenak</p> <p>Eraikuntza-beharrengatik lurzoru aldatuetan hondeaketak egin behar dituzten lurzoruen jabeak</p>						
Epea						
2007an hasi da, baina azpiegitura/k ez litzateke/lirateke prest egongo 2011 arte						
Aurrekontuaren kalkulua						
7.1.E	2007	2008	2009	2010	2011	2012
Giza baliabi.	25.000 €	37.500 €	50.000 €	50.000 €	25.000 €	25.000 €
Balia. finantz.	150.000 €	200.000 €	500.000 €	700.000 €	1.200.000 €	1.000.000 €

.Nota: Como guía se muestran los usos (en gris) que por su carácter, tienen más relación con el tipo de infraestructura a tratar y están establecidos actualmente en la Matriz de Ordenación del Medio Físico de las DOT. Los usos en blanco corresponden a los usos de infraestructura de gestión/ tratamiento de suelos contaminados distribuidos por tipologías de recuperación que no incorpora la matriz de usos original

USOS		Infraestructuras							Usos Edificatorios	
		Residuos Sólidos y vertederos de	Tratamiento suelos Biológico	Tratamiento suelos Químico	Tratamiento suelos contaminados Físico	Tratamiento suelos contaminados Solidificación	Tratamiento suelos contaminados Térmico	Instalaciones Peligrosas		
Protección ambiental	Explotación de recursos primarios									
Mejora Ambiental	Actividades Extractivas									
1	3	3	3	3	3	3	3	3	3	
1	2*	2*	2*	3	3	3	3	3	3	
2	2*	2*	2*	3	3	3	3	3	3	
2	2*	2*	2*	3	3	3	3	3	2*	
1	3	3	3	3	3	3	3	3	3	
2	2*	2*	2*	2*	2*	2*	2*	2*	2*	
1	2*	3	3	3	3	3	3	3	3	
	2*	3	3	3	3	3	3	3	2*	
	2*	2*	2*	2*	2*	2*	2*	2*	2*	
	2*	2*	2*	2*	2*	2*	2*	2*	2*	
Espacios Naturales Protegidos y Reserva de la Biosfera de Urdaibai	2*	2*	2*	3	3	3	3	3	2*	

- 1. Propiciado
- 2. Admisible
- 3. Prohibido
- *. Planeamiento de desarrollo

CATEGORÍAS DE ORDENACIÓN

CONDICIONANTES SUPERPUESTOS

7.2 ekintza. Funts pribatu edo publiko-pribatuaren sorrera bultzatzea

3. PR	EKIN: PREBENITZEA, BERRESKURATZEA, BIRZIKLATZEA ETA BALORIZATZEA
7. EL	Poluitutako lurzoruak berreskuratzeko irtenbideak bilatzea
7.2.E	Lurzoru poluituak berreskuratzea bultzatzen duten tresna ekonomikoak diseinatzea eta aplikatzea
Aurrekariak eta deskribapena	
<p>Lurzoru poluituak berreskuratzeko jarduerak, zalantzarik gabe, <i>ad hoc</i> diseinatutako tresna ekonomikoak eskatuko ditu kasu askotan ekintza hori bultzatzeko. Egoera jakin batzuetan ezartzen diren erabilera berriekin berreskuratzeko kostuei aurre egiteko etekin ekonomikoak sortzen diren arren, beste kasu batzuetan, lurzoru saneatzen bada, obligatiodunak aurre egin ezin dion karga handia sor daiteke. Finantziario-mekanismoak edukitzeak garrantzi handia du kokaleku "umezurtzen" (<i>orphan sites</i>) kasuan, alegia, poluitzailea zein den identifikatu ezin den kasuetan, indarreko legeriaren arabera hura erantzuleztat hartu ezin denetan edo saneamendu-kostuak hark bere gain hartu ezin dituenetan.</p> <p>Bi azterketa egin ziren iraganean, lurzoru poluzioaren aurka babesteari buruzko legeriaren aplikazio-ekintzak finantzatzeko aukerak baloratzeko. Lehenengoa tresna ekonomikoak identifikatzeko balio du. Europako beste herrialde batzuetan arlo horretan dauden tresnetan eta Euskal Autonomia Erkidegoan ingurumen-arloan aplikatutako beste tresna batzuetan oinarritu zen, ondoren, lurralde honetarako egokienak hautatzeko. Bigarrenaren helburua diru-laguntzak emateko aukerak aztertzea izan zen, indarreko legeriaren mugak eta Europako Batzordeak horri buruz egindako direktibak kontuan hartuta.</p> <p>Hasieran batean, formula hauen xehetasun-azterketa eta garapena proposatu da: lurzoru poluituak berreskuratzeko funts publiko-pribatua, lurzoru poluituen edo aldatuen hondakindegietako isurketentzako isurketa-kanonak eta zerga-sustapenak. Neurri horiek hauen bidez osatuko dira: udalerrien berreskuratzeko laguntza-programa, kasu zehatzetarako diru-laguntzak (lurzoruaren kalitatea deklaratzeko prozedura sinplifikatuak garatzeko diru-laguntzen lerroa ezartzea aurreikusten da industrialdeetan aplikatzeko) eta administrazioaren zerbitzu jakin batzuk ordaintzeko ezar daitezkeen tasentzako laguntzak (adibidez, <i>Lurzoruaren kalitatearen erregistro administratiboaren</i> ziurtagiriak igortzea).</p>	
Justifikazioa	
<p>Goian aipatutako guztiagatik, indarreko legeriak neurri horien aplikazioa laguntza ekonomikoen bidez sustatzeko aukera onartzen du. <i>Euskal Autonomia Erkidegoko lurzoru ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko otsailaren 4ko 1/2005 legearen 37.</i> artikuluan aipatzen da diru-laguntzak edo maillegu pribilegiatuak emateko eta onura fiskalak ezartzeko aukera. <i>Lurzoru babesteko direktibaren</i> proposamenak, berriz, lur "umezurtzak" delakoak berreskuratze-lanak finantzatzeko mekanismo egokiak diseinatze eskatzen die estatuei.</p> <p>Arrisku handia eragin dezake alde interesatuek poluituta egon daitezkeen lurzoruak erostek , adibidez, garbiketa-kostu errealak aurreikusitako kostuetatik desbideratzeak sortzen duen ziurgabetasunaren ondorioz. Erabilera alternatiboa aurreikusita ez duten lurzoruen kasuan, etorkizuneko eskaerarik ez egoteak duen arriskua gehitzen zaio lehen aipatutako ziurgabetasunari.</p> <p>Ezaugarri horiek dituen funtsa eratzeak arriskuak murriztu eta eskalako ekonomiak aprobetxatzea ahalbidetuko luke, eta, hala, lurzoru erostea azkartuko litzateke ondoren hura berreskuratzeko.</p>	
Erronkak eta helburuak	
<p>Hasieran aurreikusitako tresnak xehetasunez aztertzea eta diseinatzea: lurzoru poluituak berreskuratzeko funts publiko-pribatua, zerga-sustapenak, isurketa-kanonak, diru-laguntzak eta tasak.</p> <p>Funtserako bazkideak identifikatzea eta atzematea eta funtzionamendurako eta martxan jartzeko estatutuak diseinatzea.</p> <p>Lege berri bat ateratzea Euskal Autonomia Erkidegoko lurzoruaren kalitatea berreskuratzeko</p>	

3. PR	EKIN: PREBENITZEA, BERRESKURATZEA, BIRZIKLATZEA ETA BALORIZATZEA					
7. EL	<i>Poluitutako lurzoruak berreskuratzeko irtenbideak bilatzea</i>					
7.2.E	Lurzoru poluituak berreskuratzeko bultzatzen duten tresna ekonomikoak diseinatzea eta aplikatzea					
<p>ekintzetako hondakinak hondakindegian uzteagatiko tasa sortu eta arautzeko.</p> <p>Diru-laguntzak ematea (industrialdeetan lurzoruaren kalitatea deklaratzeko prozedura sinplifikatuak sustatzea) eta tasak kobratzea uzten duten mekanismoak onartzea.</p> <p>Lurzoru poluituak berreskuratzeko udalenzako laguntza-programak berriro definitzea.</p>						
Ekintzaren garapenean inplikaturako eragile nagusiak						
<p>Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila</p> <p>Eusko Jaurlaritzako Ogasun Saila</p> <p>Foru Aldundien Ogasun Sailak</p> <p>Funts publiko-pribatua parte hartzeko interesa duten erakundeak</p>						
Ekintzaren emaitzen hartzaileak						
<p>Lurzoru poluituak berreskuratzeko betebeharrak</p> <p>Lurzoruaren kalitatea deklaratzeko prozedura modu bateratuan hasten duten industrialdeak, haien dagozkien lurzoru guztientzat.</p>						
Epea						
24 hilabete						
Aurrekontuaren kalkulua						
7.2.E	2007	2008	2009	2010	2011	2012
Giza baliabi.	25.000 €	25.000 €	25.000 €	25.000 €	25.000 €	25.000 €
Balia. finantz.	50.000 €	200.000 €	300.000 €	500.000 €	300.000 €	200.000 €

7.3 ekintza Arrisku-kudeaketaren kontzeptua garatzea eta aplikatzea bere adiera aurreratuenetan

3. PR	EKIN: PREBENITZEA, BERRESKURATZEA, BIRZIKLATZEA ETA BALORIZATZEA					
7. EL	POLUITUTAKO KOKALEKUAK BIRSORTZEKO IRTENBIDEAK BILATZEA					
7.3.E	Arrisku-kudeaketaren kontzeptua garatzea eta aplikatzea bere adiera aurreratuenetan					
Aurrekariak eta deskribapena						
<p>Lurzoru poluituentzako eta lur azpiko urentzako egokiena zer den erabakitzen duten politikariei eta eragileei laguntzeko balio du, eta eragile horiek aurre egin beharreko arazo guztiak hartzen ditu barnean: poluzioa ebaluatzea eta arriskua kudeatzea, deskontaminazioa, lurzoruaren erabileraren mugak, segimendua, espazioaren plangintza, erregistroa, irtenbide-estrategiarik onena eta beste alderdi batzuk definitzea, adibidez, sortzen diren beharrei garapen iraunkorren ikuspegitik erantzutea. "Erremediatze-teknika bat hautatzea" baino jarduera askoz ere zabalagoa da.</p>						
Justifikazioa						
<p>Lurzoruaren poluzioa kudeatzeko ikuskerarik aurreratuenak arriskuan oinarritutako lurzoruaren kudeaketan oinarritzen dira. Horrek alderdi ekonomikoak edo ingurumen-alderdiak baino ikuspegi zabalagoetik hartzen ditu kontuan lurzoru poluituen kudeaketa-arazoak. Hala, horren arabera, lurzoru poluituen kudeaketan hainbat arlori (hirigintza, poluzioa, komunikazioa, osasuna, ingurunearekiko harremanak) eta eragile askori eragiten dien alderdi ugari hartu behar dira kontuan. Konplexutasun hori kudeatzeko, beste herrialde batzuetan garatzen ari diren metodologia integralak sartzea beharrezkoa da, kasu bakoitzean, erabakiak hartzeko irizpide-konbinaziorik eta parte-hartzaileen konbinaziorik onena eta aipatutako arloetan lurzoru poluituek sortzen dituzten arazoei irtenbidea emateko jarduera egokien konbinaziorik onena aurkitzeko.</p>						
Erronkak eta helburuak						
<p>Arriskuan oinarritutako lurzoru-kudeaketarantz aurrera egiteko beharrezkoa da:</p> <p>Arriskuan oinarritutako lurzoruaren kudeaketa EAEko lurzoru babesteko politikaren heldutasun-mailari aplika dakioken aztertzea.</p> <p>Metodologia hori EAEn aplikatzeko metodologia praktikoa diseinatzea. Hor argi identifikatuko dira eragile inplikatuak, haiek egin beharreko ekarpenak, prozesuan duten papera eta erabilgarri dituzten tresnak.</p> <p>Teknologia hobea kostu onargarrian</p>						
Ekintzaren garapenean inplikaturako eragile nagusiak						
Ekintzaren emaitzen hartzaileak						
Nagusiki, ILAS, IHOBEn laguntzarekin.						
Epea						
2007an hasiko da, eta lau urtez garatuko da.						
Aurrekontuaren kalkulua						
7.3.E	2007	2008	2009	2010	2011	2012
Giza baliabi.	12.500 €	12.500 €	25.000 €	25.000 €	50.000 €	50.000 €

3. PR	EKIN: PREBENITZEA, BERRESKURATZEA, BIRZIKLATZEA ETA BALORIZATZEA					
7. EL	POLUITUTAKO KOKALEKUAK BIRSORTZEKO IRTENBIDEAK BILATZEA					
7.3.E	Arrisku-kudeaketaren kontzeptua garatzea eta aplikatzea bere adiera aurreratuenetan					
Balia. finantz.	100.000 €	200.000 €	200.000 €	200.000 €	-	-

7.4 ekintza. Poluzioak eragindako kokalekuetan hondeatutako materialak berriro erabiltzeko irizpideak zehaztea

3. PR	EKIN: PREBENITZEA, BERRESKURATZEA, BIRZIKLATZEA ETA BALORIZATZEA
7. EL	Lurzoru poluituak BERRESKURATZEKO irtenbideak bilatzea
7.4.E	Berreskuratutako lurzorua eta poluzioak eragindako kokalekuetan hondeatutako materialak berriro erabiltzeko irizpideak zehaztea
Aurrekariak eta deskribapena	
<p>Lurzoru poluitu edo aldatuetan esku-hartzeko, kasu gehienetan, materialak hondeatu behar izaten dira, eta horiek tratatu edo kudeatu egin behar dira indarrean dagoen legeria betetzeko. Saneamenduaren eta hondeaketaren ondorioz, substantzia kimikoen kontzentrazio baxuak dituzten lurzoruen bolumen handiak sor daitezke, eta, gaur egun, horien helburu bakarra hondakindegia-mota jakin batean uztea da.</p> <p>Egungo legeriak lurzoru horiek berriro erabiltzeko aukera ixten du, betelanak eta lurren egokitzapenak egiteko lur naturalak erabiltzea bakarrik onartzen baitu. Definizio horrek adierazten du jardura horietan onartutako poluitzaileen kontzentrazioek ez dituztela gaituzteko edukirik naturalak lurzoruan naturalki dauden substantzien kasuan, eta jatorri antropikoko substantzien kasuan, ez dituzte gaituzteko detekzio-mugak.</p> <p>Salbuespen gisa, eta hondakinen arloko legeriak arau nagusi gisa aldarrikatutako berrerabiltze-arauak betetzen dituzten irtenbide arrazionalak bilatzeko, beti ingurumen-hobekuntza bermatuz hondeatu diren kokalekuen barruan hondeatutako materialak berriro erabiltzea baimendu da.</p> <p>Gauza bera planteatu da hondakin industrial batzuk berriro erabiltzeko, adibidez, arku elektrikoko zepa beltzak. Arazo hori konpontzeko, <i>otsailaren 18ko 34/2003 Dekretua</i> onartu zen. Dekretu horrek altzairua arku elektrikoko labeetan fabrikatzean sortutako zepen balorizazioa eta erabilera arautzen du Euskal Autonomia Erkidegoan. Hondakin hori bideen eraikuntzan (errodadura-geruza, hobetutako nahasketa bituminosoekin, oinarriarekin, oinarri-azpiarekin eta zabaldegiarekin) eta industrialdeetako hirigintza-proiektuetan erabiltzea baimentzen du, baita material estalgarri gisa eta hondakindegien behin-behineko pistetan ere. Dekretu horrek zepa zuriak zer baldintzetan berrerabil daitezkeen arautzen du: hura aplikatuko den eremu geografikoen mugak zehazten ditu (adibidez, akuiferoen zaurgarritasunari dagokionez), berrerabiltzeko onartuko diren poluitzaileen kontzentrazio-mugak eta saiakuntzak definitzen ditu eta, azpiegitura kenduz gero, materialaren segimendu eta tratamendurako baldintzak arautzen ditu.</p> <p>Filosofia hori Europako hainbat herrialdetan aplikatu da, eta poluzioak eragindako kokalekuetako lurzoru berreskuratutako eta hondeatutako berriro erabiltzeko metodologia eta legeria espezifikoak garatzeko ere erabil liteke.</p>	
Justifikazioa	
<p>Euskal Autonomia Erkidegoan lurzoru poluituen kudeaketan aurkitu den arazo nagusietako bat da kokaleku horiek edo kokaleku aldatuak hondeatzeko beharra, obra-beharrengatik. Horrek material-soberakinen kantitate handiak sortzen ditu, eta, gaur egun, berriro erabili ezin diren beste hondakin-mota batzuentzat izan behar luketen hondakindegia betetzen dituzte.</p> <p>Poluitzaileak dituzten lurzorua berriro erabiltzea debekatzen du indarrean dagoen legeriak; hala eta guztiz ere, Europako hainbat herrialdek lurzoru horiek berriro erabiltzen uzten dien kudeaketa-irizpide teknikoak, araudia, azpiegiturak eta tresnak dituzte. Euskal Autonomia Erkidegoak ere ildo horretan lana egin beharko du irtenbide arrazionalak bilatzeko eta sistema ez kolapsatzeko.</p>	
Erronkak eta helburuak	
<p>Ekimenaren "bideragarritasun-azterketa" egitea. Azterketa horrek berriro erabil daitezkeen materialen produkzioa (lurzoru hondeatutako) eta haien egungo helburuak eta eskaera baloratuko ditu. Halaber, materialen ekoizleak eta kontsumitzaileak harremanetan jartzeko formulak eta aukerak aztertuko ditu materialaren berrerabiltzea bermatuko duen mekanismoa ezartzeko.</p>	

3. PR	EKIN: PREBENITZEA, BERRESKURATZEA, BIRZIKLATZEA ETA BALORIZATZEA					
7. EL	<i>Lurzoru poluituak BERRESKURATZEKO irtenbideak bilatzea</i>					
7.4.E	Berreskuratutako lurzoruak eta poluzioak eragindako kokalekuetan hondeatutako materialak berriro erabiltzeko irizpideak zehaztea					
Lurzorua erabiltzen duten eta, ondorioz, hura kalte dezaketen aplikazioetan materialak berriro erabiltzeko kontzeptua eta metodologia garatzea. Metodologia horrek hondakin-mota guztiak berriro erabiltzeko irizpideak batu beharko ditu, eta, beharrezkoa denean, material-mota bakoitzaren berezitasunak hartuko ditu kontuan.						
Gaur egun indarrean dagoen legeriak berrerabiltzeko ezartzen dituen mugak kentzen dituen legeria espezifikoak onartzea.						
Ekintzaren garapenean inplikaturako eragile nagusiak						
Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila Unibertsitateak eta ikerketa-zentroak.						
Ekintzaren emaitzen hartzaileak						
Substantzia poluitzaileek arinki eragindako hondeaketako material-soberakinen "ekoizleak" Material-mota horren "erabiltzaileak"						
2007an hasiko da, eta lau urtez garatuko da.						
Aurrekontuaren kalkulua						
7.4.E	2007	2008	2009	2010	2011	2012
Giza baliab.	12.500 €	12.500 €	25.000 €	25.000 €	75.000 €	100.000 €
Balia. finantz.	200.000 €	100.000 €	100.000 €	100.000 €	-	-

8. EL. Poluituta egon daitezkeen lurzoruak aurreikusitako hirigintza-jardueren bidez kudeatzea

8.1 ekintza. Lurzoruaren artifizialtzea murrizteko jarraibideak egitea eta neurriak identifikatzea

3. PR	EKIN: PREBENITZEA, BERRESKURATZEA, BIRZIKLATZEA ETA BALORIZATZEA
8. EL	<i>Erabiltzen ez diren eta kalitatea aldatu gabe duten kokalekuak BERRIRO ERABILTZEA</i>
8.1.E	Lurzoruaren artifizialtzea murrizteko jarraibideak egitea eta neurriak identifikatzea
Aurrekariak eta deskribapena	
<p>Lurzoruaren artifizialtzeak edo zigilatzeak, hau da, aurrez erabili ez diren lurzoruak betetzeak, <i>Lurzoru poluituen planaren</i> helburuak gainditzen dituzte. Hala ere, argi dago lurzoruaren okupazio-tasak murrizteko ezinbestean erabiltzen ez diren eta kalitatea aldatuta duten lurzoruen merkatuan sartu behar dela. Hori dela eta, interesgarritzat jo da plan honen esparruan berrerabiltzea sustatzeko jarraibideak eta metodologiak garatzea, arazo horren konponbide globalari aplikatzeko, European lurzoruen erabilera iraunkorra jasaten ari den mehatxu nagusietakoa bihurtzen ari baita. Ekintza hau Eusko Jaurlaritzako beste sail eta zerbitzu batzuekin eta arazo hori konpontzeko eskumenak dituzten erakundeekin batera garatu behar da.</p>	
Justifikazioa	
<p>Europako Batasuneko Lurzorua babesteko direktibaren proposamenak garrantzi handia ematen dio lurzoruaren artifizialtzeari lurzoruak dituen beste mehatxu batzuei dagokienez. Estatuak espazioa aurreztu eta lurzorua artifizialtzea/zigilatzea eragozten duen espazio-plangintza ezarri beharko dute. Gainera, zigilatzearen eraginak arindu eta lurzoruaren funtzio gehienei eusten laguntzen duten eraikuntza-produktu eta -teknikak erabiltzea sustatu beharko dute.</p> <p>Artifizialtzea prebenitzeko/saihesteko inplikaturako eragileek pizgarri egokiak edukitzea komeni da. Horretarako, batetik, Euskal Autonomia Erkidegoko fenomenoak xehetasunez ezagutu behar da, eta, bestetik, eragileen portaeran eragiten duten neurriak diseinatu eta aplikatu behar dira.</p>	
Erronkak eta helburuak	
<p>Eusko Jaurlaritzako beste sail eta zerbitzu batzuekin eta lurzoruaren artifizialtzearen eragina duten arloetan eskumenak dituzten erakundeekin koordinazio-mekanismoak ezartzea.</p> <p>Lurzoruaren zigilatzea neurtzeko eta baloratzeko metodologiak identifikatzea (Europako beste eskualde batzuetakoekin konpara daitezkeen adierazleen bidez).</p> <p>Lurzoruaren zigilatzea murriztu eta baliabide horren erabilera iraunkorra sustatzen duten tresna erregulatuak, merkatuko tresnak (adibidez, zergak) eta beste tresna batzuk (adibidez, eraikuntza iraunkorraren programetan lurzoruaren zigilatzearen ondorioak murriztu eta funtzio gehienei eustea uzten duten eraikuntza-produktuen eta -tekniken ikerketa sartzea) aplikatzeko estrategiaren hausnarketa eta diseinu bateratua egitea.</p> <p>Tresna egokiak eraginkortasunez martxan jartzea, jarraibide iraunkorrenak positiboki diskriminatzeko.</p>	
Ekintzaren garapenean inplikaturako eragile nagusiak	
Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila	
Gobernuko beste sail batzuk eta lurzoruaren artifizialtzearen eragina duten eskumenak dituzten erakundeak	
Ekintzaren emaitzen hartzaileak	
Euskal Autonomia Erkidegoko herritarrak	
Epea	

3. PR	EKIN: PREBENITZEA, BERRESKURATZEA, BIRZIKLATZEA ETA BALORIZATZEA					
8. EL	<i>Erabiltzen ez diren eta kalitatea aldatu gabe duten kokalekuak BERRIRO ERABILTZEA</i>					
8.1.E	Lurzoruaren artifizialtzea murrizteko jarraibideak egitea eta neurriak identifikatzea					
2007an hasi da zigilatzearen azterketarekin, eta lau urte iraungo du						
Aurrekontuaren kalkulua						
8.1.E	2007	2008	2009	2010	2011	2012
Giza baliab.	25.000 €	25.000 €	25.000 €	25.000 €	25.000 €	25.000 €
Baliab. finantz.	50.000 €	100.000 €	300.000 €	175.000 €	-	-

8.2 ekintza. Hirigintza erabiltzea lurzoru poluituen berrerabiltzea eta berreskuratzea errazteko

3. PR	EKIN: PREBENITZEA, BERRESKURATZEA, BIRZIKLATZEA ETA BALORIZATZEA
8. EL	<i>Erabiltzen ez diren eta kalitatea aldatu gabe duten kokalekuak BERRIRO ERABILTZEA</i>
8.2.E	Hirigintza erabiltzea kalitatea aldatuta duten lurzoruen BERRERABILTZEA eta berreskuratzea errazteko
Aurrekariak eta deskribapena	
<p><i>Lurzoru poluituen plan</i> honetan hainbat aldiz aipatu den bezala, hirigintza da lurzoria poluzioaren aurka babesteko politikaren indar eragile nagusia baliabide hori berreskuratzeari dagokionez. Lurralde-antolamendua arautzen duten hainbat tresnen bidez, hirigintzak bakarrik zuzendu eta sustatu ahal izango du kalitatea kaltetuta duten kokalekuen berrerabiltzea, eta, bestetik, hark bakarrik lagun dezake berreskuratze-kostuei aurre egiten uzten duten erabilerak esleitzen lur horiei (Ingurumena babesteko 3/1998 Lege Orokorren printzipioetan aipatzen den moduan, eta, betiere "poluitzen duenak, ordain dezala" printzipioa aplikatzeko betebeharra eta gaur egun indarrean dagoen legeriako beste betebeharrak batzuk ahaztu gabe).</p> <p>Iraganean ahalegin gutxi egin izan da "lurzoruaren kalitatearen" irizpidea hirigintza-prozeduran sartzeko. Izan ere, kalifikazioa aldatzea 1/2005 Legeko egoerarik garrantzitsuenetakotzat hartu da lurzoruaren kalitatea deklaratzeko prozedurari ekiteko.</p> <p>Hala ere, hori esku-hartze "erreaktiboa" da, hau da, hirigintzak arlo horretako arauetan oinarrituta erabakiak hartutakoan hasten dira ingurumen-ekintzak. Ekintza honen bidez, lurzoria babestean hirigintzak jarrera aktiboa hartzeko mekanismoak bilatuko dira, arlo horretan eskumenak dituzten administrazio maila ezberdinekin koordinazioan.</p> <p>Jarrera aktibo hori ekintzen bidez gauza daiteke, esaterako, kalitatea kaltetuta duten lurzoruen berrerabiltzea sustatzetik (edo lurzoru "berria" zigortzetik) hasi eta lurzoruari erabilera orokorrak edo zehatzak esleitzera, ahal den neurrian, eragin-mailekin bat etorriz, hirigintza arriskua kudeatzeko lehen mailako tresna bihurtu dadin, erabilera sentikorrek lurzoru poluituetan planifikatzean nabarmen handi daitezkeen saneamendu-kostuak minimizatzen.</p>	
Justifikazioa	
<ul style="list-style-type: none"> - 3/1998 Legearen printzipioak - Artifizialtzeari buruzko direktibaren proposamena 	
Erronkak eta helburuak	
<p>Ekintza honen garapena identifikatzea eta koordinatzea lurralde-antolamenduan eta hirigintzan eskumenak dituzten administrazioekin</p> <p>Gainerako administrazioekin adostuta, kalitatea kaltetuta duten kokalekuetan hirigintzako esku-hartzeak optimizatzen dituzten ekintza-estrategiak diseinatzea.</p> <p>Saneamendu-kostuak hirigintza-kostuetan sartzeko aukera baloratzea.</p> <p>Hirigintzak hainbat mailatan eskaintzen dituen aukera errealak identifikatzea: plangintza, kudeaketa eta diziplina. Adibidez, plangintza aldatzeko gaitasuna lurzoru poluituen saneamenduari aurre egiteko baliabide osagarriak sortzeko.</p>	
Ekintzaren garapenean inplikaturako eragile nagusiak	
<p>Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila</p> <p>Lurralde-antolamenduan eta hirigintzan eskumenak dituzten administrazioak</p>	
Ekintzaren emaitzen hartzaileak	
Kalitatea poluzioaren ondorioz hondatuta duten kokalekuen jabeak	

3. PR	EKIN: PREBENITZEA, BERRESKURATZEA, BIRZIKLATZEA ETA BALORIZATZEA					
8. EL	<i>Erabiltzen ez diren eta kalitatea aldatu gabe duten kokalekuak BERRIRO ERABILTZEA</i>					
8.2.E	Hirigintza erabiltzea kalitatea aldatuta duten lurzoruen BERRERABILTZEA eta berreskuratzea errazteko					
Epea						
Urte bat						
Aurrekontuaren kalkulua						
8.2.E	2007	2008	2009	2010	2011	2012
Giza baliab.	25.000 €	50.000 €	62.500 €	75.000 €	100.000 €	100.000 €
Baliab. finantz.	50.000 €	100.000 €	200.000 €	200.000 €	50.000 €	50.000 €

9. EL. Aurreikusitako hirigintza-jarduerarik ez duten eta poluituta egon daitezkeen lurzoruen kudeaketa

9.1 ekintza. Ekintza-estrategiak diseinatzea eta gauzatzea hirigintza-merkatutik kanpo dauden eta poluituta egon daitezkeen kokalekuetarako

3. PR	EKIN: PREBENITZEA, BERRESKURATZEA, BIRZIKLATZEA ETA BALORIZATZEA
9. EL	AURREIKUSITAKO HIRIGINTZA-JARDUERARIK EZ DUTEN ETA POLUITUTA EGON DAITEZKEEN LURZORUEN KUDEAKETA
9.1.E	Ekintza-estrategiak diseinatzea eta gauzatzea hirigintza-merkatutik kanpo dauden eta poluituta egon daitezkeen kokalekuetarako
Aurrekariak eta deskribapena	
<p><i>Hondakinei buruzko 10/1998 Legearen eta Lurzorua babesteko direktibaren proposamenaren ondorioz, autonomia-erkidegoek eta EBko estatuak, hurrenez hurren, lehenespen-zerrendak egin behar dituzte administrazioaren jarduera ordena dezaten arriskuaren objektibazio-irizpideak zentzurik zabalean kontuan hartuta.</i></p> <p>Esperientziak erakutsi du lehenespen-irizpideak ez direla aplikatu behar poluituta egon daitezkeen kokaleku guztietan, baizik eta, nagusiki, kokaleku hauetan: hirigintza-jarduerarik aurreikusita ez duten kokalekuetan —interes-eremutik kanpo daudelako—, edo garapen-bokazioa duten eremuetan kokatuta egon arren, esku-hartze oro eragozten duten egoeretan dauden kokalekuetan (adibidez, <i>orphan sites</i> edo kokaleku umezurtzetan, ezin da jakin zein den poluzioaren erantzulea edo poluitzen duena ezin da erantzulezat hartu indarreko legeriaren arabera edo hark ezin ditu berreskuratze-kostuak bere gain hartu). <i>Lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legearen 17. artikuluan</i> zehaztutako egoeretako bat gertatzen denean ikertu eta berreskuratuko dira gainerako kokalekuak, hala badagokie (jarduera industrial bat instalatzea edo zabaltzea, lur-mugimenduak gauzatzea, kalifikazioa aldatzea, etab.), baldin eta administrazioa lurzoruaren kalitatea deklaratzeko prozedura martxan jartzera behartzen duten poluzio-aztarna nabarmenak ez badaude.</p> <p>Ekintza honen lehen helburua kokaleku-mota horietan jarduera-estrategiak diseinatzea izango da, eta, ondoren, estrategiak proposatzen dituen jarduerak egiten hastea. Erabilgarri dagoen informaziotik ondoriozta daiteke, lehentasuna duen lehen kokaleku-taldea landa-eremuetako utzitako hondakindegiek osatuta egongo dela.</p>	
Justifikazioa	
Erronkak eta helburuak	
<p>Lehenespen-metodologia diseinatzea, hortik lehentasuna duten jardueren zerrenda egiteko.</p> <p>Lehentasuna duten kokalekuak eta kokaleku "umezurtzak" berreskuratzekeo jarduera-estrategia diseinatzea. Kokaleku horietan esku hartzeko aukera ematen duten mekanismoak sartu beharko ditu estrategia horrek. Eta, horretan, paper garrantzitsua izango du "lurzoruaren kudeaketa arriskuaren arabera" irizpideak (<i>Risk Based Land Management</i>). Finantziario-tresnek garrantzi berezia hartuko dute. Utzitako hondakindegietan jarduteko estrategia espezifikoak garatu beharko dela aurreikus daiteke.</p> <p>Utzitako hondakindegietan jarduteko gida metodologikoak garatzen jarraitzea.</p> <p>Arriskua ebaluatzeko ereduak aplikatzea oinarri duten segimendu eta kontrol planak egitea, potentzialki kutsatuta dauden inguruetan; hala nola, Natura Sarea 2000, hezeguneak, balio agrologiko handia duten inguruak, etab.</p> <p>Berreskuratze-kostuak finantzatzea ahalbidetzen duten funtsak sortzeko aukera ematen duten ekintzak sustatzeko aukera eta/edo hori egitea komeni den aztertzea, erabakiak hartzean eragiten</p>	

3. PR	EKIN: PREBENITZEA, BERRESKURATZEA, BIRZIKLATZEA ETA BALORIZATZEA					
9. EL	<i>AURREIKUSITAKO HIRIGINTZA-JARDUERARIK EZ DUTEN ETA POLUITUTA EGON DAITEZKEEN LURZORUEN KUDEAKETA</i>					
9.1.E	Ekintza-estrategiak diseinatzea eta gauzatzea hirigintza-merkatutik kanpo dauden eta poluituta egon daitezkeen kokalekuetarako					
duten alderdi guztiak kontuan hartuta, hala nola kokalekuaren ezaugarriak, aurretiko beharrezko ekintzak, lege-baldintzak, hirigintza-alderdiak eta errentagarritasuna. Kokaleku horiei balioa emateko ahalegin berritzailea behar da (adibidez, hondakindegri batzuetan isurketa egiten jarraitzeko baimena eman daiteke, irabaziak saneamenduan erabiltzeko)						
Ekintzaren garapenean inplikaturako eragile nagusiak						
Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila Aldundiak, mankomunitateak eta lehentasuna duten kokalekuen jabe diren udalak Lehentasuna duten kokalekuen beste jabe batzuk						
Ekintzaren emaitzen hartzaileak						
Lehentasuna duten kokalekuen jabeak Euskal Autonomia Erkidegoko herritarrak oro har						
Epea						
Urte bat						
Aurrekontu publikoaren kalkulua						
9.1.E	2007	2008	2009	2010	2011	2012
Giza baliab.	25.000 €	25.000 €	25.000 €	25.000 €	25.000 €	25.000 €
Baliab. finantz.	100.000 €	100.000 €	100.000 €	100.000 €	100.000 €	100.000 €